

Aniztasun funtzionala
BERDINTASUNAREN
aldako
politiketan
sartzeko gomendioen
GIDALIBURUA



feko

Berdintasunaren Aldeko Emakumeak
Comisión de Mujer por la Igualdad

D.L.:

© Todos los derechos reservados.

Gida hau Fekoorren Berdintasunaren Aldeko Emakumeen Batzordeak 2009-2010ean garatutako lanaren ekimenez eta lan horretan oinarrituta egin da.

Idazlariak:

Izaskun Jiménez Gómez

Karmele I. Ruiz Antolín

Blas de Otero kalea, 63, behea
48014 Bilbo (Bizkaia)
Tel. 94 405 36 66
Faxa 94 405 36 69
emakume@fekoor.com
www.fekoor.com

The logo for 'fekoor' features the word in a bold, lowercase, sans-serif font. Above the 'o's, there are three circles of varying shades of gray, arranged in a slight arc.

Babesleak:



Fundación ONCE
para la cooperación e integración social
de personas con discapacidad



ATARIKOA

1. BERDINTASUNERAKO POLITIKA ETA TRESNEN TESTUINGURUA	9
1.1.Desgaitasuna duten emakumeak Esparru Arauemaile eta Arautzai- lean, emakume eta gizonezkoen arteko berdintasun-arloan	9
1.2.Desgaitasuna duten emakumeak Esparru Arauemaile eta Arautzai- lean, pertsona desgaituen eskubide-arloan	13
2. AHOZKO ETA IDATZIZKO HIZKUNTZARAKO TERMINOLOGIAREN ESKULIBURUA	17
2.1.Aniztasun Funtzionalaren eta desgaitasunagatiko diskriminazioaren Eredu Sozialaren kontzeptua	17
3. EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN ALDE- KO POLITIKA, PLAN ETA ZERBITZUETAN ANIZTASUN FUNTZIO- NALA DUTEN EMAKUMEAK SARTZEKO GOMENDIOAK	19
3.1.Helburuak zehaztea	19
3.2.Jarduera-ildo eta -esparruen zehaztapena	20
3.3.Ahalmen Urritasunaren Mainstreaming-erako zeharkako ardatzak, edozein jarduera eremutan	21
3.3.1.Zeharkako Ardatzerako gomendioak: Hirigintza, Eraikuntza eta Garraio Publikoa	21
3.3.2.Zeharkako Ardatzerako gomendioak: Zerbitzuetako arretaren, komunikazioaren eta Gizarte-irudiaren egokitzapena	29
3.3.3.Zeharkako Ardatzerako gomendioak: Aniztasun funtzionala duten emakumeen ahalduntzea	41
3.4.Jarduera-eremuetan ahalmen urritasunaren mainstreaming-a garatzeko helburu edota ekintzetarako proposamena	44
3.4.1. Hezkuntza- eta Trebakuntza-alorreko gomendioak	44
3.4.2. Enplegu-alorreko gomendioak	48
3.4.3. Aisialdi-, Kultura- eta Kirol-alorreko gomendioak	55
3.4.4. Gizarte Zerbitzu eta Prestazioen alorreko gomendioak	60
3.4.5. Osasun-alorreko gomendioak	64
3.4.6. Sexu Hezkuntzari buruzko gomendioak	71
3.4.7. Ugalketa- eta Amatasun-alorreko gomendioak	76
3.4.8. Herritarren Segurtasunaren alorreko gomendioak	81
3.4.9. Indarkeriaren Biktimen Prebentzioaren eta Arretaren alorreko gomendioak	85
4. KUDEAKETA ETA EBALUAZIOA	94
5. BIBLIOGRAFIA-ERREFERENTZIAK ETA DOKUMENTAZIOA	95

FEKOOR Desgaitasun Fisikoa edota Organikoa duten Bizkaiko Pertsonen Federazio Koordinatzailea gobernuz kanpoko erakundea da, irabazi asmorik gabekoa, apolitikoa eta akonfesionala eta, 1979az geroztik, desgaitasun fisikoa edota organikoa duten pertsonak gizarteko esparru guztietan erabat txertatzea eta normalizatzea xede duena. Gaur egun, desgaitasun fisikoa (mugitzekoa eta organikoa) dutenen Bizkaiko 19 elkarte nagusiak biltzen ditu. 7.000 lagunetik gora dira elkartutakoak eta horien % 42 emakumeak dira.

FEKOORren Berdintasunaren Aldeko Emakumeen Batzordea Federazio horren barnean sortu zen 2002an, federatutako elkarteetako emakume-talde baten borondatezko bultzadari esker. 2005az geroztik aitortuak ditu funtzionatzeko autonomia eta aurrekontuko baliabideak kudeatzekoa.

Fekooren edota bere elkarte kideetako edozeinetan elkartuta dauden Bizkaiko emakumeak ordezkatzeko sortu zen desgaitasun fisikoa edota organikoa duten Bizkaiko emakume guztien izenean hitz egiteko bokazioarekin, edozein delarik horien adina, arraza, erlijioa, sexu-izaera edo jatorria. Beraz, biztanleria-sektore oso esanguratsua hartzen du.

2007-2008 urteetan, Fekooren Berdintasunaren Aldeko Emakumeen Batzordeak autonomia erkidegoko nahiz tokiko Berdintasun Planen azterketa zorrotza egin zuen ondorio eta proposamenen Azken Txostena egiteko eta desgaitasuna EAeko Berdintasun Planetan zeharka sartzeko helburuarekin, irizpide orokorrei dagokienez, arlo eta ildo estrategikoei dagokienez nahiz ekintzei dagokienez

Hain zuzen ere, honako hauen edukia aztertu zen:

- EAeko Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako IV. Plana.
- Aukera Berdintasunerako Foru Plana.
- Bilboko Udalaren Berdintasunerako II. Plana.
- Berdintasunerako Tokiko Planak Diseinatu, Kudeatu eta Ebaluatzeko EUDELen jarraibideak.

Autonomia-erkidegoaren esparruko, foru-esparruko eta udal-esparruko berdintasun-politiken zutabe izan diren dokumentu horien edukia gure sektorerako garrantzi handikoak diren dokumentuen edukiarekin alderatu zen, honako hauekin, esaterako:

- Gutxitasuna duten Emakumeentzako 2005-2008 Ekintza Plan Integrala, CERMiko Emakumeen Batzordeak egindakoa COCEMFeko Emakumeen Batzordearen ekarpenarekin.
- Desgaitasuna duten Emakumeentzako 2007ko Estatuko Ekintza Plana.
- FEKOORren Estrategia Liburua: Desgaitasuna duten Emakume eta Gizonezkoen eskubideak.
- Desgaitasuna duten emakumeen Europako egoerari buruzko Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2007ko martxoaren 23koa.

Lan horren ondorioz, eta desgaitasuna duten emakumeek berdintasun-plan orokorretan izaten dituzten desberdintasunen presentzia eskasa egiaztatu ondoren,

“Izan gaitzen gai: EAerako Genero eta Desgaitasuneko Zeharkakotasun proposamena” deituriko dokumentua sortu zen, 2008ko abenduaren 18an Bilbon egin zen Bizkaiko Emakumeei eta Desgaitasunari buruzko V. Foroan berdintasunaren esparruko kargu publiko eta profesionalen aurrean aurkeztu zena. Dokumentuaren xedea genero- eta desgaitasun-ikuspegi bikoitza berdintasun-planetan txertatzeko administrazioentzako erreferentzia izatea da, desgaitasuna duten emakumeen errealitatea politika guztietan zeharka islatu dadin eta arreta izan dezan.

2009an, gure Batzordeak **Eztabaidarako Topaketak** antolatu zituen. Topaketetan beste aniztasun funtzional batzuetako erakundeetako emakumeen ordezkarien ekarpenak eta atxikipenak jaso ziren, besteak beste, EAEko entzumen, ikusmen, buru eta adimen desgaitasuna dutenena.

Diskriminazio anitzeko arloko barneko hausnarketa-lana bultzatzeko eta geure erakundeen barruan berdintasun-politikak sustatu eta aldarrikatzeko premia egiaztatu ahal izan genuen.

Hala, 2009ko azaroan, ELKARTEAN Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Euskal Konfederazioaren autonomia-esparruan Generoko Lantaldea eratzea erabaki zen, Arabako Eginaren Eginez, Gipuzkoako Elkartu eta Bizkaiko Fekoor elkarteek osatuta, Aniztasun funtzionala duten emakumeek euren diskriminazio-egoera bikoitzarekiko dituzten eskubideak aitortu eta defendatzeko.

ELKARTEANen Generoko Lantaldeak jakin zuenean Emakundeek EAEko Emakume eta Gizonezkoen V. Berdintasun Plana abian jarri zuela, Feekorren Berdintasunerako Emakumeen Batzordeari eskatu zion proposamen bat egiteko, gero Emakunderi aurkezteko. Planaren etorkizuneko testuinguruan aniztasun funtzionala duten emakumeen egoera bistartzeko eragiketa-helburuak edo ekintzak jaso behar zituen proposamenak.

Topaketa horietan aho batez berretsitako ondorioa izan zen *“desgaitasuna duten emakumeen inguruabar espezifikokoak modu sistematikoan eta zeharkakoan kontuan hartu behar direla edozein politika garatzeko orduan. Arlo, programa, helburu eta ekintza guztietan zehar euren premiei modu sistematikoan aurre eginda soilik aurrera egin ahal izango da genero- eta desgaitasun-ikuspegi bikoitza txertatzeko prozesuan”*.


Aldi berean, Fekoarren Berdintasunerako Emakumeen Batzordeak zortzi **Elkargune** garatu zituen, 2009an hasi eta 2010eko azaroan amaitu zituenenak, Genero eta Desgaitasunaren Zeharkakotasun Proposamena lantzeko helburuarekin. Horretarako, desgaitasuna duten emakumeek bizipenen proposamenak egin zizkieten interbentzio-arlo guztiei.

Elkarguneen bitartez ekarpenak jaso ziren proposamena jakineko helburu eta ekintzekin osatzeko, desgaitasuna zeharka lantzea sustatuko duten eta lagunduko duten helburu eta ekintzekin, Berdintasun Planen elaborazioan eta garapenean ez ezik, baita Genero eta Aukera Berdintasun printzipioak errespetatuko dituzten politiken diseinuan eta zerbitzu-prestazioan ere.

Hainbat urtetako lan horretan aniztasun funtzionala duten 80 emakume baino gehiagok, arlo bakoitzean espezialista diren profesionalek eta beste hainbat adituk hartu dute parte eta aukera eman die dokumentu honen idazlariei **Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Politika, Plan eta Zerbitzuetan Aniztasun Funtzionala duten Emakumeak Sartzeko Gomendioen Gida** hau egiteko.

Gida horrek, esparru arauemailearekin eta hizkuntza eta terminologiarako jarraibideekin batera, 2008ko proposamen-dokumentuan jasotako gomendio guztiak jasotzen ditu, aniztasun funtzionala duten emakumeen kolektiboaren premia eta espezifikotasunen inguruan egindako topaketa eta tailer horietan lortutako ekarpen eta atxikipenekin aberastuta.

Tokiko politiketan presente dauden jarduketa-arlo edo -esparruetarako gomendioak modu espezifikoan ordenatzen dituen gida edo eskuliburua da. Baina beste sektore publiko nahiz pribatu batzuetarako ere balio du, haien eguneroko lanean emakumeen eta gizonezkoen berdintasunaren aldeko printzipioak eta ekintzak ezartzen joateko erantzukizunean.



1. BERDINTASUNERAKO POLITIKA ETA TRESNEN TESTUINGURUA

1.1. Desgaitasune duten emakumeak Esparru Arauemaile eta Arautzailean, emakume eta gizonezkoen arteko berdintasun-arloan

Lehenik eta behin, **Emakumeen Aurkako Diskriminazio Era guztiak Ezabatze**ko **Konbentzioa, CEDAW, 1979** aipatu behar dugu, inolako zalantzarik gabe. 1983an Espainiak berretsi zuen eta 2000n Protokolo Gehigarriak. CEDAW konbentzioan ageri den guztian, erkidego, estatu edo autonomietako arlo horretako indarreko esparru arauemaile guztian bezala, emakume guztiak sartu behar dira haren edukian, desgaitasunagatiko diskriminazioa nozitzen duten eta aniztasun funtzionala duten emakume guztiak barne, batere salbuespenik egin gabe.

Emakumeek bizi izandako atxikipenen deseraikuntzan aurrera egiteko, gure aniztasuna bere osotasunean aitortu behar da: arraza, erlijioa, sexu-joera edota desgaitasuna. Desgaitasunaren faktorea baztertzea desberdintasunaren kausa ahaltso eta unibertsalenetako bat baztertzea da.

650 milioi lagun baino gehiagok dute era bateko edo besteko desgaitasunen bat, hau da, munduko biztanleriaren % 10k gutxi gorabehera. 650 milioi pertsona horietatik 330 milioitik gora emakumeak dira: % 51 eta % 53 artean eta goranzko joerarekin.

Espainian, desgaitasunen bat duten pertsona guztien % 58 dira emakumeak. 65 urtetik aurrera talde gehiengo duna dira eta 80 urtetik aurrera alde areagotu egiten da, izan ere, % 69 emakumeak dira eta % 31 gizonezkoak. (*Iturria: Desgaitasunen, Urritasunen eta Osasun Egoeraren gaineko inkesta, 1999-EIN, aurrerantzean EDDES*). Errespetatu beharreko aniztasun-ezaugarri garrantzitsua da, emakume nahiz gizonezkoengan.

Gure erkidegoaren esparruan, emakume eta gizonezkoen eskubide eta aukeren berdintasuna Europar Batasuneko oinarritzko printzipioa da. 1999ko maiatzaren 1ean **Amsterdamgo Ituna** indarrean sartu zenetik, emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna eta batzuen eta besteen artean desberdintasunak ezabatzea Europar Batasunaren eta bere kide guztien politika eta ekintza guztietan txertatu beharreko helburua da.

Emakume eta gizonezkoen berdintasun eraginkorrerako 3/2007 Lege Organikoak, martxoaren 22koak, tratu-berdintasunari buruzko bi zuzentarau gehitu ditu Espainiako ordenamenduan, batetik, **2002/73/CE Zuzentaraua, 76/207/CEE Zuzentaraua aldatzen duena**, enplegurako, prestakuntzarako, lanbide-sustapenerako sarbideari eta lan-baldintzei dagokienez gizon eta emakumeen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa; eta, bestetik, **2004/113/CE Zuzentaraua**, ondasun eta zerbitzuetarako eta horien hornidurarako sarbidea izateko gizon eta emakumeen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa.

Arrazoiak azaltzeko orduan, honako hau aipatzen du: *“balaber, arreta berezia izatea aurreikusten da diskriminazio bikoitzeko kasuetan eta urrakortasun bereziko emakumeek dituzten zailtasun bereziko kasuetan, esaterako, gutxiengoetako emakumeen, emakume etorkinen eta desgaitasuna duten emakumeen kasuetan”*.

Legeak ez du aipatzen Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa, Espainian 2008ko maiatzean indarrean sartu zena, Lege Organiko hau onartu eta gero.

Berdintasunerako Politika Publikoei eskainitako II. Tituluan, Botere Publikoen jarduketa-irizpide orokorrei buruzko 14. artikuluko 6. puntuan, diskriminazio anitzeko egoerak jasotzen ditu kontuan izan beharreko botere publikoen jarduketa-irizpide gisa: *“Kontuan izango dira urrakortasun bereziko kolektiboetako emakumeen zailtasun bereziak, esaterako, gutxiengoetakoek, emakume etorkinek, neska gazteek, desgaitasunen bat duten emakumeek, adineko emakumeek, alargunek eta genero-indarkeriaren biktima direnek. Botere publikoek neurri positiboak hartu abal izango dituzte emakume horientzat”*.

Estatistika eta Azterlanen Egokitzapenari buruzko 20. artikuluko c) atalean gure sektorea aspalditik eskatzen ari den alderdi bat dago jasota, hain zuzen ere, genero-ikuspegia bistaratzea: *“Beste aldagai batzuen eragina ezagutzeko aukera ematen duten premiazko adierazle eta mekanismoak diseinatu eta sartzeari, hainbat interbentzio-esparrutan diskriminazio anitzeko egoerak sortuko dituztenak”*.

Azkenik, hamaikagarren eta hamalagarren Xedapen Gehigarrietan Langileen Estatutuaren Legearen eta Lan Arloko Arau-hauste eta Zehapenen Legearen hainbat aldaketa sartu ditu, aurkako diskriminazio zuzen edo zeharkakoen zenbait kasutarako idazketa berriak ezarrita, espezifikoki desgaitasunagatikoak direnak barne.

EAEko esparruan, **4/2005 Legea, Emakume eta Gizonezkoen Berdintasunerakoa**, bere printzipio orokorretan diskriminazio anitzeko egoerak jasotzera mugatu zen: *“Euskal botere publikoek diskriminazio-egoerak eragin ditzaketan beste faktore batzuk dituztelako diskriminazio anitza nozitzen duten emakumeen edo emakumetaldeen oinarrizko eskubideak gauzatzea bermatuko dute, esaterako, arraza, kolorea, jatorri etnikoa, bizkuntza, erlijioa, iritzi politikoak edo beste era batekoak, gutxiengo nazional batekoa izatea, ondarea, jaiotza, desgaitasuna, adina, sexu-joera edo beste edozein izaera edo inguruabar pertsonala edo soziala”*.

Euskal Autonomia Erkidegoan **Emakume eta Gizonezkoen Berdintasunerako V. Plana** daukagu, 2010eko ekainean onartutakoa. Aurrekoaren egitura desberdineko plana da, lehenesten dituen aldaketa sozialak zuzentzeko asmo aipagarria duena, gobernu-sailen eta tokiko administrazioen plan estrategikoei erabilgarritasun handiagoa ematen diena eta berdintasuneko zeharkako politikak eta berdintasuneko politika espezifikokoak garatzen dituena.

Honako hau dio aurkezpenean: *“(…) berdintasun-politikek kontuan izan behar dute sexuagatiko desberdintasunaz eta diskriminazioaz gain, beste inguruabar batzuk egon daitezkeela (klasea, adina, desgaitasuna, sexu-joera, inmigrazioa, etnia, etab.),*

elkartzen direnean diskriminazio anizkoitza sortzen dutenak edo sor dezaketenak, emakumeen posizioan, bizi-baldintzetan eta berezkoak dituzten hiritar-eskubideen erabateko erabileran horrek sor dezakeen ondorio negatiboarekin, emakume guztien eta gizonezkoen berdintasun-helburua betetzeko orduan aurrerapen desberdina sortuz. (...) EAEko Emakume eta Gizonezkoen Berdintasunerako V. Plana – IX. Legealdiko Jarraibideak atala diskriminazio anitza aipatzen dituen helburuetan txertatzen abalegindu da, batzuetan modu esplizituan eta beste batzuetan ikuspegi implizitu batetik, baina betiere diskriminazio anitza berdintasun-politiketan txertatzearen inguruan hobekuntza nabarmena behar dela jakinda. Horretarako, ezinbestekoa da aniztasuna eta irisgarritasun-printzipioa eraginkortasunez betetzea bere lan-prozesuetan eta jarduketetan kontuan hartzea”.

Fekoorren Berdintasunaren aldeko Emakumeen Batzordeak azken urteetan egindako lanak zutabe nagusi bat izan du helburu horretan eta funtsezko protagonismoa Emakundek V. Plan horretan jasotako hausnarketa eta ondorioa sustatzen, orain bideratu egin behar dena.

Generoko mainstreaming kontzeptua definitu eta onartzeko hainbat urte behar izan diren bezala, aniztasunarekin osatzeko aukera emango digun prozesuari ekin behar diogu orain eta genero- eta desgaitasun-ikuspegi bikoitza politika guztietan txertatzeko nahi dugun modua diseinatu.

Genero- eta desgaitasun-ikuspegi bikoitz horrek aukera emango liguke garatzen diren politika eta zerbitzu guztiak pertsona guztientzako, emakume guztientzako pentsatuak egon daitezen, desgaitasunen bat duten emakumeen berezitasunak eta posizioak txertatuta eta kolektibo horri zuzendutako jarduketak gizarteratzearen arloetan soilik gauza daitezen saihestuta.

Edozein kasutan, asmo horiek konbinatuta aplika dakizkieke eta aplikatu behar zaizkie zeharkako eta sektoreko guztiei.

IX. Legealdiko Jarraibideen artean EAerako Genero eta Desgaitasunaren 2008ko Zeharkakotasun Proposamenean Berdintasunaren aldeko Emakumeen Batzordekook jaso genituen eskaera zeharkakoenetako bat dago, hain zuzen ere, *administrazioetan lan egiten duten pertsonak generoaren eta ezintasunaren arloan prestatzeko premia.*

Baina diskriminazio anitzeko egoeran dauden emakumeekin lan egiten duten pertsonak aipatzera mugatzen da. Administrazio osoak herritar guztientzat egiten du lan eta haren zerbitzu, obra eta zuzkidura guztien ekintzen erabiltzaile eta hartzaile diskriminazio anitza nozitzen duten emakumeak dira.

Lehen urrats gisa ulertzea gustatuko litzaiguke eta, gero, prestakuntza hedatzea bai zerbitzu espezializatueta eta bai zerbitzuen diseinua eta prestazioa, inguruneen diseinua, enplegua, osasunbidea, eraikuntza, garraioa eta abar zuzentzen dituzten profesional guztietara.

Ondoren, berariaz jasotzen ditu diskriminazio anitzeko egoerak: Ahalduntzea eta Balio Aldaketa Ardatzean, 2. programan. Baliabide ekonomiko eta sozialetarako

sarbidea eta horien kontrola, 2.3. Helburu estrategikoa. Baliabide sozialetarako sarbidea hobetzea, Diskriminazio Anitzeko egoeretan arreta berezia jarriz.

Honako hauek aipatzen ditu baliabide sozial gisa:

1. Teknologia Berriak; 2. Garraioa; 3. Osasunbidea; 4. Kirola; 5. Kultura.

Horrek ez du alde batera utzi behar emakumeen sektore horrek duen iritzia definitzen dituen gainerako Ardatz eta Programetan. Aipaturiko 2. Programako beste bi helburu estrategikoak garrantzi handiko erronkak dira diskriminazio anitzaren aurkako ekintzan, oraindik urriak diren egungo datu estatistikoek ondorioztatzeko aukera ematen duten bezala:

- 2.1. Emakumeen enplegurako eta lanbide-sustapenerako sarbidea eta baldintzak hobetzea, kolektibo eta egoeren aniztasunari erreparatuta.
- 2.2. Arriskuan edo pobrezia edota gizarte-bazterketa egoeran dauden emakumeen egoera hobetzea.

Honako hau da Gida honek eman dezakeen erabilgarritasunaren adibide bat: V. Planak 2.3. Helburu Estrategikoa garatzen duenean, aniztasun funtzionala duten emakumeen jakineko premiak jasotzen dituela, esaterako, Osasunbidea eta Kirola arloetan, baina ez duela Teknologia Berriei eta Garraioari buruzko jarraibiderik.

Bestalde, ez du eskaintzen diskriminazio anitzeko egoeretan zko jarraibiderik Antolakuntza Sozial Erantzunkideari buruzko bigarren Ardatzaren Helburu Estrategikoetan eta Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko hirugarren Ardatzean jartzen du arreta.

Argi dago indarkeriaren biktima diren eta aniztasun funtzionala duten emakumeei arreta eskaintzea bultzatzeko asmoa duela Planak. Gure iritziz zeregin garrantzitsuren bat egin gabe geratzen den arren, esaterako, genero-indarkeriaren kontzeptua birdefinitzea, emakumeen sektore honentzako arrisku handieneko indarkeria-motak sartzeko eta arriskuan dauden emakumeak kontzientziatzea sustatzeko.

V. Plan honetan eraginkorra izan daitekeen berritasunetako bat emakume eta gizonezkoen berdintasunerako Gobernantzaren ideia eta Gobernantza hori hobetzeko ekintzen gida gehitzea da.

Gobernantza hobetzeko zeharkako neurrien artean honako hau da 10.a: *“Diseinatu, ebaluatu eta kudeatzeko prozesuetan genero-ikuspegia txertatzen duten sektoreko eta zeharkako planen portzentajea handitzea, premia bereziak dituzten eta diskriminazio anitzeko arriskuan dauden kolektiboak bereziki kontuan hartuta”*.

Eremu funtzionaletan edo lurralde-eremuetan helburu operatiboak eta ekintzak proposatzeko ardura duten profesionalak hor sartuko dira jokoan eta euren lana eta proposamenak aniztasun funtzionala duten emakumeen desberdintasun-kuotak murrizten joango dira.

V. Plana planifikatzeko erreferentziatzeko esparrua da. V. Planean daude jasota euskal administrazioen IX. Legealdirako interbentzio-jarraibideak.

Honako urrats hauek ematea gomendatzen da:

1. V. Planean landuko diren helburuak finkatzea.
2. Helburu bakoitza argitzea: zer egin nahi da eta zergatik.
3. Eskumenak eta jarduketarako ahalmena argitzea..
4. Emaitzak sozializatu eta adostea.
5. Adierazleak, espero diren emaitzak eta kudeaketa-prozedurak ezartzea.

Honela dio gero: *“behin erabakitzen denean Berdintasunerako V. Planeko zer helburu landuko diren eta zein ez, helburu bakoitza argituko da, zer egin nahi den eta zergatik egin nahi den azalduz. Horretarako, gizarte-egoerari buruzko analisia xebatu behar da eta erakundearen esku-hartzearen lurralde-eremuan zehaztu behar da, erakundeak une horretan bere esku-hartzerako dituen lan-aukeren analisia egiteaz gain. Bigarren mailako iturrien edo ad hoc ikerketen berrikuspenaren bitartez egin daiteke hori, helburuaren irismena eta edukia zehaztuz gizarte-premien arabera (diskriminazio anitza izateko arriskuan dauden kolektiboen premia espezifikokoak kontuan hartuta) eta erakundearen esku hartzeko benetako aukeren arabera”.*

Gomendio Gida honen xedea plangintzarako lehen urratsak emateko laguntza izatea da: aniztasun funtzionala duten emakumeen gizarte-premia espezifikoak kontuan hartuta, planaren helburuak zehaztea eta argitzea. Kudeaketa- eta ebaluazio-prozesuetarako ere lagundu dezake, eta baita jarduketa-protokoloen eta jardunbide egokien diseinua bideratzen ere.

1.2. Desgaitasuna duten emakumeak Esparru Arauemaile eta Arautzailean, pertsona desgaituen eskubide-arloan

Badakigu ezintasunen bat duten pertsonak gaur egun ez dutela aukera-berdintasunik bizitzeko arlo garrantzitsu gehienetan. Aldi berean, iraun egiten dute emakume eta gizonezkoen arteko desberdintasunek. Gizonezkoekin alderatuta, emakumeek, hainbat arlotan, diskriminazioari eta “kristalezko sabaiari” aurre egiten jarraitu behar dute.

Aniztasun funtzionala duen emakumea izateak are eta okerrago bihurtzen du egoera. Hala, ezintasunen bat duten emakumeak gizarteko talde baztertuenetakoen artean daude eta diskriminazio bikoitzaren edo anitzaren biktima dira.

Ezintasuna duten Europako Emakumeen Manifestua Bruselan onartu zuen 1997ko otsailaren 22an Ezintasunaren Europako Foroko Emakumea ezintasunaren aurrean gaiari aurre egiteko Lantaldeak, orain EDFko Emakumeen Batzorde bihurtu eta Emakumeen Europako Lobby-ko kide egin denak. Giza eskubideen inguruko eta aukera-berdintasunerako arazo gisa aldarrikatzen ziren hainbat eta hainbat arlo eta politikari buruzko gomendio eta salaketen bilduma zen.

Haur, gazte eta emakumeenganako indarkeria prebenitzeko eta indarkeria horri aurre egiteko eta biktimak eta arriskuko taldeak babesteko xedez DAPHNE Erkidegoko

Ekintza Programaren barruan 1999an garatutako **METIS Proiektuaren** hedapena ere garrantzitsua izan zen. Desgaitasuna duten emakumeek pertsonaren garapenarekin eta autonomiarekin zerikusia duten alderdien inguruan dituzten banakako eskubideen urraketari buruzko egoera larriak bildu eta deskribatu zituen METIS proiektuak.

Ordura arte, desgaitasuna duten pertsonen buruz testu arauemailetan ematen zen iritzia eta tratamendua genero-ikuspegia erabat alde batera utzita egin zen.

Emakumeen Eskubideen eta Europako Aukera Berdintasunaren Batzordeak Europar Batasuneko talde gutxiengodunetako emakumeen egoerari buruz 2004ko otsailean egindako txostena izan zen **Europar Batasunean desgaitasuna duten emakumeen egoerari buruzko 2007ko apirilaren 26ko Europako Parlamentuaren Ebazpenerako** (2006/2277(INI)) oinarria, garrantzi handiko edukia zuena. Honako hau da bere proposamenetako bat: *“Estatu Kideei eskatzen zaie desgaitasunen bat duten emakumeen egoera jaso dezatela beti Emakumeen aurkako Diskriminazio Era guztiak Ezabatzeke Konbentzioaren (CEDAW) txosten nazionaletan eta hirigintza, bezkuntza, enplegu, etxebizitza, garraio, osasun eta gizarte zerbitzuetako politiketan”*.

Desgaitasuna duten pertsonen inguruan Espainian gauzatu diren legegintzako azken ekintzak, bereziki **Abenduaren 2ko 51/2003 Legeak, Pertsona desgaituen aukera berdintasuna, bazterketarik eza eta mugieraztasun unibertsala lortzekoak**, ezinduen eredu soziala jaso dute eta genero-ikuspegiari buruzko alarma-deiren bat sartu dute.

Honako hau xedatzen du 51/2003 Legeko 8.2 artikulua *“Botere publikoek objektiboki diskriminazio maila handiena nozitzen duten edo aukera-berdintasun txikiena duten pertsona desgaituentzako behar diren ekintza positiboko neurri osagarriak hartuko dituzte, esaterako, ezintasunen bat duten emakumeentzat, (...)”*.

Aurretik, Zeharkakotasun printzipioa jasotzen du 2.f artikuluan: *“Printzipio horren arabera, erakunde publikoek garatzen dituzten jarduera guztiak ez dira mugatuko pertsona horientzat soilik pentsatutako plan, programa eta ekintza espezifikotara, eta, aldiz, jarduera publikoaren eremu guztietan garatzeko izaera orokorreko ildo eta politikak ere jasotzen ditu, eta kontuan izan behar dira desgaitasunen bat duten pertsonen premiak eta eskaerak”*.

Bestalde, **abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen Autonomia Pertsonala eta horien Arreta Sustatzekoak**, *“emakume eta gizonezkoen premiak kontuan hartuta, genero-ikuspegia sartzea”* aipatzen du bere printzipio iradokitzailen artean. Gainera, esaten du *“emaitzen ebaluazioan Legearen garapenari buruzko genero-inpaktuaren txostena egingo dela (...)”*.

Gida honen atarikoan aipatu dugu **Desgaitasuna duten Emakumeentzako 2007ko Estatuko Ekintza Plana** alderatutako eta inpaktu mugatuko dokumentu gisa, eskumeneren banaketa kontuan hartuta. Testu honetan garatzen ari den bezala, Zeharkakotasun printzipioak dio genero-berdintasunaren aldeko arau, politika eta baliabide guztiek desgaitasunaren ikuspegia jaso behar dutela eta tresna isolatu gisa sortu edo kudeatzen diren plan espezifikoak onartzea saihestu behar dutela.

Nazioarteko esparruan mugarri garrantzitsua izan zen 2006ko abenduan **Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei eta Hautazko Protokoloari buruzko Nazio Batuen Konbentzioa** onartzea, Espainiak 2008ko martxoan berretsi zuena.

Konbentzioa Giza Eskubideen Tresna Unibertsalen zerrendan sartu da. Historian lehen aldiz, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazioarteko Ituna onartu da giza eskubideen nazioarteko babesaren araubide juridiko zabalaren testuinguruan.

Zergatik zen beharrezkoa Konbentzioa?

- Berme orokorrak izan arren, desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideak mundu osoan urratzen jarraitzen direla egiaztatzen duelako. Behar duen sinergia giza eskubideei buruzko gainerako Itunekin batera aztertu beharko da.
- Paradigma-aldaketa bat aldarrikatzen duelako: Desgaitasunaren Eredu Soziala jasotzen du. Desgaitasunen bat duten pertsonen buruzko jarrera eta ikuspegietan izandako paradigma-aldaketaren baieztapen formala da – eskubide-objektutik eskubide-subjektura-.
- Juridikoki loteslea delako, eta ez desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei buruzko gainerako nazioarteko testu unibertsalen izaera ez-loteslekoa.
- Eskubide zibil, politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalen eta bioetikako solidaritate, bizi-kalitate, osotasun eta duintasunaren ekintzaileen agendaren gai gisa jasota dagoelako.

Konbentzioa guztiz aplikagarria da Espainian 2008ko maiatzaren 3az geroztik eta izugarriko garrantzia du, izan ere, egokitzapen eta doikuntza ugari egitera behartzen du gizarte-, politika-, lan- edo kultura-bizitzako eremu guztiei buruzko gure xedapen arauemaile guztietan, bere artikuluetara egokitzeko. 5. artikuluan tratu-berdintasunaren eta diskriminazio-ezaren printzipioa xedatzen du: *“pertsona guztiak dira berdinak legearen aurrean eta, horregatik, lege-babes berdina izateko eta legearen onura jasotzeko eskubidea dute, neurri berean eta diskriminaziorik gabe. Estatu Kideek ezintasunagatiko diskriminazio oro debekatu behar dute eta desgaitasunen bat duten pertsona guztiei lege-babes berdina eta eraginkorra bermatu behar diete edozein arrazoiengatiko diskriminazioaren aurka”*.

Hura prestatzeko eztabaidan, CEDAWrena bagenuen arren, genero- eta desgaitasun-arloko artikulua espezifikoa bat jasotzeko premia zegoela erabaki zen, desgaitasuna duten emakumeen desabantaila-egoerari eta nozitzen duten diskriminazio anitzari erreparatuta. 6. artikulua da hori, honako hau dioena:

1. Estatu Kideek aitortzen dute desgaitasunen bat duten emakumeek eta neskek bainbat diskriminazio-motaren pean daudela eta, hori dela eta, giza eskubide guztiak eta oinarritzko askatasunak osotasunean eta baldintza-berdintasunean izango dituztela bermatzeko neurriak hartuko dituzte.
2. Estatu Kideek behar diren neurriak hartuko dituzte, emakumea osoki garatu, aurreratu eta sustatzeko, Hitzarmen honetan jasota dauden giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak gauzatu eta erabiliko dituela bermatzeko.

Une honetan Parlamentuko izapideak egiten ari da **Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Hitzarmenera arauak egokitzeko Lege Proiektua**. Hala, 2010eko azaroaren 26an, Europako Kontseilua Hitzarmena berrestearen alde

azaldu zen. Europar Batasuna, erakunde gisa, giza eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmen batean sartzearabaki den lehen aldia izan da, Nazio Batuen aurrean berrespena egiten denean Estatu Kide guztietan lotesle bihurtuko den hitzarmenean hain zuzen ere.

Azkenik, Estatuko gobernuak **Tratu Berdintasunerako eta Diskriminaziorik ez izateko Lege Osoaren Aurreproiektua** entregatu du. Aurreproiektuaren motiboan azalpenean honako hau dago jasota: *“I. Tituluko I. kapituluaren definizioen oinarritzko parte bat dago jasota. Titulu horretan diskriminazio anitzaren eta diskriminazio-mota espezifiko horretara egokitutako ekintza positiboko neurrien definizioa eta erregulazioa nabarmendu behar dira, diskriminazio-mota horrekiko bereziki urrakorrak diren emakumeei zuzendutako berdintasun-politiken garapenerako duten garrantzi bereziagatik, sexuagatiko diskriminazioaren arrazoari Legean aurreikusitako beste edozein arrazoi gehitzen zaionean”*.

Gomendio Gida hau argitaratu dugu honako helburu honi erraztasun, ezagutza eta hedapen handiagoarekin aurre egiten lagundu diezaiotzeko: *desgaitasunen bat duten emakumeen inguruabar espezifikoak kontuan hartu behar direla edozein politika garatzeko orduan. Hau da, inguruabar horiek modu sistematiko eta zeharkakoan kontuan hartu behar direla.*

2. AHOZKO ETA IDATZIZKO HIZKUNTZARAKO TERMINOLOGIAREN ESKULIBURUA

2.1. Aniztasun Funtzionalaren eta desgaitasunagatiko diskriminazioaren Eredu Sozialaren kontzeptua

Ez arlo honetan eta ez beste edozeinetan hizkuntza neutrala ez denez eta genero-berdintasunaren aldeko borroka haren garrantziaren adibide argia denez, baliagarria iruditzen zaigu Gida honetan terminologiari buruzko Gida bat sartzea.

Afekzio funtzionalen bat duten pertsonen hainbat modutan deitzen zaie: urrituak, elbarriak, ezgaiak, minusbaliatuak, desgaitasuna duten pertsonak, aniztasun funtzionala duten pertsonak, etab.

Baina horrek ezin digu ahaztarazi zein den printzipio orokorra: pertsonak gara eta, horregatik, dagozkigun eskubide eta betebeharren titularrak gara eta gainerakoek duten ahalmen bera dugu eskubide eta betebehar horiek gauzatzeko, arrazoi fisiko edo psikikoengatik eta prozesu judizial arautuaren bitartez, funtzio edo esparru jakin batzuekiko ahalmen hori ezabatuta edo murriztuta geratzen den kasuetan izan ezik (lanpostu bati buruz edo ondasunak administratzeko beste funtzio batzuei buruz).

39/2006 Legeak, Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen Autonomia Pertsonala eta horien Arreta Sustatzekoak, berehala aplikatu beharreko zortzigarren xedapen gehigarria ere jasotzen du. Honela dio hitzez hitz: *“Testu arauemaileetan «minusbaliatuei» eta «minusbaliotasuna duten pertsonen» buruz egindako aipamenak «desgaitasuna duten pertsonen» buruz egindakotzat joko dira. Lege hau indarrean sartzen denetik, Administrazio Publikoek egindako xedapen arauemaileek «desgaitasuna duen pertsona» edo «edo desgaitasuna duten pertsonak» terminoak erabiliko dituzte pertsona horiei deitzeko”.*

2005etik aurrera, batik bat Foro de Vida Independiente (FVI) erakundeak sustatuta, *“aniztasun funtzionaleko pertsonak”* adierazpena erabiltzen da. FVIren filosofia honako ideia honetan dago oinarrituta: gizarte naturala askotariko pertsonen osatzen dutela eta okerrekoa edo ez-eraginkorra dela berez sofisma bat den pertsona-mota *“estandar”* batentzako, irudimenezkoarentzako edo asmo batentzako gizartea arautzea. Gainera, *“ezintasuna duten pertsonak”* adierazpenak eduki negatiboa duela uste dute, diskriminatzailea delako.

Ezintasunaren Eredu Soziala nazioartean onartua izan da, ezintasuna sortzen duten arrazoiak batik bat sozialak direla ondorioztatzen duena. Jarrera eta ingurune murriztaileak dira bizitza duin eta kalitatezkoaren garapenean eta eskubidean modu negatiboan eragiten dutenak eta mugatzen dituztenak. Ezintasuna diskriminazio sozialeko arazotzat jotzen da, sozialki inposatutako murriztapenen batura gisa sortzen dena.

Bi planteamenduak elkartzen baditugu, honako hau da ondorioa: **“ingurune eta jarrera murriztaileek sortzen duten desgaitasunagatiko diskriminazio soziala aniztasun funtzionala duten pertsonengan”.**

Baina ahozko edo idatzizko hizkuntzaren eguneroko jardunean nahikoa da honako hau oinarrizko arautzat jotzea: garrantzitsua dela *“persona”/“personak” bitza ere erabiltzea eta, aldi berean, hizkuntza ez-sexistaren erabilera errespetatzea, hala eskatzen duenean “degaitasuna duten emakumeak edota gizonezkoak”, “aniztasun funtzionala duten emakumeak edota gizonezkoak”; “... neskak edota mutilak”; “... amak eta aitak”, etab.*

3. EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN ALDEKO POLITIKA, PLAN ETA ZERBITZUETAN ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTEN EMAKUMEAK SARTZEKO GOMENDIOAK

3.1. Helburuak zehaztea

3.1.1. Helburu Orokorrak

- **Martxoaren 22ko Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoaren** 14.6 artikulua hobeto betetzeko tresna baliagarri bat osatzea. Honako hau dio artikulua: *“Botere publiko guztiek, berdintasun-politika publikoak diseinatu eta planifikatzerakoan, kontuan hartu behar dituzte abulezia berezia duten kolektiboetako emakumeen zailtasun zehatzak emakume horien artean daude abalmen-urritasuna duten emakumeak; botere publikoek ekintza positiboko neurriak hartu abal izango dituzte emakume horiei begira”*.
- **51/2003 Legeak, Abenduaren 2koak, Pertsona ezinduen aukera berdintasuna, bazterketarik eza eta mugieraztasun unibertsala lortzekoak**, 2.f artikuluan jasotzen duen Zeharkakotasun printzipioaren ezarpena sustatzea: *“Printzipio horren arabera, erakunde publikoek garatzen dituzten jarduera guztiak ez dira mugatuko pertsona horientzat soilik pentsatutako plan, programa eta ekintza espezifikotara, eta, aldiz, jarduera publikoaren eremu guztietan garatzeko izaera orokorreko ildo eta politikak ere jasotzen ditu, eta kontuan izan beharko dira abalmen-urritasuna duten pertsonen premiak eta eskaerak”*.
- **Ahalmen-urritasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Hitzarmenak**, 6.2. artikuluan, botere publikoei aitortzen dien ardurarekin batera aritzea: *“Estatu Partaideek behar diren neurriak hartuko dituzte, emakumea osoki garatu, aurreratu eta sustatzeko, Hitzarmen honetan jasota dauden giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak gauzatu eta erabiliko dituela bermatzeko”*.
- **EAEko V. Berdintasunerako Planaren**, eta, beraz, beste edozein berdintasunerako planaren tresna izatea, honako helburu hau lortzeko: *“aniztasun funtzionala duten emakumeek jasaten duten askotariko diskriminazioari dagokionez, nabarmen hobetzea berdintasun-politikak; helburu horrek eskatzen du abalmen-urritasuna kontuan hartzea, eta lan- eta jarduera-prozesu guztietan, irisgarritasunaren printzipioa benetan betetzea”*.

3.1.2. Helburu espezifikokoak

- Emakumeen eskubide eta askatasunak osorik betetzera bideratutako jarduera guztietan, ahalmen-urritasunaren ikuspegia txertatzea.
- Berdintasun-planak osatzen dituzten arlo, programa, helburu eta ekintzetan, aniztasun funtzionala duten emakumeen kolektiboaren premiak aztertzea,

generoagatik eta ahalmen-urritasunagatik jasaten duten diskriminazioaren aurkako ekintza positiboaren mainstreaming-a ezartzeko.

- Aniztasun funtzionala duten emakumeei laguntza berezia eskaintzea, ahalduz pertsonala, autonomia fisikoa eta bizitza-kalitatea sustatzeko ekintzetan.
- Administrazioek euren ardurak har ditzaten bultzatzea, ahalmen-urritasuna duten emakumeek bizitzaren esparru guztietan parte-hartzera bideratutako ekintza positiboak ezartzeko; horretarako, besteak beste, sarbide-berdintasuna bermatu eta oztopo fisiko eta sozialak ezabatu beharko dira.
- Kontzientziazio- eta sentsibilizazio-kanpainak sustatzea, ahalmen-urritasuna duen emakumearen irudia gizarteratzen denean, hiritartasuna era aktiboan gauzatzen ager dadin eta, horri esker, aurreiritziak, estereotipoak eta jokabide diskriminatzaileak ezabatzeko.
- Ikerketa eta datu errealak eduki ahal izatea. Hori horrela izan dadin, prospekzioek eta estatistikek ahalmen-urritasunaren aldagaia jasoko dute generoaren aldagaiarekin batera, emakumeek bizitza publikoan zer parte-hartze maila duten jakiteko.
- Aniztasun funtzionalaren ikuspegia txertatzea genero-alorreko jokabide egokien gidaliburuetan, hezkuntzan, lan-esparruan, sindikalgintzan, administrazioetan, osasun-arloan...

3.2. Jarduera-ildo eta -esparruen zehaztapena

Berdintasunerako V. Planean deskribatutako plangintza-prozesua hasteko, zer helbururen alde arituko den eta helburu bakoitza zehaztu behar dira, lehenik eta behin: *zer nahi den eta zertarako*. Horretarako, beharrezkoa da gizarte-egoeraren azterketari erreparatu eta erakunde bakoitzaren esku-hartzearen eremuak zehaztea; gainera, helburuaren irismena eta edukia finkatu behar dira, gizarte-premien arabera eta askotariko diskriminazioa jasateko arriskuan dauden kolektiboaren premiak kontuan hartuta.

Gomendio Gida horrek honako hau eskaintzen du, Zeharkako Ardatz bakoitzean eta Jarduera Eremu bakoitzean:

- Lehenengo, aniztasun funtzional fisiko edo/eta organikoa duten emakumeen sektorean antzeman den gizarte-egoeraren azterketa. Bertan, ikusteko eta entzuteko aniztasun funtzionalak dituzten emakumeen ordezkariak jakinarazitako aholkuak jasoko dira, baina gerta daiteke are gehiago zabaltzeko premia egotea.
- Gero, helburu espezifikoaren edo/eta jarduerak egiteko proposamenen zerrenda.
- Azkenik, jarduera-protokolo eta jokabide egoki posibleei buruzko orientabide orokorra.

Hiru Zeharkako Ardatz eta bederatzi Jarduera Eremu zehaztu ditugu. Gure ustez, lurralde-administrazioen eskuduntza-esparru guztiak edo eragile pribatuen jardueraren eremu ia guztiak har ditzakete beren baitan.

Gida hori erabiliz, erakunde kudeatzaile bakoitzak erabakiko du zer helburu edo ekintza dauden bere eskumenen barruan, eta zein diren proposenak bere esku-hartzeko aukeren barruan.

Zeharkako Ardatzak.

- A. 'Hirigintza, Eraikuntza eta Garraio Publikoa' Zeharkako Ardatzerako gomendioak..
- B. 'Zerbitzuetako Arretaren, Komunikazioaren eta Gizarte Irudiaren egokitzapena' Zeharkako Ardatzerako gomendioak.
- C. 'Aniztasun funtzionala duten emakumeen ahalduntzea' Zeharkako Ardatzerako gomendioak.

Jarduera Eremuak.

- 1) Hezkuntza- eta Prestakuntza-alarreko gomendioak.
- 2) Enplegu-alarreko gomendioak.
- 3) Aisialdi-, Kultura- eta Kirol-alarreko gomendioak.
- 4) Zerbitzu eta Gizarte Prestazioen alorreko gomendioak.
- 5) Osasun-alarreko gomendioak.
- 6) Hezkuntza Sexualaren alorreko gomendioak.
- 7) Sortze- eta Amatasun-alarreko gomendioak.
- 8) Herritarren Segurutasunaren alorreko gomendioak.
- 9) Indarkeriaren Biktimen Arretaren eta Prebentzioaren alorreko gomendioak.

3.3. Ahalmen Urritasunaren Mainstreaming-erako zeharkako ardatzak, edozein jarduera eremutan

3.3.1. 'Hirigintza, Eraikuntza eta Garraio Publikoa' Zeharkako Ardatzerako gomendioak

3.3.1.1. Aniztasun funtzionala duten emakumeen gizarte-egoera, Hirigintza-, Eraikuntza- eta Garraio Publikoen-arloan

Hirigintzaren diseinuak eta plangintzak, eraikitako eremuak eta garraioak gizartearen garapena eta bilakaera baldintzatzen dute. Egunero eta etengabe eragiten diote pertsonak inguruneari egokitzeko moduari.

Ahalmen-urritasunaren Gizarte Eredua da funtsezko faktoreetako bat, bazterketa- eta diskriminazio-egoerak sortzeko unean: mugigarritasunari ezarritako oztupoek gure hiritartasuna, eskubideak (hezkuntza, osasuna, lana...) erabiltzea eta gure gaitasunak (kirola, ikuskizunak, ikasketak, erosketak, ondare eta zerbitzuak kontratatzea...) garatzea baldintzatzen dituzte.

Ikus dezagun aniztasun funtzionala duten emakumeen ustez, nola eragiten dioten hirigintzak, eraikuntzak eta garraioak euren bizimoduari:

"Jarduerak ez dira zedarritzen auzo-ingurura. Batzuk auzoan egiten dira, eta irten aurretik ere pentsatu behar dugu zer ibilbide egingo dugun, iristeko modukoa den ala

ez... Baina kontua zaildu egiten da garraioan pentsatu behar dugunean. Jarduera batzuek beste udalerrri batera joatea eskatzen dute, eta askotan ezin izaten ditugu egin, egokituta ez dauden lekuetan egiten direlako (beraz, horixe izaten da lehenengo eta behin argitu behar izaten dugun kontua). Ez dago egokituta... eskaintzatik kanpora. Hori guztia, baldin eta jarduerari buruzko informazioa eta non dagoen jakiterik izan baduzu, pertsona gorra izan arren.

Pertsona batzuek, abalmen-urritasuna medio, denbora asko behar izaten dute gauzak egiteko, eta ez egitea erabakitzen dute, ezin diotelako eutsi erritmoari, abalegin pertsonal handiegia eskatzen dielako. Ez dira soilik arkitektura-oztopoak; zailtasun fisikoak ere badaude, adibidez, joan behar duzun lekutik obrak badaude, horrek asko-asko nekatzen duelako. Jarduera bat egiteko, abalmen-urritasunaren ondorioz aurkitzen dituzun oztopoak direla-eta, azkenean bertan behera uzten duzu jarduera”.

“Aniztasun funtzionala dugun emakumeoi etxerako erosketak egitea gustatzen zaigu. Gauregun, joera da hirigunetik urrun dauden merkataritza-zentroak egitea, eta beraietan daude abantaila ekonomiko handienak. Baina horrek mugigarritasunaren autonomia mugatzen dute, bai eta mugikortasun murriztua duten emakumeen gastuaren kontrola ere, ez dutelako autorik. Gainera, supermerkatuetan egokitzapenak egiteko premia ere ikusten dugu, erosketak aldean eraman behar ez izateko”.

“Ezin da kalera irten, aurretik plangintza egin gabe. Etengabe ari gara plangintza prestatzen eta jarduera, ibilbidea... planifikatzen. Etengabe ibiltzen gara oztopo horiek gainditzeko moduak bilatzen. Horregatik, ia egunero ibilbide bera erabiltzen dugu. Ez duzu egunerokotasunetik irten nahi, galduta zaude eta.

Emakume askok nabiago dute bakarrik ibili kalean, ibilbidea hobeto kontrolatzen dutelako, badakitelako nondik zeharkatu behar duten kalea... Jendearekin hizketan joanez gero, ordea, kontzentrazioa galdu eta itzuliak egiten amaitzen dute. Egoera hori dela-eta, askotan pentsatzen dute ea ez ote den hobeto bakarrik ibiltzea, lagunekin baino”.

“Kontuan hartu behar da zailtasun guztiak ez direla berdinak abalmen-urritasuna duten pertsona guztientzat. Makuluekin bazoaz nekatu egiten zara, laban egiten duzu, jendeak ez zaitu erraz ikusten eta eraman egiten zaitu. Oinezkoentzako guneak ondo daude, baina batzuetan helmugaraino iristea oztopatzen dute, eta ezin zaitu inork bertara eraman; nekea dela-eta, ezin da erraz iritsi bertara. Oinezkoentzako kaleak sortu abala, distantziak luzatu egiten dira. Abalmen-urritasuna duten emakume askorentzat, oinezkoentzako guneak arkitektura-oztopo biburtzen dira. Horregatik, proposatzen dugu gune horietan mugikortasun murriztua duten pertsonen sarbidea malgutzera, bai eta beste neurri batzuk ere: pertsona horiek intereseko lekuetara eramateko, ibilgailuei pasatzen uztea, edota, helburu handiago batekin, udalak utz dezala scooter elektrikoa erabiltzeko aukera, autoa utzi behar den lekutik bertatik. Gauza bera planteatu da jaietarako. Eta ez zaio ezezkorik esan zerbitzu horri, beharbada jendea prest dagoelako borren truke dirua ordaintzeko. Bizikletak aloka daitezkeen moduan, ibilgailu horiek alokatzeko aukera egon dadila. Metro- edo tren-geltokietan egon litezke, eta autoa norberaren herrian uzteko aukera egongo litzateke horrela”.

“Abalmen-urritasunik ez duten pertsonak bainbat gauzatarako erabiltzen dute biria, eta gauza bera gertatzen da abalmen-urritasuna dutenekin (ordutegiak, zerbitzuak, adibidez, erosketak egitean...). Ama bagara, ezin gara joan ikastetxeetara edo hauartzaindegietara. Abalmen-urritasuna duten emakumeek eta gizonek ez dituzte arazo berberak”.

“Abalmen-urritasuna duen emakumeak diskriminazio bikoitza jasaten du, adibidez, segurtasuna dela eta, edota komun publikoetara sartu abal izateko. Komun publiko ziurrak, egokituak, garbiak eta ugariagoak egonez gero, abalmen-urritasuna duten emakumeak aiseago ibiliko dira kalean. Emakume askorentzat, horixe da etxetik irteteko oztopo handienetako bat. Gauza bera jatetxeetan, kafetegietan, zinemetan edota anbulatorioetan, kliniketan eta ospitaletan ere”.

“Abalmen-urritasuna duten emakumeek gauzak egiteko gogo handiagoa dute gizonek baino. Badirudi aktiboagoak eta parte-hartzaileagoak direla. Gizonak kirolean zentratzen dira. Emakumeek arreta handiagoa eskaintzen diote zaintzari; abalmen-urritasuna izan arren, ikastaro gehiagotan izaten dira. Gero, hiri-eremua beste era batera erabiltzen dute emakumeek, etxeko eremua beste era batera erabiltzen duten bezala. Anbulatorioek, supermerkatuek... abalmen-urritasuna duten emakumeentzako eremuak izan behar dute.

“Emakumeek gehiago erabiltzen dute biria. Gizonak eremu txikiagoetan biltzen dira, eta, ondorioz, emakumeek arazo gehiago izaten dituzte hiri-eremuetan. Emakumeek, ugalketa-jardunaren ondorioz baino ez bada ere, gizonek baino gehiago ibili behar dute hirietan; izan ere, azken horiek ia ibilbide berbera, etxea-lana, egiten dute”.

“Aniztasun funtzionala duten askoz ere emakume gutxiagok dute gida baimena, gizonek baino. Era berean, emakume horien errenta-gaitasuna ere murriztagoa da gizonena baino, baimena eskuratzeko, autoa erosteko eta auto hori egokitzeko. Hori horrela izanik, garraio publikoarekiko mendekotasun handiagoa dute gizonek baino, bai eta gainerako emakumeek baino. Eta, gaur egun, garraio mota horrek oztopo handiak ditu irisgarritasunari dagokionez. Landa-eremuan, normaltzat jotzen den diskriminazio horrek bakartzea areagotzen du, jende guztiarentzako prestatuta egongo den diseinuaren gutxienekora ere ez direlako egokitzen, ez delako pentsatzen aniztasun funtzionala duten herritarrengan”.

“Trebakuntza-ikastaroak egiteko unean, enplegu-zerbitzuek ere baztertu izan dituzte abalmen-urritasuna duten emakumeak, arkitektura-oztopoak direla-eta, komunikazio-irisgarritasuna dela-eta, edota laguntza teknikorik ez dagoelako. Eta emakume askok azaldu dute laguntzari uko egin behar izan diotela, ez zegoelako garraio publiko eskuragarririk”.

3.3.1.2. Helburu eta ekintzetarako proposamena Hirigintza-, Eraikuntza- eta Garraio Publikoaren alorrean

Ondoren azalduko diren ekintza-proposamenetako askok pertsona guztien gizarteratzea dakarten arren, emakumeek adierazitako lehentasunetatik abiatu dira.

Adibidez, espaloi guztiak lurzoruaren altueran ipintzeko proposamenari dagokionez, emakumeek, oro har, gizonak baino indar gutxiago dute; mugikortasun murriztua duten pertsonen artean, emakumeen batez besteko adina altuagoa da; eta emakume gehiagok egiten dute laguntza pertsonala. Horiek guztiak kontuan hartuta, ondoriozta dezakegu espaloia-aren altuerak oztopo handiagoa dakarkiola emakumeei.

HIRIGINTZA ETA ERAIKUNTZA

.....
Kargu publiko eta teknikariak prestatu, etengabe har dezaten kontuan ahalmen-urritasuna duten emakumeen egoera, hirigintza hobetu, diseinatu eta plangintza egiten dutenean.
.....

Hirigintza diseinatu eta plangintza egiterakoan, ahalmen-urritasuna duten emakumeen eta haiek biltzen dituzten elkarteetan parte-hartzea sustatu, eta horretarako behar duten prestakuntza eskaini.
.....

Eremu publikoen plangintzaren inguruko etorkizuneko araudian, ahalmen-urritasuna duten emakumeen egoera espezifikoa kontuan hartuko dela bermatu, haien laneko eta etxeko bizitza eta bizitza pertsonala uztartzea errazteko asmoz.
.....

Tokiko Agenda 21etan eta Landa Eskualde Garapenerako Programetan, genero-ikuspegia txertatzeko diseinatzen diren bitartekoetan, ahalmen-urritasunaren ikuspegia kontuan hartu.
.....

Arkitektura- eta diseinu-alorreko profesionalak trebatu, irisgarritasunean, diseinu unibertsalean eta generoan.
.....

Eguneroko kontsumoko produktuen salmenta-jarduera hirigune eta auzoetan gelditzeko ahalegina egin eta jarduera hori sustatu.
.....

Tren- edo metro-geltokietan, Scooter elektrikoak jarri mugikortasun murriztua duten pertsonen eskura, haien autonomia eta parte-hartzea bultzatzeko, eta hiriguneetan auto gutxiago ibiltzeko.
.....

Auto pribatuak ibili ezin diren lekuetan, Scooter elektrikoak alokatzeko aukera eskaini, mugikortasun murriztua duten pertsonak erabil ditzaten.
.....

Hiri-ingurunekeo ibilgailuak 24 orduz irekita egotea bermatu; matxurak konpontzeko premia-zerbitzua eta zaintza- eta disuasio-sistemak izan ditzatela.
.....

Laguntza teknikoetan I+G+B ildoak garatu eta sustatu, genero-ikuspegia kontuan hartuta. Diseinuko berrikuntzari dagokionez, eskaintza handiagoa dago elitezko kirolaren alorrean, eguneroko jarduerak egiteko laguntzetan baino (sukaldea egin, umeak eraman, erosketak, ixteko giltzei eragiteko...).

.....
Familia Plangintza Zentroetan ez da arkitektura-oztoporik izan behar, eta edozein ahalmen-urritasun motari egokitutako informazioa eskaini behar dute.

.....
Espaloiak behar bezala direnean, zorrotz bete behar da 'zero-kotako' araudia.

.....
Oinezkoentzako guneetan, sarbidea utzi mugikortasun murriztua duten pertsonentzako ibilgailuei, haientzat interesgarriak diren lekuetara joan ahal izan daitezten.

.....
Ziur sentitzen ez diren lekuak identifikatzeko prozesuetan, ahalmen-urritasuna duten emakumeen eta ordezkatzeko dituzten elkarten parte-hartzea bermatu.

.....
Ahalmen-urritasuna duten emakumeentzako arriskutsuak diren hiri-eremuak identifikatzeko azterketak egin, eta igogailu publiko gehiago egin, iritsi ezinak diren lekuetara sarbidea bermatzeko.

.....
Herritarrei arreta emateko zerbitzu guztien egoitzetako irisgarritasuna hobetzeko lanak egin. Erakunde publikoen urteroko aurrekontuan gai hori lehenetsi.

.....
Ikastetxe guztietan, beraien instalazio eta zerbitzuetan, arkitektura-oztopoak kentzeko epe bat finkatu.

.....
Kulturarako eta aisialdirako guneetan, edozein ahalmen-urritasun duten pertsonentzako eremuak normalizatu, ez daitezten bakartuta egon, eta ikusgarritasun-baldintza egokiak izan ditzaten.

.....
Legez, denbora-epe bat finkatu kulturarako eta aisialdirako gune guztiak irisgarriak izan daitezten.

.....
Erabilera publikoko eremu guztien (jabetza pribatukoak barne) irisgarritasun-prozesua azkartzeko neurriak hartu; adibidez, diru-laguntzak eta bestelako pizgarriak eskaini, arkitektura-oztopoak ezabatzeko.

.....
Osasun-, kultura-, hezkuntza-, aisialdi-, merkataritza-guneak eta abarrak bizitegi-guneetatik gertu egongo direla ziurtatu, eta ahalmen-urritasuna duten emakumeen ahalduz eta autonomia suspertzeko bultzatu.

.....
Oinezkoentzako guneetako zoladurak irristaden aurkako segurtasun-tasa bete dezaten bermatu.

.....
Espaloietan eta oinezkoentzako guneetan, eserleku publikoak eta bermatzeko eta atseden hartzeko lekuak ziurtatu (hobeto estalpean eta altuera egokian badaude, gero berriz zutitzea errazteko moduan).

.....
Komun publiko irisgarriak prestatu, ahalmen-urritasun guztietarako egokituak eta sexuen arabera bereizita. Umeak aldatzeko leku bat izan dezatela, eta segurtasun- eta higiene-egoera egokian egon daitezela.

.....
Laguntza pertsonalaren eginkizunen barruan, lehen hezkuntzako ikastetxeetan dauden adingabeak sustatzeko eta gaitzeko neurriak hartu ikastetxean bertan, hiri-mugikortasunean eta garraioan ahalik eta autonomia handiena izan dezaten.

Ahalmen-urritasuna duten emakumeek hiri-eremua nola erabiltzen duten jakiteko azterketa eta diagnostikoak egin. Emakumeek eurek hartu behar dute horretan parte, eta hirigintza-alorrean gaitu beharko dira horretarako.

Ahalmen-urritasuna duten emakumeek beren laneko eta etxeko bizitza eta bizitza pertsonala uzartzeko, hiri-diseinuak inposatzen dizkien zailtasunei buruzko azterketa bat egin.

Iraunkortasunak izan behar du gaur egungo hirigintzaren helburu nagusia; hau da, efizientzia ekonomikoko, berdintasuneko eta gizarte-justiziako helburuen arteko oreka, eta ingurumenaren zaintza eta babesa.

ETXEBIZITZA

Eraikuntza berrietako etxebizitzetan, gela guztiek (eta ez soilik komunek), egokituta egon behar dute, ahalmen-urritasuna duten emakumeek euren bizitza era aktiboan egin dezaten, hirugarren pertsonen laguntzarik gabe, halakorik behar ez denean.

Etxebizitza horietan, banaketa-, diseinu- eta domotika-irizpideak hartu behar dira kontuan, bakarrik bizi diren ahalmen urriko emakumeen bizitza autonomia sustatzeko, eta laguntza pertsonalak eta erakundeen laguntzak prebenitzeko edo atzeratzeko.

Premia duten ahalmen urriko pertsonen laguntza ekonomikoak eskaini eta etxebizitzetan egokitzapenak egin, horri esker, euren potentzial osoa garatu eta autonomia mugatua izan ez dezaten.

Eraikuntzaren Kode Teknikoa moldatu ahalmen-urritasuna duten emakumeen premiei egokitutako etxebizitzetan. Neurri horiek ahalmen-urritasuna duten emakumeen elkarrekin adostu beharko dira, emakume horien potentzialtasun osoa garatu eta autonomia mugatua izan ez dezaten.

Helburua: bizitza osorako etxeak diseinatzea, adinaren ondorioz gure funtzionaltasuna aldatu arren.

GARRAIO PUBLIKOA

Ahalmen-urritasuna duten emakumeak sentsibilizatu, barnera dezaten zer garrantzitsua den beraien parte-hartzea garraio publikoa planifikatzeko prozesuetan.

Garraio publikoaren plangintzan, generoaren eta ahalmen-urritasunaren ikuspegia txertatu. Zentzu horretan:

- Autobus publiko guztiek egokituta egon behar dute, eta ondo dabilzan arropak eta gerrikoak izan behar dituzte. Gorpil-aulkiak sartzeko leku nahikoa izan behar dutela aiantzi gabe.

- Berinapeek irisgarriak izan behar dute, eta leku nahikoa izan behar dute gurpil-aulkian dauden pertsonak sartzeko.
- Beste ordezeko garraio publikorik ez dagoen ibilbideetan, autobus lineen maiztasuna areagotu egin behar da.
- Metroko bagoiak egokitu, nasatik bagoira dagoen tartea eta altuera kentzeko, mugikortasun murriztua duten pertsonak bakarrik bidaiatzeko moduan, hirugarren pertsonen laguntzarik behar izan gabe.
- Aldirietako trenetako bagoiak egokitu, adibidez, arrapala ateragarria jarritz, mugikortasun murriztua duten pertsonak bidaiatzeko moduan.
- Autobusetan, egoki dabilzan arrapalak ez ezik, makuluekin dabilzan pertsonak heltzeko euskarriak ere jarri.
- Autobus-geltokiak hobetu, autobusak espaloitik gertu aparkatu eta arrapala arriskurik gabe zabal dezaten.
- Erreserbatutako aparkalekuetan aparkatzea galarazten duten oztopoak kendu (espaloiak, espaloiko ertzak, baimendu gabeko autoak, edukiontziak...), mugikortasun murriztua duten emakumeek auto pribatua gehiago erabili eta haien independentzia sustatzeko.

.....
Landa eremuetan bizi diren ahalmen urriko emakumeek garraio publikoaren alorrean dituzten premiak asetzeko ahaleginak areagotu.

.....
Ahalmen-urritasuna duten pertsonen laguntzaileei garraio publikoaren tarifak murrizteko aukera aztertu, ahalmen-urritasuna duten pertsonen autonomia pertsonala sustatzeko.

.....
Garraio publikoaren planifikazioan, ahalmen-urritasuna duten emakumeen elkarteetan parte-hartzea sustatu; parte-hartze horri esker jakingo da zer oztopo eta premia dagoen, eta zer iradokizun duten ibilbideen, ordutegien eta ibilgailuen ezaugarrien inguruan.

.....
Administrazio Zentrala sentsibilizatu, estatuaren jabetzako tren-zerbitzuetan irisgarritasunak eta arkitektura-oztopoak kentzeak duen garrantziaren inguruan.

.....
Garraio-enpresetako langileen artean kontzientziazio-kanpainak egin, mugikortasun murriztua edo beste mota bateko ahalmen-urritasuna duten pertsonen premien inguruan, eta trebakuntza-jarduerak antolatu, autobusetan dauden bitarteko teknikoaren erabileraren inguruan.


.....
Garraio publikoko sozietateetako arduradunak trebatu, ahalmen-urritasuna duten emakumeen egoera eta premia espezifikoen inguruan.

.....
Edozein ahalmen-urritasun duten emakumeek garraio publikoan dituzten premien inguruko azterketa eta diagnostikoak egin. Prozesu horretan parte-hartze aktiboa izan behar dute ahalmen-urritasuna duten emakumeek eta haiek ordezkatzeko dituzten elkarteek.

.....
Mugikortasunari eta garraio publikoaren erabilerari buruzko azterketa guztietan, ahalmen-urritasunaren aldagaia ezarri, sexuaren arabera bereizita.

.....
Erabileraren mapa bat egin, ahalmen-urritasuna duten emakumeen eguneroko joan-etorrietan, erabilera publikoko eraikinetara iristeko ematen duten denbora bistaratzeko, egunero zenbat joan-etorri egiten dituzten zenbatzeko, etab. Mapa horren emaitzak eta beste sektore batzuen mapak (adibidez, ahalmen-urritasuna duten gizonak, edota gainerako emakumeak) alderatu.
.....

Garraio publikoaren alorrean, etxeko eta laneko bizitza eta bizitza pertsonala uztartzeko sustatzen diren neurrietan, ahalmen-urritasuna duten emakumeen eskaerak txertatuko direla bermatu.



3.3.2. 'Zerbitzuetako arretaren, komunikazioaren eta Gizarte-irudiaren egokitzapena' Zeharkako Ardatzerako gomendioak

3.3.2.1. Aniztasun funtzionala duten emakumeen gizarte-egoera, 'Zerbitzuetako Arretaren, Komunikazioaren eta Gizarte-irudiaren egokitzapena' Zeharkako Ardatzean.

Desgaitasunaren Gizarte Eredua da funtsezko bigarren faktorea, bazterketa- eta diskriminazio-egoerak sortzeko unean: gizarte-jarrerak, alegia. Horregatik, esparru hori Zeharkako Ardatzat hartu behar da, garatuko den edozein lan-esparrutan.

Zerbitzuetako arretaren egokitzapena

Hona hemen emakumeek adierazitako iritzi batzuk:

"...gainera, zerbitzua eskaintzen duen pertsona aldatzen dute, pentsatu gabe zerbitzua jasotzen duen pertsonarentzat gogorra dela, azken batean baren mende zaudelako zeure garbitasunerako, eta intimitatearen inbasioa ere gertatzen delako (garbitzeko biluzarazi egiten zaitu, garbitu egiten zaitu...). Haiek askotan esaten dizute: "ez arduratu, ikusten obituta nago", baina zuk ez daukazu zertan obitu aldian aldiro beste pertsona batek egitera. Pertsona aldatzen dutenean aurrez esaten dizute edo ez; nola jakinarazten dizuten ere badago, edota egun batzuetan etortzen ez bada... Eta oinarrizko premiez ari gara".

"Abalmen-urritasuna duten pertsona ia guztiek, eta areago abozko disfuntzioaren bat badute, pentsatzen dute herritarrei arreta eskaintzeko dagoen pertsona ez zaiela inoiz zuzentzen beraiei, nabiz eta haiek izan interesdunak. Jarrera hori zerbitzu pertsonaletan ere gertatzen da, bala nola osasun-zerbitzuetan (ginekologian ere bai), gizarte-arretako zerbitzuetan, aholkularitza juridikoan... Emakume batzuek ez dute pertsonalki ezagutzen etxeko medikua edo beren espedienteaz arduratzen den gizarte-langilea".

"... Gainera, emakume horientzat zailagoa da laguntzak eskuratzea. Izan ere, betidanik familiaren aldetik jaso duten gainbabesaren ondorioz, zailtasun handiagoa dute informaziobideetara iristeko; adierazteko arazo gehiago dutela pentsatzen dute, etab. Horregatik, garrantzitsua da erakundeetatik eta bertako langileen aldetik jasotzen duten tratua: urduri zaudenean lasaitzen bazaitu, beharbada hobeto adieraziko duzu, edo egoki azalduko duzu arazoa. Abalegin eta sakrifizio handi-bandia egin behar da informazio bila leibatilaz leibatila ibiltzeko. Askotan, laguntzeko beste pertsona bat behar izaten duzu. Beraz, ondo pentsatu behar duzu, eta askotan burutik pasatzen zaizu: "eta hau guztia... zertarako?". Sarritan, erakundeekin izandako tratua rengatik baserre itzultzen zara etxera, ez soilik ez dizutelako irtenbiderik eskaini; gainera, badirudi eskean ari garela etengabe. Eta gizarte-zerbitzuetara irtenbide bila joaten gara, prestazio eta zerbitzuen letra txikia irakurtzen lagun dezaten. Hedabideek izenburuak baino ez dituzte ematen, baina gero xehetasunak ezagutu beharra dago. Horregatik guztiagatik, uste hedatua da profesional gutxi batzuek baino ez dakitela informatzen abalmen urriko pertsonak tratatzen".

“Zerbitzuen arretan, abozko disfuntzioa duten emakumeen eskubideak erabat alboratuta daude. Instantzia judizialean izan ezik, ez dago erakunde publikorik, egunerokotasunean pertsona gor batekin nola jokatu aurreikusita duenik. Pertsona gorrek eraman behar dute itzultzaile-lana egingo duen pertsona eta, horrek, askotan, intimitaterako eskubidea, bere interesen inguruan askatasunez hitz egiteko eskubidea, informazioa eta laguntza jasotzeko eskubidea, eta erreklamazioak eta salaketak jartzeko eskubidea urratzen ditu; batzuetan, bere segurtasuna ere arriskuan jartzen du”.

Gizarte-irudiaren eta Komunikazioaren egokitzapena

2003an CERMIK egindako ikerketa baten arabera, ahalmen-urritasuna duten emakumeen % 50ek pentsatzen du enpresaren aldetik ahalmen-urritasuna duten pertsonak kontratatzeko orduan aurreiritziak badaude, aurreiritzi horiek are larriagoak direla emakumeen kasuan. Izan ere, irudia bezalako aldagaiek ahalmen-urritasuna duten gizonei baino oztopo handiagoa dakarkie emakumeei.

Gure gizartean, neska nerabeek gorputz-irudiaren gainean jasaten duten presioak autoestimuan eta eskola-errendimenduan eragin diezaieke. Halatan, ahalmen-urritasuna duten nerabeek, sarritan, antsietate-, elikadura-, bakardade-, etsipen- eta tristezia-asaldurak izaten dituzte, bai eta beren buruaren arbuioa ere.

Ahalmen-urritasuna duten Emakumeentzako I. Ekintza Plan Integralak dioenez, hedabideek funtsezko eginkizuna dute ahalmen-urritasuna duten emakumei buruzko irudiak, estereotipoak eta aurreiritziak transmititzean; beraz, kolektibo horri buruzko agerpen zuzenago bat izan daiteke urrats garrantzitsua, desberdintasun-egoera horren aurka jarduteko.

Emakumei buruzko dokumentazio-zentroetan eta liburutegietan, argi eta garbi ikusten da ez dagoela bibliografia nahikorik emakumeen eta ahalmen-urritasunaren inguruan. Hedabideetan emakumeen presentzia areagotzea funtsezkoa da ahalmen-urritasunaren esparruan. Emakumeak hedabideetan gutxi agertzen badira, eta batik bat esparru zehatz batzuetan baino agertzen ez badira, fenomeno hori are nabarmenagoa da ahalmen-urritasuna duten emakumeen kasuan: gutxitan agertzen dira eta, agertzen direnean, askotan, estereotipoei edo topikoei lotuta agertzen dira. Ahalmen-urritasuna duten Emakumeentzako I. Ekintza Plan Integralaren arabera, hedabideek gutxitan aipatzen dituzte ahalmen-urritasuna duten emakumeak, eta, aipatzen dituztenean, desitxuratuta edota kutsu sentsazionalistarekin egiten dute.

Gure ustez, hedabideek funtsezko eginkizuna dute ahalmen-urritasuna duten emakumei buruzko irudiak, estereotipoak eta aurreiritziak transmititzean; beraz, kolektibo horri buruzko agerpen zuzenago bat izan daiteke urrats garrantzitsua, desberdintasun-egoera horren aurka jarduteko.

Aniztasun funtzionalarekiko aurreiritziak eta ezezagutza medio, inoiz enplegu-zerbitzuek eurek baztertu dituzte aniztasun funtzionala duten emakumeak, enplegu horretarako prestakuntza eta trebakuntza nahikoa izan arren.

Erakunde mailan txertatutako diskriminazio hori egoteko arrazoia zera da: aniztasun funtzionala duten pertsonengan pentsatzen denean, ez direla inoiz hartzen ondare edo zerbitzuen erabiltzaile gisa, edo edozein jarduera edo deialdi publikoren protagonista gisa. Gizarte-irudikapen horrek areago bazterten ditu emakumeak..

3.3.2.2. Helburu edo Ekintzetarako proposamena 'Zerbitzuetako Arretaren eta gizarte-irudiaren egokitzapena' Zeharkako Ardatzean

ZERBITZUETAKO ARRETAREN EGOKITZAPENA

Ahalmen-urritasuna duen pertsona haren adina eta sexua duen beste edozein pertsona baten pare tratatu behar da; beraren zailtasun eta premien ondorioz egin behar diren egokitzapenak baino ez ditu behar.

Ahalmen-urritasuna duen pertsonarekin zuzen komunikatzeko gaitasuna garatu, bitarteko pertsonarik inoiz erabili gabe, eta pena edo gainbabesa adierazten duten adierazpen edo jarrerarik izan gabe.

Ahalmen-urritasuna eta mendekotasuna bereizi behar ditugu. Autonomia pertsonalerako, erabaki, bizi eta mugitzeko askatasunerako, eta ondareak, zerbitzuak eta informazioa jasotzeko eskuragarritasun osorako eskubidea barneratu behar ditugu.

Ahalmen-urritasuna duten pertsonen duintasuna eta intimitatea errespetatu; horretarako, tratu txarrak, arreta-gabezia, beheramendua, bazterkeria, utzikeria edo jazarpena antzemateko neurriak hartu behar dira.

Nahitaezkoa da administrazioko zerbitzu guztiak protokoloak izatea entzuteko urritasuna eta ahozko urritasuna duten pertsonen arreta emateko. Zerbitzu horietan arreta emateko dauden langileek une oro jakin behar dute nola jokatu arintasunez, laguntza eta arreta pertsonalizaturako eskubidea bermatzeko, beti ere intimitaterako eskubidea eta datuen babesa errespetatuta.

Edozein zerbitzu- eta prestazio-zerrendak argi eta garbi argitaratuta eta eskuragarria izan behar du. Bertan, aukera guztiak, egoera posible guztiak, bateragarritasunak eta bateraezintasunak, eskubide unibertsalak, ordainketa partekatua -egotekotan-, eta ordaindu beharreko tasak kalkulatzeko moduak agertu behar dira. Gainera, zerbitzuak eskuratzeko eta erabiltzeko araudiak argitaratu behar dira, eta informazio horrek Internet bidez eta braillean eskuratzeko moduan egon behar du; horrez gain, telefono bidezko informazio-zerbitzua eskaini behar da, haien inguruko galderei erantzuteko.

Praktika klinikoko gidek, eta mediku eta osasun-langileen eguneroko jardunak generoaren eta ahalmen-urritasunaren ikuspegia barneratu behar dute. Horretarako, metodologia egokia ezartzeko ikerketa bat egin beharko da.

Beharrezkotzat jotzen den esparru guztietan, praktika klinikoko gidek barnean hartu behar dute, era sistematikoan, ahalmen-urritasuna duten emakumeen premia espezifikoei buruzko gogoetak.

.....
Praktika klinikoko gidek barnean hartu behar dituzte ahalmen-urritasuna duten emakumeei eman beharreko tratua inguruko edukiak, beste edozein pertsonaren pareko tratua eta begirama jaso dezaten.
.....

Zaintzaile lana betetzen duten eta arreta zuzena eskaintzen duten langileek trebakuntza berezia jaso eta laguntza teknikoak izan behar dituzte ahalmen-urritasuna duten emakumeak lekualdatzean, intimitaterako eta duintasunerako eskubidea ahalik eta gehien errespetatu dadin.
.....

Arretako eta laguntzako langileei buruz aurretik aipaturiko ekintzak ildo beretik ezarri behar dira harrera-egoitza, eguneko zentro edo zaintzapeko etxebizitzetan (publikoetan nahiz pribatuetan), bai eta etxeko zaintza eta laguntza pertsonala eskaintzen duten erakundeetan ere.
.....

Laguntza pertsonala garatzeko jokabide egokien gida, harrera-egoitzetan nahiz etxean.
.....

Arretarik eza edo murrizta, kalitate txarra eta tratua txarrak antzemateko protokoloak.
.....

Polizien eta epaileen jardueran, aniztasun funtzionala duten emakumeekiko jokabide egokien gida.
.....

Gerta daitezkeen egoeretan eta aniztasun funtzionalaren arabera, arreta eskaintzeko protokoloak.
.....

Larrialdietan, ebakuazioetan eta su-hiltzaileen lanean, aniztasun funtzionala duten emakumeekiko jokabide egokien gida.
.....

Gerta daitezkeen egoeretan eta aniztasun funtzionalaren arabera, arreta eskaintzeko protokoloak.
.....

Administrazioek prest egon behar dute premiazko babesa eskaintzeko tratua txarrak jasan dituzten ahalmen urriko emakumeei: beste ostatu bat bilatzeko premia, mugikortasun-premia, laguntza pertsonala, baliabide ekonomikoak...
.....

Genero-indarkeria jasan duten emakumeekin lan egiten duten pertsona guztiak (gizarte-zerbitzuetako langileak, poliziak, epaileak, abokatuak, auzitegi-medikuak...) trebatu, ahalmen-urritasuna duten emakumeen aurkako indarkeriak dituen berezitasunen gainean.
.....

Etxeko medikuei nahiz herritarrengandik hurbilen dauden osasun-langileei trebakuntza eta jarraibideak eman, ahalmen-urritasuna duten emakumeek jasandako indarkeriaren zantzuak antzemateko.
.....

Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zerbitzuetako langileek berariazko trebakuntza jaso behar dute, indarkeriaren aurrean ahalmen-urritasuna duten emakumeek duten egoera eta premien inguruan.
.....

Lehen mailako Gizarte Zerbitzuetako langile teknikoek trebakuntza jaso behar dute, ahalmen-urritasuna duten emakumeen egoera eta premia berezien inguruan.
.....

Etxeko zaintzan ari diren langileek ahalmen-urritasuna duten emakumeen premien inguruko trebakuntza jaso behar dute, arreta, tratua eta informazio egokia eskaini diezazkieten.
.....

Ikastetxeetako irakasleak eta irakasle ez diren langileak trebatu, ahalmen-urritasun bakoitzak dakarren egoeren inguruan. Autonomia pertsonala eta bizitza independentea bultzatu eta sustatzeari buruzko trebakuntza, bai eta generoaren eta ahalmen-urritasunaren inguruan dauden laguntza teknikoei buruz ere.

Ikastetxeek altzari eta tresna eskuragarriak izan behar dituzte, autonomia gorena bermatzeko.

Trebakuntza-, kultura- eta abarreko ikastaroak edozein aniztasun funtzionali egokituta egon behar dute eta, hala ez bada, argi eta garbi adierazi.

Edozein jarduerak, zerbitzuek, deialdik... neurri positibo gisa hartu behar du emakume guztiarentzako gonbitea eta eskuragarritasuna. Dela literalki, dela irudien bidez, dela antzemateko beste aukeren bidez, erabilitako hedabideen arabera.

Laneko informazio eta orientazio zerbitzuetan ari diren langileak generoan eta ahalmen-urritasunean trebatu, edozein ahalmen-urritasun duten emakumeen berariazko premiak ezagutzeko.

Ahalmen-urritasuna duten emakumeek informazio egokia eta ulergarria jaso behar dute, euren osasun-egoerari buruz, hartzen dituzten medikamenduei buruz, eta tratamenduei eta haien ondorioei buruz.

Ahalmen-urritasuna duten emakumeei eurei egokitutako metodo kontrazeptiboei buruzko informazioa eskaini.

Sexualitateari eta antisorgailuei buruzko informazioak formatu eskuragarrietan egon behar du, edozein ahalmen-urritasun duten emakumeek eskuratzeko moduan.

Haurdunaldiari, erditzerako prestaketari eta haurren zainketari buruzko informazio guztiak eskuragarri egon behar du, edozein ahalmen-urritasun duten emakumeek eskuratzeko moduan.

Ahalmen urritasuna duten emakume haurdunek informazio objektiboa jaso behar dute, aurreiritzirik gabe, jasotzen duten medikamenduek fetuarengan izango duen ondorioei buruz eta ordezkari aukerei buruz.

Neurri zuzentzaileak antzeman eta jasotzeko, zerbitzu eskuragarriak, hurbilak eta eraginkorrak ezarri, iradokizunak jaso eta erreklamazioei arreta eskaintzeko.

GIZARTE IRUDIAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN EGOKITZAPENA

Ahalmen-urritasuna duten emakumeen jarduera-tasa urria eragiten duten kultura- eta familia-faktoreak aldatzeko ekimenak abian jarri.

Ikerketa bat egin, ahalmen-urritasuna duten emakumeek zaintzaile gisa egiten duten lanari buruz eta egoera horrek laneratzeko aukeran eta parte-hartze soziopolitikoan zer eragin duen jakiteko.

Estatistiketan, ahalmen-urritasuna duten emakumeek etxean eta zaintzan egiten duten lanaren balorazio ekonomikoa egin, sistema ekonomiko-sozialari egiten dioten ekarpena bistaratzeko asmoz.

Ahalmen-urritasuna duten neska eta emakumeak bistaratzeko ereduak barnean hartu behar ditu hezkuntza-materialak.

Haurrei eta nerabeei zuzendutako Osasunerako Hezkuntza Programek, gorputzaren irudia eta edertasun-irizpideak jasotzen dituztenek, aniztasunari eta ahalmen-urritasunari buruzko edukiak jaso behar dituzte, ahalmen-urritasuna duten emakumeen inguruan dauden topikoak eta estereotipoak aldarazteko.

Ahalmen-urritasuna duten neska eta gazteen artean elikadura-jokabidean dagoen asalduren eraginari buruzko azterketa egin, orain arteko azterketek erakusten baitute kolektibo horrek obesitaterako arrisku handiago duela.

Gizartean ahalmen-urritasuna duten emakumeen aurkako indarkeriaz dauden estereotipo eta aurreiritzei buruzko ikerketa bat egin.

Estatistiketan, ahalmen-urritasuna duten emakumeek etxean eta zaintzan egiten duten lanaren balorazio ekonomikoa egin behar da, sistema ekonomiko-sozialari egiten dioten ekarpena bistaratzeko asmoz.

Denboraren erabilerari buruzko inkestetan eta mapetan, ahalmen-urritasuna duten emakumearen aldagaia jarri behar da, emakume horiek etxeko eta zaintzako lanean, bai eta eguneroko jardunetan ere, zer egoeratan dauden ikusteko.

Genero-indarkeriaren aurkako trebakuntza-programa guztietan eta hiritarrak sentsibilizatzeko kanpaina guztietan, ahalmen-urritasunaren aldagaia ezarri.

Gizarte-kontzientziatorako kanpainak egin ahalmen-urritasuna duten emakumeek jasaten duten genero-indarkeriaren tasa altuaren inguruan, eta egoera horiek salatzeko asmoz.

Hedabideek, batez ere jabetza publikokoek, saioak diseinatzen dituztenean, ahalmen-urritasuna duten emakumeen presentzia normalizatu hartu behar duten kontuan, saio guztietan.

Publizitate-kanpainak egin, gizarteari ahalmen-urritasuna duten emakumeen irudi erreala, estereotiporik gabea erakusteko.

Ahalmen-urritasuna duten emakumeen irudi normaldua erakutsiko duten eremuak (filmak, iragarkiak, dokumentalak...) sustatu behar dira, eta emakume

horiek hainbat eginkizun betetzen ager daitezela: langileak, zaintzaileak, etxeko amak, bizitza sexual eta afektibo aktiboa duten pertsonak...

Jabetza publikoko hedabideek eremuak gorde behar dituzte, ahalmen-urritasuna duten emakumeak kirola egiten agertzeko.

Informazio estatistikoak sexuen arabera banatutako ahalmen-urritasunaren aldagaia jaso behar du.

Estatistiketan, ahalmen-urritasuna duten emakumeek etxean eta zaintzan egiten duten lanaren balorazio ekonomikoa egin behar da, sistema ekonomiko-sozialari egiten dioten ekarpena bistartzeko asmoz.

Denboraren erabilerari buruzko inkestek eta mapek, ahalmen-urritasuna duen emakumearen aldagaia jaso behar dute.

Generoan eta ahalmen-urritasunean prestatutako profesionalak sartu behar dira hedabideetako aditu-taldeetan..

Hedabideetako langile eta zuzendarientzako prestakuntza-plangintzetan, genero eta ahalmen-urritasunari buruzko edukiak sartu, eta bereziki honako hauek azpimarratzeko:

- Zein diren ahalmen-urritasuna duten emakumeei lotuta gehien erabiltzen diren topiko eta estereotipoak, eta nola egin aurre.
- Zein den terminologia egokiena ahalmen-urritasuna duten emakumeei buruz aritzeko, hitz iraingarriak baztertzearren.
- Publizitateak nola tratatzen dituen ahalmen-urritasuna duten emakumeak, eta nola normaliza daitekeen haien publizitate-irudia..

Publizitate Sexistaren Behatokiek ahalmen-urritasunari lotutako azterketa-irizpideak hartu behar dituzte kontuan.

Genero-ikuspegiari eta ahalmen-urritasunari buruzko kredituak erantsi Kazetaritzako eta Publizitateko unibertsitate-ikasketetan.

Ahalmen-urritasuna duten emakumeen jarduera-tasari buruzko datuak zabaldu, desberdintasun-egoera bistaratu ahal izateko.

Osasun-sisteman egiten diren estatistika guztiek bereizita aurkeztu behar dituzte ahalmen-urritasunaren, ahalmen-urritasun motaren eta sexuaren aldagaiak.

Gizartean ahalmen-urritasuna duten emakumeen jarduera-tasari buruzko eta haien ordainsariari buruzko datuak zabaldu behar dira, kolektibo horrek enpleguari lotuta bizi duen egoera bistartzeko, eta iritzi publikoa konturatzeko zer desberdintasun-egoeran bizi den.

Asaldura mental larria duten emakumeek salatu egiten dute hedabideetan haiei buruz ematen den irudia, iraingarria eta estereotipatua delakoan, oso kasu gutxitan izan ezik.

Hedabideek ekintzak biderkatu behar dituzte, emakume gorrek eskuragarritasuna areagotu eta berdintasunerako ekintza positiboko saio eta jarduerak zabaltzeko. Horretarako, emakume guztiek parte hartzeko komunikazio-sistema egokiz hornitu behar dute..

3.3.2.3. Protocolos de Buenas Prácticas en la Atención y en la Comunicación

JOKABIDE EGOKI OROKORRAK ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTEN EMAKUMEEN ARRETAN

Zerbitzuak ahalmen-urritasuna duten emakumeen premiei egokitzeko premisa batzuk

- Baliabide teknikoak aldatu, ahalmen-urritasuna duten emakumeen premiei egokitzeko.
- Langileak trebatu eta baliabide egokiak aurreikusi, emakume itsu edo gorrekin, hitz egiteko arazoa dutenekin edo ikasteko eta ulertzeko arazoak dituztenekin komunikazio eraginkorra izateko, emakume horiek zer gertatzen den uler dezaten, galderak egin eta erantzunak jaso ditzaten, eta errespetuzko azalpenak jaso ditzaten.
- Ahalmen-urritasuna duten emakumeak sartu langile-taldean.
- Zure jarduera-eremuari buruzko saioak antolatu eta emakume guztiei deitu, dei berezia ginez ahalmen-urritasuna duten emakumeei.
- Ahalmen-urritasuna duten emakumeentzako orientazio-saioak eskaini, aldiari aldiro.
- Ahalmen-urritasuna duten emakumeei erraztasunak eskaini, zure zerbitzuaren barruan egin beharreko kontsulta guztiak egun berean egin ahal izan ditzaten.
- Zure zerbitzua nola erabili behar den argi eta erraz azaldu.
- Formatu eskuragarrietan eskaini zure zerbitzuari buruzko informazioa.
- Zure zerbitzuko langileei aholkuak eman, hizkera erraz eta argia eta irudiak erabil ditzaten, ulertzeko edo ikasteko arazoak dituzten emakumeei azalpenak eman behar dizkienean.

Zure zerbitzuko langileen arreta zuzena

- Ahalmen-urritasuna duen emakume batek kontsultaren bat egiten duenean, batez ere gogoan izan beste edozein emakumeren parekoa dela. Lehenengo, galdetu zertarako jo duen zuregana, eta nola lagun diezaiokezun. Ez pentsa beti kontsulta ahalmen-urritasunari lotuta egongo denik.
- Errespetatu haren iritziak. Animatu galderak egitera. Garrantzitsua da galdetzea ahalmen-urritasuna duten emakumeei, nola gustatuko litzaiekeen arreta eskaintzea.

Aniztasun funtzional bakoitzaren araberako kontseiluak

Ikusteko arazoa duen emakumea _____

- Ukitu aurretik, esaiozu nor zaren. Identifikatu zaitez beti, ikusteko arazoa duen emakume bati zuzentzen zaren guztietan.
- Gidatzen duzuenean, ez heldu besotik edo eskutik. Emakume itsu askok eskuak erabiltzen dituzte gauzak “ikusteko”. Hobeto besoa eskaintzen badiozu, eta berak oratzea zuri, edo haren eskua zure esku gainean jartzea.
- Azaliozu non dauden gauzak eta oztopoak, eta bera orientatuko da; hobeto ibiliko da bakarrik eta erosoago sentituko da.
- Ez suposatu ezin duenik ezer ikusi.
- Ez oihurik egin eta ez puztu zure hitz egiteko modua.
- Makila erabiltzen badu, ez kendu.
- Esaiozu agur, joan edo urrundu aurretik. Ez utzi bakarrik, ezer esan gabe.

Entzuteko arazoa duen emakumea _____

- Ez badago, ukitu sorbaldan, leunki. Ez hitz egin berari beste aldera begira dagoenean.
- Ez oihurik egin eta ez puztu zure hitz egiteko modua.
- Zuzenean begiratu aurpegira, eta ez estali zure ahoa.
- Galdetu zein den hitz egiteko modurik onena.
- Zeinuen hizkuntza ezagutzen ez baduzu, astiro eta argi hitz egin, aurpegia ondo argiztatuta duzula.
- Aurreikusi itzultzaile profesional bat behar izan dezakezula, elkarrizketak hala eskatzen badu.
- Hitz egiten duzunean, begiratu beti berari eta ez interpretari; berdin jokatu berak hitz egiten duenean. Jarraitu berari begira, nahiz eta interpretari entzuten egon. Itzultzailea laguntzarako dago, baina zure arretak pertsona gorrarentzat izan behar du.
- Egiaztatu beti esan nahi duzuna ulertu duela.
- Zailtasun handia baduzu, idatziz komunikatu zaitezke.

Mugitzeko edo gorputzeko mugimenduak kontrolatzeko zailtasuna duen emakumea _____

- Astiro edo makuluz dabilen emakume batekin zaudenean, egokitu zure abiada harenari.
- Kontu egin bultzadekin.
- Lagundu egiozu objektuak edo paketeak eraman behar baditu, baina galdetu aurretik.

- Ez pentsa, besterik gabe, urritasun intelektual edo mentalik duenik.
- Ahal baduzu, jartzen zarenean kontu egin aurrez aurre egoteko.
- Ez mugitu makuluak, makilak, ibiltzeko tresna edo gurpil-aulkia, aurretik baimena eskatu gabe. Kontu egin gero gauza guztiak itzultzeko.
- Gurpil-aulkia erabiltzen badu, ez ukitu eta ez bermatu bertan, baimena eskatu gabe.
- Gurpil-aulkia nola erabili ez badakizu, galdetu berari.
- Hitz egin zuzenean berari, eta ez berarekin batera datorren pertsonari.

Hitz egiteko zailtasuna duen emakumea _____

- Nahiz eta astiro edo ulertzeko zail hitz egin, horrek ez du esan nahi ikasteko edo ulertzeko zailtasuna duenik.
- Eskatu errepikatzeko ulertu ez duzun guztia.
- Galdera errazak egin, “bai” edo “ez” erantzuteko modukoak.
- Emaiozu behar duen denbora guztia arazoa azaltzeko. Izan pazientzia; zeuk ere errazago ulertuko diozu.
- Ezin badiozu ulertu, ez egin plantarik, ulertuko bazenu bezala. Ulertzen ahalegindu, jakinez erritmoa eta ahoskera desberdinak izango direla.
- Zuk zeuk, normaltasunez hitz egin.

Ikasteko edo ulertzeko arazoak dituen emakumea _____

- Erabili hitz errazak eta esaldi laburrak. Izan zaitez lasaia ulertzeko zailtasunak dituzten emakumeekin.
- Abegikorra izan, eta pazientzia eduki. Ez tratatu umea balitz bezala.
- Esaiozu gauza bakarra aldi berean eta, beharrezkoa bada, errepikatu.
- Beharbada, denbora gehiago beharko duzu gauzak azaltzeko. Gero, ez galdetu soilik ulertu ote duen; esaiozu errepikatzeko azaldu diozuna.
- Erantzun beraren galderei, ulertu duela ziurtatzeko.
- Behar denean baino ez lagundu, eta saiatu gainerako jardueretan bera bakarrik konpon dadin.
- Erraztu beste pertsona batzuekin duen harremana, eta jarduera guztietan parte hartzea.
- Saihestu indarkeria sor lezaketen egoerak, hala nola eztabaidak edo ahots-tonua altxatzea.

Beste aniztasun funtzional batzuk dituen emakumea _____

Beste ahalmen-urritasun batzuk daude, eta horietako batzuk zailak dira antzematen. Emakume horien kasuan, gainerakoen kasuan bezala, nola tratatzea nahi dugun galdetu behar diegu.


AHALMEN-URRITASUNARI BURUZKO ESTILO LIBURUA HEDABIDEETAKO LANGILEENTZAT

Iturria: Ahalmen-urritasunei buruzko Errege Patronatua, 2006.

Ahalmen-urritasuna duten pertsonak hedabideetan erabat txertatzea errazten duten neurriak.

- Utzi albo batera hedabideetan erabili izan ohi den ikuspegi karitatibo edo biktimista, eta zentratu ahalmen-urritasuna duten pertsonak herritar oso gisa dituzten arazoak gainditzeko moduetan (arkitektura-oztopoak, enplegua eta etxebizitza eskuratzeko zailtasunak, osasun-arreta, ingurune eskuragarria sustatzea, etab.).
- Ahalmen-urritasuna duten pertsonen ahotsa eman, herritar independente eta euren buruen jabe gisa. Haien “ikusezintasuna” amaitzea da lehen urratsa, dagokien eremua berreskuratzeko prozesuan. “Ezer ez guri buruz, gu gabe”. Lema hori gogoan izan behar dugu iritzi publikoari edozein informazio eman aurretik.
- Saihestu hizkera diskriminatzailea eta iraintzailea, ahalmen-urritasuna pertsona izaeraren aurretik jarriko duena. Arreta berezia behar da ahalmen-urritasuna duten pertsonak definitzeko hitzak aukeratzen direnean, hizkerak errealitateari buruzko iritzia baldintzatzen baitu. Adjektibo substantibatuak, hala nola, ezgaitua, ezgaitasuna edo ezindua, saihestu egin behar dira, “ez gai” edo “gaixotasun” estereotipoak gainditzeko.
- Ahalmen-urritasuna duten pertsonen irudi aktiboa eskaini. Ahalmen-urritasuna duten pertsonak laguntza-jasotzaile hutsak direlako irudiak ez du osorik islatzen errealitatea, pasibotasuna eta laguntza ez baitira erabat hedatutako ereduak. Irudi oker horrek bazterkeria sustatzen du.
- Ahalmen-urritasuna duten pertsonak hiritar guztien artean kokatu era guztietako informazioetan, eta ez soilik ahalmen-urritasuna gai nagusia den informazioetan.
- Ahalmen-urritasuna duten pertsonak erabateko herritar gisa, eskubide guztiak dituzten herritar gisa agerrarazi, haien gaitasuna azpimarratu eta ikuspegi normalizatua sustatu.
- Informazioa ematean, testuingurua kontuan hartu. Testuingurua eskainiz, ikus-entzuleek hobeto ulertuko dute egoera, eta ezaguera handiago hurbilduko dira ahalmen-urritasunaren mundura.

- Ahalmen-urritasunaren gaia neurrian aipatu, ikuspegi positibotik eta normaltasunetik, eta lehenetsi gizarte-justizia, adierazpen sexuala edo, sinpleki, egunerokotasuna bezalako gaiak. Saihestu honelako estereotipoak zabaltzen: bizitza penagarri eta patetikoa; ahalmen-urritasuna duen pertsona “heroia” balitz bezala; pertsona maltzurra, okerra eta mingostua; “hilda hobeto”; ahalmen-urritasuna duen pertsona baztertuta balego bezala; familiarentzat eta gizartearentzat zama balitz bezala; edota ahalmen-urritasuna duen pertsona, bizitza arrakastatsua izateko ezintasunean dagoen pertsona gisa.



3.3.3. 'Aniztasun funtzionala duten emakumeen ahalduntzea' Zeharkako Ardatzerako gomendioak

3.3.3.1. Aniztasun funtzionala duten emakumeen gizarte-egoera, 'Aniztasun-funtzionala duten emakumeen ahalduntzea' Zeharkako Ardatzean

Ez dago justifikatu beharrik zergatik den beharrezkoa diskriminazio anitza jasaten duten emakumeen ahalduntzea edozein alderditatik sustatuko duten ekintzak bultzatzea, edota, agiri honen kasuan, zergatik den beharrezkoa generoagatik eta ahalmen-urritasunagatik diskriminazioa jasaten duten emakumeen ahalduntzea sustatzeko ekintzak bultzatzea.

Gida honetako helburu zehatzetako batean aipatu dugu, eta gure lehen hausnarketako baten ondorioa da: *“Egoera abulenean dauden emakumeen ikusgarritasuna sustatu behar dute emakume-mugimenduek eta mugimendu feministek. Aldi berean, ahalmen-urritasuna dugun emakumeok geure arduraren kontzientzia hartu eta gure feminitatearekin bat datorren bizitza-proiektu osoa eraikitzeke eskubidea defendatu eta ahalduntze-erronkak barneratu behar ditugu”*. (Bizkaiko Adierazpena eta Feekorren Estrategiak: “Ahalmen-urritasuna duten Emakume eta Gizonen eskubideak” 2006).

Ahalmen-urritasuna duten emakumeen kasuan, Ahalduntzearen Ardatzak duen lehen erronka euren autoestimua hobetu eta benetako “gaitasunez” ohartzea da. Haien eskura jartzea, aukera-berdintasunean, potentzialtasun indibidualak hobeto eta era librean garatzeko behar diren baliabideak. Eta, horrekin paraleloan, bizitza publikoan parte hartzea suspertzea, era guztietako erakundeetan, ordezkaritza eta aitzindaritza hartzeko beldurrik gabe.

Aniztasun funtzionala duten emakumeen autoestimua urriak erabaki-postuak hartzea galarazteaz gain (bai eta ahalmen-urritasunaren inguruko elkarteetan ere), euren bizitzako hainbat alderditan ere eragin okerra dauka.

Ahalmen-urritasunak feminitatea, generoaren ohiko eginkizunak oztokatzen ditu: ama izatea, desio-xedea izatea, seduzitzeko gaitasuna galdu dute, zaintzarako gaitasun instrumentala galdu dute... Umetu egiten du eta mendekotasun eta pasibotasun ezaugarriak areagotu egiten ditu. Zeharkako datu gisa esango dugu ahalmen-urritasuna duten emakumeen % 45,2 ezkondata dagoela, eta gizonezkoak, aldiz, % 67,3 direla.

Ahalmen-urritasunak norberaren bizitzari buruzko erabakiak hartzeko eskubidea mugatzen du: “adituen”, “profesionalen”, etxekoen, senarraren boterea, askotan ezin da zalantzan jarri, eta ezin da gainditu. Horrekin paraleloan, ahalmen-urritasuna duen emakumearen mendekotasun ekonomiko handiak autodeterminazio-eskubidea era murriztuan erabiltzea dakar.

Ahalmen-urritasunak lan egiteko aukerak galarazten ditu: CERMik 2003an egindako azterketa baten arabera, ahalmen-urritasuna duten emakumeen ia % 30ek pentsatzen du laneratzea oztokatzen duen elementu nagusia autopertzepzio negatiboa dela;

% 15ek, aldiz, esan zuen “euren gaitasunak ez ezagutzeak” dakarrela hori. Antzeko ondorioa izan du berrikitan Lantegi Batuak-ek Euskadin egindako txosten batek.

Beraz, ezinbestekoa da Berdintasunerako Plan guztiek barnean hartzea aniztasun funtzionala duten emakumeentzako ekintza positiborako ekintzak, V. Planaren Ahalduntzea Ardatzaren barruan, eta haren hiru programetan: Autonomia Pertsonala eta Balioen Aldaketa; Baliabide Ekonomiko eta Sozialak Eskuratu eta Kontrolatzea; eta Parte-hartze Soziopolitiko eta Eragina.

Ardatz horretan, Emakumenderen Ekintza Gida bat dator EAEko V. Planarekin eta helburu operatiboen barruan, ekintzak egiteko proposamen zehatza jasotzen du. Beraietan, Hirigintza, Eraikuntza eta Garraioa Ardatzeko eta Zerbitzuen arreta, Gizarte Irudia eta Komunikazioaren Egokitzapena Ardatzeko proposamenak gurutzatu beharko dira, emaitzen inpaktua ziurtatzeko, aniztasun funtzionala duten emakumeen ahalduntzearen sustapenean eta gizarte-aldaketan.

Nolanahi ere, gure lanean jasotako proposamen batzuk aipatu ditugu ondorenean..

3.3.3.2. Helburu edo Ekintzetarako proposamena ‘Aniztasun funtzionala duten emakumeen Ahalduntzea’ Zeharkako Ardatzean

AHALDUNTZEA

.....
Familien artean, sentsibilizazio- eta kontzientziatio-kanpainak egin, gainbabeseko jarrerak ezabatzeko premiaren inguruan, ahalmen-urritasuna duten haurren autonomia pertsonalaren garapena eragozten dutelako.
.....

Ahalmen-urritasuna duten emakumeen familien artean, kontzientziatio-kanpainak egin, etxeko lanak eta zaintzak familia-unitateko kide guztien artean banatzearen premiaren inguruan.
.....

Ahalmen-urritasuna duten emakumeen jarduera-tasa urria eragiten duten kultura- eta familia-faktoreak aldatzeko ekimenak abian jarri.
.....

Kontzientziatio- eta sentsibilizazio-kanpainak egin ahalmen-urritasuna duten neska eta emakumeen familien artean, enpleguari buruzko aurreiritzi eta estereotipoak hausteko.
.....

Ikerketa bat egin, ahalmen-urritasuna duten emakumeek zaintzaile gisa egiten duten lanari buruz eta egoera horrek laneratzeko aukeran eta parte-hartze soziopolitikoan zer eragin duen jakiteko.
.....


Familiei, irakasleei eta administrazio publikoei zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak egin, ahalmen-urritasuna duten neskek eta emakumeek kirol, kultura- eta aisialdi-ekintzak egiteak duen garrantziaz jabe daitezen.
.....

Ahalmen-urritasuna duten neska eta emakumeei jakinarazi zer aukera eskaintzen dien hezkuntza-sistemak.

.....
Ahalmen-urritasuna duten pertsonen elkarteetako erabaki-organoetan,
parekotasuna ziurtatzeko neurriak ezarri.
.....

Aniztasun funtzionala duten emakumeen parte-hartze aktiboa sustatu beharko
dute erakunde feministek eta emakumeen erakundeek
.....

Gauza bera sindikatu eta alderdiei dagokienez, eta batez ere berdintasunerako
sekzio edo batzordeetan.



3.4. Jarduera-eremuetan ahalmen urritasunaren mainstreaming-a garatzeko helburu edota ekintzetarako proposamena

3.4.1. Hezkuntza- eta Trebakuntza-alarreko gomendioak

3.4.1.1. Aniztasun funtzionala duten emakumeen gizarte-egoera, Hezkuntza- eta Trebakuntza-alarrean

1999ko Ahalmen-urritasun, Gabezia eta Osasun Egoerei buruzko Inkestak (EDDES; INE, 1999) ahalmen-urritasuna duten gizon-emakumeen ikasketa-mailari buruz adierazitakotik hona, kopuruak nabarmen hobetu dira, eta are gehiago aztertutako pertsonen adin-tartea jaitsi ahala. Gaur egun, 60 urtetik beherako herritarren artean, antzeko ikasketa-maila lortzen dute ahalmen-urritasuna duten gizon eta emakumeek.

Halere, oraindik ere tarte handia dago ahalmen-urritasuna duten emakumeek lortutako maila akademikoaren eta gainerako emakumeek eta gizonek lortutako mailaren artean.

Hezkuntza inklusiboa eskubidea da, eta hezkuntza-sistemak behar diren baldintza guztiak ezarri behar ditu derrigorrezko hezkuntzan, aniztasun funtzionala duten neska-mutilek euren potentzial akademikoa ahalik eta gehien gara dezaten. Alabaina, oraindik ere antzematen dugu gure ikastetxeetan eta profesionalen artean ez dugula nahikoa bitarteko jartzen aukera-berdintasuna bermatzeko; egoerak horrek eragin eta ondorio desberdinak ekartzen ditu, generoaren edo ikaslearen arabera.

Derrigorrezko hezkuntza-aldiaren ondoren, eta helduaroan, ahalmen-urritasuna duten emakumeen artean badago gainerako emakumeekin partekatzen duten ezaugarri bat: intelektualki garatzeko interesa dute, jarduera horrek eragiten dizkien zailtasunen gaineratik. Interes horretan arautu gabeko prestakuntza lehenesten dute, ikasketa ofizialeko aukerak baino. Ordutegietan eta programetan malgutasun handigoa eskaintzen die eta, ondorioz, etxeko ardurekin, osasun-arazoak dituzten aldiekin (batik bat disfuntzio progresiboetan edo gaixotasun kronikoetan), eta garraiorik edo laguntzailerik ez dutenean, hobeto bateratzeko aukera dute hezkuntza-bide horretan. Bestalde, ikastetxe ez-arautuen sarea zabalagoa da eta emakumeak euren kabuz iristeko errazagoak dira, beraz. Halere, horrek enplegurako prestakuntzan eraginkortasuna galaraztea ekar dezake.

Ondoren jasoko ditugun ekintza-proposamenak irakurrita, aniztasun funtzionala duten emakumeek zer oztopo adierazi dituzten ondoriozta daiteke.

3.4.1.2. Helburu eta Ekintzetarako proposamena, Hezkuntza eta Prestakuntza alorrean

HEZKUNTZA - LANBIDE HEZIKETA - UNIBERTSITATEA

Hezkuntza-sistemari buruz, edozein mailatan izanik ere, egiten diren ikerketa eta estatistika guztietan, ahalmen-urritasunaren aldagaia zehaztu behar da, sexuaren eta ahalmen-urritasunaren arabera bereizita.

Langileek nahiz hezkuntza-komunitatean ari diren gainerako pertsonak (laguntzako langileak, aisialdikoak, psikologo-taldeak...) generoari eta ahalmen-urritasunari buruzko prestakuntza jaso behar dute.

Hezkuntza-agintariak jokabide egokien gida idatzi eta banatu behar dute, irakasleek jakin dezaten zein diren generoaren eta ahalmen-urritasunaren inguruan hedatuena dauden estereotipoak, nola arin daitezkeen eta zer jarrera eta jokabide bultzatu behar dituzten ikasleentz artean gai horren inguruan.

Irakasle Eskoletan, eta Pedagogia, psikologia, heziketa fisiko, gizarte-hezkuntza, gizarte-lan, informazio-zientzia eta IGIrako ikasketetan (Irakaskuntzarako Gaitasun Ikastaroa), generoari eta ahalmen-urritasunari buruzko berariazko kredituak sartu behar dira, aniztasun funtzional moten ezaugarriak kontuan hartuta.

Hezkuntza curriculumak maila guztietan (haur hezkuntzan, lehen eta bigarren hezkuntzan) jaso behar ditu ahalmen-urritasunari eta generoari buruzko edukiak, ahalmen-urritasun motak kontuan hartuta.

Ikastetxeek aniztasunari eta ahalmen-urritasunari buruzko jardunaldiak antolatu behar dituzte.

Ahalmen-urritasuna duten neska eta emakumeak bistartzeko ereduak barnean hartu behar ditu hezkuntza-materialak. Horretarako, material horietan ahalmen-urritasuna duten neska eta emakumeen presentziari buruzko azterketa bat egin eta emakume-sektore hori estereotiporik gabe agerrarazteko gida bat egin behar da.

Hezkuntza-sisteman egiten diren ikerketa eta estatistika guztietan, ahalmen-urritasunaren aldagaia zehaztu behar da, sexuaren eta ahalmen-urritasunaren arabera bereizita.

Ahalmen-urritasuna duten emakumeek zer aukera akademiko hartzen duten eta hezkuntza-sisteman izaten dituzten oztopo eta aurreiritziak ezagutzeko azterketak oso urriak izanik, pizgarriak eta diru-laguntzak ezarri behar dira gai horri eta generoari eta ahalmen-urritasunari lotutako beste alderdi batzuei buruzko azterketak eta tesiak egiteko.

Hezkuntza-zentroen ebaluazio-prozesuetan, kalitatea neurtzeko irizpideen artean sartu behar da generoaren eta ahalmen-urritasunaren inklusio bikoitza zer mailatan egiten den.

.....
Hezkuntzako ikuskariak prestakuntza jaso behar dute, hezkuntza-sisteman generoaren eta ahalmen-urritasunaren integrazio bikoitzari buruz. Gainera, ikastetxe batean ikuspegi hori zer neurritan txertatu den ikusteak izan behar du urteroko programazioen ikusketen irizpideetako bat.

.....
Arreta berezia egin behar zaie landa-eremuan bizi diren ahalmen urriko nesken hezkuntza-premiei.

.....
Ahalmen-urritasuna duten nesken premien inguruan hezkuntza-agintariak duten ezaguera urria kontuan hartuta, Hezkuntza esparruan berariazko zerbitzu bat sortu behar da, ikasle bakoitzak behar duten laguntza pertsonal eta teknikoak eskaintzeko: eskola-matrikula egiten den unetik bertatik abian jarriko den jarduera-protokolo pertsonalizatua diseinatu behar da, ikasle bakoitzak beharko dituen baliabideak (pertsonalak nahiz teknikoak) antzeman eta eskaintzeko, haren egoera zehatzaren arabera. Gainera, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egin eta Autonomia pertsonala Sustatzeko Legea betez, Gizarteratze Esparruak eskainiko dituen baliabideekin koordinatuta egon beharko dute, hezkuntza-sistemaren barruan, mendekotasunik gabeko bizitza autonomoa aukeratu eta garatzeko eskubidea bermatuta geldidarin.

.....
Eskola-jarduera guztietan, ikasle bakoitzaren premia fisiologikoei, mugikortasunari eta lekualdatzei laguntzeko arreta nahikoa eskaini eta bermatu beharko da, bakoitzaren premien arabera. Horren barruan dago laguntza pertsonala, beharrezkoa bada, baina horrek ez du esan nahi aldagelak, komunak, ikasketa-mahaiak, ordenagailua eta abar egokitu behar ez direnik, ikasleari autonomia gorena eskaintzeko.

.....
Eskola-adinean zaintza-pertsonala ematen duten langileek prestakuntza egokia behar dute, aniztasun funtzional bakoitzak behar dituen laguntza-premien inguruan, autonomia pertsonal eta bizitza independentea sustatzearen inguruan, gaur egun dauden laguntza teknikoaren inguruan, eta generoaren eta ahalmen-urritasunaren inguruan.

.....
Hezkuntza-sisteman dauden ahalmen urriko nesken egoera hobe dezakeen edozein tresna edo moldaketa instrumentalek eta laguntza teknikok eskuragarri egon behar du beti. Ikastetxean bertan egiten diren jardueretarako nahiz kanpoan egiten direnetarako.

.....
Ikastetxerako edo ikastetxetiko eguneroko joan-etorrietan ere eskuragarri egon behar du laguntza pertsonalak. Eskola-garraio kolektiborik badago, irisgarria izan behar du. Eskolatik kanpoko jarduerak ere aukera-berdintasunean egongo direla bermatzeko, horretarako ere egon behar dute eskuragarri laguntza pertsonalak eta garraioak.

.....
Ikastetxearen, aretoen, instalazioen eta zerbitzuen eskuragarritasunaren mende egon behar du Itunpeko irakaskuntzak jasotzen dituen diru-laguntzak.

.....
Ahalmen-urritasuna duten nesken familiak nahiz irakasleak kontzientziatzeko politika aktiboa ezarri behar da, jabe daitezen zer garrantzitsua den nesken gaitasunak gorenera iristea, generoaren arabera estereotipatuta dauden ibilbideetatik kanpo.

.....
Araututako irakaskuntzak ahalmen-urritasuna duten nesken premiei moldatuta egon behar du, ordutegi malgu eta curriculum egokituekin, batez ere haien patologia kroniko edo jarraituetan gerta daitezkeen gaixotze-aldi eta susperraldiei begira, halakorik balego.

.....
Laguntza pertsonal prestatuak eta laguntza tekniko egokituak beharko dira, eskolako eta eskolatik kanpoko jarduerak bat-batean antolatu eta garatzen ez ibiltzeko.

.....
Ahalmen-urritasuna duten neska eta gazteek ikastetxeetan jasaten duten diskriminazio zuzena edo zeharkakoa antzeman eta mozteko mekanismoak ezarri behar dira. Ikasleei ahalmen-urritasuna duten pertsonen giza eskubideen eta aukera-berdintasunaren alorreko informazioa eskaini behar zaie, bai eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna azaltzen zaienean ere.

.....
Hezkuntza-sisteman ohitura dago ahalmen-urritasuna duten neskei hezkuntza fisikoko irakasgairik ez emateko. Ohitura hori erauzi egin behar da.

.....
Sektore publikoan nahiz pribatuan garatzen diren genero-berdintasunaren inguruko programek ahalmen-urritasunaren aldagaia hartu behar dute kontuan.

.....
Ahalmen-urritasuna duten emakumeen artean geroz eta handiagoa den “eten digitala” murrizteko ekintza positiboko neurriak ezarri behar dira.

.....
Ikastetxeek altzari eta tresna eskuragarriak izan behar dituzte, autonomia gorena bermatzeko.

.....
Prestakuntza- eta enplegu-proiektuetan laguntzen duten zentroek eskaintza egokitu behar dute, ahalmen-urritasuna duten ikasleen premiei erantzuteko.

3.4.2. Enplegu-alarreko gomendioak

3.4.2.1. Aniztasun funtzionala duten emakumeen gizarte-egoera, Enplegu-alarrean

Ahalmen-urritasuna duten emakumeen artean, langabezia-tasa handiagoa da (% 19,7) emakume guztiena baino (% 16,2) eta ahalmen-urritasuna duten gizonena baino (% 12,8). (Ahalmen-urritasuna duten pertsonak eta enpleguarekiko harremana, 2002ko 2. hiruhileko Biztanleria Aktiboari buruzko Inkestako datuekin, INE 2003 (aurrerantzean, INE 2003)).

Eten nabarmena dago ahalmen-urritasuna duten gizonen aldean, enplegua sustatzeko neurrien inpaktuari buruzko aldagaiei dagokienez. Onuradunak izan diren 34.088 ahalmen-urritasuna duten pertsonetatik, 12.731 baino ez dira emakumeak, hau da, % 29,54 baino ez.

Sexuak alde nabarmenak dakartza lan-jardunari dagokionez. Ahalmen-urritasuna duten pertsonen artean, lanean ari diren emakumeak gizonen erdia dira. Lan-jarduera txikiago hori ez dago zuzenean lotuta emakume jarduera-tasa orokorrari. Oro har hartuta, emakume guztien artean % 15,1 lanean ari bada, ahalmen-urritasuna ez duten emakumeen artean % 33,7 ari da lanean. Gizonen lanaren gainean alderaketa bera egin dezakegu; hau da, ahalmena dutenen (% 30) eta ez dutenen artean (% 61,4). Zera esan nahi dugu: emakume izateak ez dakarrela, berez, lan egiteko aukera murriztagoa, eta, aldiz, ahalmen-urritasunak laneratzeko zailtasun handiagoa dakarkielako emakumeei, gizonei baino. Horregatik, lanean ari diren pertsonak baino ez baditugu erabiltzen alderaketa egiteko, ahalmen-urritasuna duten gizonen % 77,9 ari da lanean, eta emakumeen % 66,9 baino ez. Bestela esanda, ahalmen-urritasunen bat duten emakume gutxiagok esaten du lanerako prest dagoela, egoera berean dauden gizonek baino, baina, are gehiago, aktibo (lanerako prest) daudenen artean ere, askoz ere ehuneko baxuagoak aurkitzen du lana. (EDDES 1999)

Mendekotasun-maila duten pertsonak hartzen dituen 2008ko Ahalmen-urritasun, Autonomia Pertsonal eta Mendekotasunari buruzko Inkestaren arabera, gizonen % 16,26 ari zen lanean, eta emakumeen % 8,32.


Gainera, kontuan izan behar da ahalmen-urritasuna duten emakume asko ari direla etxeko lanetan eta ordaindu gabeko lanetan. Eta soldatapean ageri diren ahalmen urriko emakumeen artean, askoz gehiago direla esparru "bereziatan" (okupazio-zentroak edo enplegurako zentro bereziak) ari direnak, gizonak baino.

Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerako Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak aldaketak ekarri zituen laneko legerian, batez ere gizonen eta emakumeen arteko etxeko bizitza uztartzearen inguruan. Hain zuzen, seme-alabak edo gurasoak zaintzeko ekintza positiboko neurriak azpimarratu zituen. Halere, ez du aipatu ahalmen-urritasun larriak enplegatuei eurei eragiten dien bizitza-arazoa. Hainbat ingurutara iristeko ezintasunak eta norberaren burua zaindu beharrak desabantaila handiak dakarzkie bizitzaren denbora-erabileran. Halatan, kontuan hartu beharreko elementua da hori, langile horientzat ordutegi-malgutasuna ezartzeko,

kontu pertsonaletarako egunak emateko, eta lantokira bertaratu gabeko zatiak dituen lanaldia errazteko.

Honako hauek dira egoera horretatik datozen ondorioetako batzuk::

- Kaleratzeak, gaixotasun-bajak segidan etortzen direlako.
- Gaixotasuna ezkututzen da, enpresariak zigorrik ezar ez dezan.
- Lan anitzak egiten dira ezkutuko ekonomian, inolako eskubide eta bermerik gabe, gaixorik dauden gurasoak artatzearen (etxeko zaintzak emakumeen ardura izaten jarraitzen du).
- Lehenik prestakuntza akademikoan eta gero enplegu-zerbitzuetan orientaziorik ez dagoenez, enplegua bilatzeko orduan frustrazioa nagusitzen da.
- Familiak berak ez du asko laguntzen enplegua bilatzen, eta kontra ere egin dezake, autoenplegua planteatzen denean.
- Ahalmen-urritasun larria dagoenean, ohi baino denbora gehiago behar izaten da amatasunetik suspertzeko eta umea zaintzeko.
- Enpresariak ez dakite gaixotasunek eta ahalmen-urritasunek zer errealitate dakarten eta, ondorioz, nahiago dute halakorik ez kontratatu, jende hori kaleratu, eta iraupen luzeko gaixotasunekin zorrotzago jokatu. Zer aldatu behar da?



3.4.2.2. Helburu eta ekintzetarako proposamena, Enplegu alorrean

ERAKUNDE PUBLIKOAK

Ahalmen-urritasuna duten emakumeek aukeratzen dituzten lan-profilen inguruko eta hori aukeratzeko dauden estereotipo nagusiei buruzko azterketak eta ikerketak egin, horiei guztiei balioa kentzeko.

Ahalmen-urritasuna duten emakumeek laneratzeko aukera gehien dituzten enplegu-hobien inguruko azterketak eta ikerketak egin.

Ahalmen-urritasuna duten emakumeen laneratzeari begira, eraginkorrenak diren prestakuntza-ildoei buruzko azterketak eta ikerketak egin.

Ahalmen-urritasuna duten emakumeek lan-esparruan dituzten berariazko premiak eta jasaten dituzten diskriminazio eta desberdintasunak bistaratuko dituzten azterketa eta ikerketak egin. Egoera horiek gainditzeko neurriak ere jaso behar dituzte azterketok.

Ekimenak abian jarri, gaur egun ahalmen-urritasuna duten emakumeak laneratzeko dagoen joera (hau da, euren prestakuntza-maila baino apalagoa duten lanpostuetan laneratzekoa) hausteko.

Ordainsariei buruzko estatistika ofizialetan, ahalmen urritasuna duten emakumeen soldata-mailari buruzko datuak argitaratu behar dira sistematikoki, beste kolektibo batzuekiko balizko diskriminazioa aztertu, hori bistaratu eta erauzteko.

Ahalmen-urritasuna duten emakumei enplegu-eskubideen inguruko informazioa eskaini, batik bat prestazioak eta soldatak bateratzearen inguruan.

Gizarte-prestazioak eta soldatak jasotzea bateratzeko neurriak indartu behar dira. Eta ez gara ari prestazio ekonomikoez soilik; gainera, autonomia bultzatzeko eta mendekotasunari arreta eskaintzeko zerbitzuak ere hartu behar dira kontuan, ahalmen-urritasuna duten emakumeen jarduera-tasa baxua suspertzeko.

Jardunaldi murriztua eskuratzeko erraztasuna, kotizazioan inpakturik izan gabe edo inpaktu txikiarekin. Ahalmen-murriztasuna duten emakumeen lan-bizitza luzatuko luke horrek.

EAEAPk prestazioen eta soldaten bateragarritasunaren inguruan eta bizikidetzan unitatearen errentaren gainean ezarritako mugak hobetu.

Landa-eremuan bizi diren ahalmen urriko emakumeentzako berariazko neurriak jarri abian, enplegua eskuratzeko duten zailtasuna arintzeko.

Ahalmen-urritasuna duten emakumeek autoenplegua eta enpresak sortzea sustatu:

- Ahalmen-urritasuna duten emakumeek enpresa-ekimenak eta autoenplegua lantzeko, lagundutako kreditu-tresnak eta itzuli behar ez diren subentzioak lehenetasunez eskuratzeko neurriak ezarri.
- Langile autonomoen erregimeneko kuotan pizgarriak eta zerga-pizgarriak ezarri behar dira, autoenplegua duten ahalmen urriko emakumeentzat.
- Enpresak eta autoenplegua sortzeko prestakuntzan sartzeko lehenetasuna aitortu behar zaie ahalmen-urritasuna duten emakumeei.

.....
Ahalmen-urritasuna duten emakumeen jarduera-tasa urria eragiten duten kultura- eta familia-faktoreak aldatzeko ekimenak jarri behar dira abian.

.....
Ahalmen-urritasuna duten emakumeentzat telelanak eskaintzen dituen aukera guztiak aztertu behar dira. Horretarako, prestakuntza-programak eskaini eta Internetarako sarbidea erraztu behar zaie, indar berezia jarrita landa-eremuan bizi diren emakumeen kasuan.

.....
Gure kolektiboan geroz eta handiagoa den “eten digitala” murrizteko, ekintza positiboko neurriak ezartzeko premia azpimarratzen dugu.

.....
Ahalmen-urritasuna duten emakumeentzat lan-sustapenerako aukeren inguruko ikerketak egin.

.....
Ekintza positiboko neurriak diseinatu, enplegu publikorako oposizioetan ahalmen-urritasun maila handiena duten emakumei sarbidea errazteko.

.....
Ahalmen-urritasuna duten emakumeek jasaten duten desberdintasunaren eta diskriminazioaren inguruko prestakuntza berezia jaso behar du Lan Ikuskaritzak, halakoak erauzteko ekintzak abian jar ditzaten.

.....
Lan Ikuskaritzak prestakuntza berezia izan behar du ahalmen-urritasuna duten emakumeen aurkako laneko indarkeriaren, sexu-jazarpenaren eta lan-diskriminazioaren inguruan, halako jokabideak antzeman eta erauzteko.

.....
Ahalmen-urritasun larria duten emakumeen (>% 50) amatasun-bajaren iraunaldia luzatu egin behar da, erditze multipleen kasuan ezarritakoarekin parekatzeko.

.....
Familia-kargak dituzten ahalmen urriko pertsonentzako laguntzak handitu behar dira.

.....
Ordainsariei buruzko estatistika ofizialetan, sistematikoki argitaratu behar dira ahalmen-urritasuna duten emakumeen soldata-mailari buruzko datuak, bai eta beste biztanle-kolektiboan aldean (ahalmen-urritasuna duten gizonak eta gainerako emakumeak) zer egoeratan dauden jakiteko ikerketa konparatiboak ere. Zentzu horretan, ahalmen-urritasuna duten emakumeek jasaten duten soldata-diskriminazioak aztertu behar dira, halakoak bistaratu eta erauzteko.

.....
Berdintasunerako agenteek prestakuntza berezia jaso behar dute, ahalmen-urritasuna duten emakumeek lan-alorrean bizi duten berariazko egoeraren inguruan.

PRESTAKUNTZA EDO/ETA ORIENTAZIO ZENTROAK

.....
Lan-orientaziorako zerbitzuek merkatuan eskatzen diren enpleguetara bideratu behar dituzte ahalmen-urritasuna duten emakumeak, haien prestakuntza-mailari egokituta eta estereotipoetatik aldenduta.

.....
Prestakuntza- eta enplegu-proiektuetan laguntzen duten zentroek eskaintza egokitu behar dute, ahalmen-urritasuna duten ikasleen premiei erantzuteko.

.....
Ahalmen-urritasuna duten emakumeek lan-merkatuan bizi duten egoeraren inguruko diagnostikoa egin behar da, honako hauek aztertzeko:

- Zein den haien laneratze-tasa, eta zer lan-sektoretan ari diren.
- Zein lan-sektoretan aurkitzen dituzten oztopo gehien, eta nola arin daitezkeen.
- Zein den haien jarrera teknologia berrien aurrean, eta nola aprobetxa daitezkeen enplegu-hobi berriak.
- Nola oreka daiteke lan-merkatuan ematen den desoreka, ahalmen-urritasuna duten emakumeen prestakuntza-mailaren eta aurkitzen dituzten lan-postuen profilaren artean, faktore horrek emakume horien prestakuntza-prozesuak apalarazi egiten baititu.

.....
Enplegurako informazio- eta orientazio-zerbitzuetako langileek generoaren eta ahalmen-urritasunaren inguruko prestakuntza izan behar dute, aniztasun funtzionalak dituzten emakumeen berariazko premiak ezagutzeko. Ikuspegi bikoitz hori txertatu behar da laneratzeko laguntza-prozesuko fase bakoitzean: laneratzeko, enpresa-sustapenerako eta autoenplegurako informazioa, orientazioa, prestakuntza, laguntza eta jarraipena.

.....
Enplegu-zerbitzuek ahalmen-urritasuna duten emakumeen aldeko ekintza positiboko politika garatu behar dute, azpiordezkatuta dauden lanpostuak betetzeko.

.....
Funtzio publikoan sartzeko Prestakuntza Programetan, ahalmen-urritasuna duten emakumeei lehentasuna eman.

.....
Prestakuntza okupazionalako programek autoestimua eta gizarte- eta lan-gaitasunen inguruko moduluak jaso behar dituzte.

.....
Enplegu-zerbitzuek enpresei bideratutako sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak egin behar dituzte, ahalmen-urritasuna duten emakumeak kontratatuz gero izango dituzten zerga-pizgarrien eta beste pizgarri batzuen inguruan, eta lanpostuak eta instalazioak egokitzeko dauden diru-laguntzen inguruan.

ENPRESAK ETA SINDIKATUAK

Ahalmen-urritasuna duten emakumeak laneratzean, lan-sustapenean edo etengabeko prestakuntzan jasaten duten diskriminazio zuzen edo zeharkakoa antzeman eta erazteko mekanismoak ezarri.

Mugimendu sindikala generoaren eta ahalmen-urritasunaren inguruan trebatu, filosofia hori beraien jarduera-ildoan eta hitzarmen kolektiboetan txertatzeko.

Negoiazio kolektiborako prozesuetan, ahalmen-urritasuna duten emakumeen berariatzko premia eta baldintzak jaso behar dira.

Norbere burua zaintzeko baimenak eduki behar dituzte, lanpostua galtzeko beldurrik gabe.

Enpresariak ahalmen-urritasuna duten emakumeekiko dituzten estereotipoak eta aurreiritziak aztertzeko ikerketak egin, eta irtenbideak eskaini.

Lan babestuan jardun ostean, gaitasun nahikoa eskuratu duten ahalmen urriko emakumeak lan normalizatuan txertatu. Integrazio horrek soldata-sistema normalizatuan sartzea ekarriko du.

Sindikatu- eta Enpresa-erakundeei nahiz ahalmen urritasuna duten emakumeei eurei zuzendutako prestakuntza-ikastaroak sustatu behar dira, azken horiei lotutako lan alorreko legezko xedapenen inguruan eta, batez ere, edozein motatako eskubide, ordainsari eta pizgarrien inguruan.

Lan-alorreko aholkularitza juridiko bat sustatu behar da, ahalmen-urritasuna duten emakumeen alorrean espezializatua, bidegabeko kaleratzeetan, soldata-diskriminazioetan, lan-sustapenean eta abarretan aritzeko.

Emakume gehien aritzen diren sektoreetan, lanerako ezintasunetan eta horren graduak ebazteko eragin gehien dituzten egoerei buruzko azterketak egin behar dira.

Sariak edo pizgarriak ezarri ahalmen-urritasuna duten emakumeak kontratatzeko ekintza positiboko neurriak hartzen dituzten enpresentzat.

Ahalmen-urritasuna duten pertsonen lan-jardunaldi malguak izateko aukera eskaini, euren buruaren zaintza, laneko bizitza eta bizitza pertsonala egoki uztartzeko. Malgutasun horrek ez du eragin behar lan-sustapenerako edo prestakuntzarako aukerak murriztea.

Zerga-pizgarriak eta laguntza publikoak ezarri lanaldiaren murrizketa edota malgutasuna sustatzeko, batik bat ahalmen-urritasun larria duten pertsonentzat.

Ahalmen-urritasuna duten emakumeak puntako teknologia erabiltzen duten sektorean laneratzea bultzatu; emakume horiek I+G+B proiektutan parte hartzeko ekintza positiboko neurriak hartu, unibertsitate nahiz enpresa mailan.

.....
Zerga-pizgarriak edo beste mota batekoak ezarri, Berdintasunerako Planetan ahalmen-urritasunaren ikuspegia kontuan hartzen duten Enpresentzat.
.....

Enpresei pizgarriak eta laguntzak eman, zaintza informalean ari diren emakumeak, zaintza-aldi hori amaitu ondoren, laneratzen laguntzeko.

ENPLEGURAKO ZENTRO BEREZIAK

.....
Enplegurako Zentro Berezietan lanean ari diren ahalmen urriko emakume kopuru handia murrizteko neurriak hartu.
.....

Lan babestuan jardun ostean, gaitasun nahikoa eskuratu duten ahalmen urriko emakumeak lan normalizatuan txertatu, eta txertaketa horretarako gaur egun dauden oztopoak gaingitu. Enplegurako Zentro Berezietan bertan, kontratu normalizatueta eta, bide horretatik, sustapenerako aukera-berdintasunera jo.

.....
Babes-gabeko soldata-sistematik soldata-sistema normalizatura jotzea dakar integrazio horrek.
.....

Lan Ikuskaritzak EZBetatik enpresa arruntetarako aldaketa zaindu eta aztertu behar du. Ildo beretik, gaur egungo legeriak eskatzen dituen erreserba-kuotak eta aparteko neurriak nola ezartzen dituzten ere zaindu beharko du. Izan ere, gaur egun oso ohikoa da aparteko neurriak betetzea, erreserba-kuotak alboratuta.

.....
Prestakuntza okupazionalako programek autoestimua eta gizarte- eta lan-gaitasunen inguruko moduluak jaso behar dituzte.
.....

Bereziki ikertu behar da LBZetan sexu-jazarpenik ote dagoen, halako jokabideak antzeman eta erazteko jokabide-protokoloak ezartzeko asmoz.

3.4.3. Aisialdi-, Kultura- eta Kirol-alarreko gomendioak

3.4.3.1. Aniztasun funtzionala duten emakumeen gizarte-egoera, Aisialdi-, Kultura- eta Kirol alorreatan.

Gure Elkargunea egin genuenean, aisialdia eta denbora libre bereiztearen premia antzeman genuen. Halatan, lanik egiten ez den garaia da denbora libre; aisiak, aldiz, zerbait gehiago eskatzen du: barneko motibazioa, gozatzeko ekintza eta aukera-askatasuna.

Denbora libreak ez dakar, nahitaez, pertsonak aukeratu eta gustuko dituen jarduerak egitea; gerta daiteke denbora libre hori gustuko ez diren gauzetan eman behar izatea, hala nola medikura joaten, ahalmen-urritasunak exijitzen dion atsedena hartzen...

Aisia eta Kultura

Gure Hausnarketa Jardunaldian parte hartu zuten emakumeen ustez, antzekoak dira euren aisialdia eta gizonena. Ez dute uste gizonek baino denbora libre gutxiagorik dutenik, nahiz eta esan gehienetan etxeko lanen ardura euren kargu dutela (gainerako emakumeekin gertatzen den bezala).

Ez dute uste gainerako herritarrek oro har egiten dituzten jardueretatik apartekoak egiten dituztenik, baina bai, aldiz, garestiagoak direla etxetik kanpo eginez gero, eta ez soilik alde ekonomikotik: denbora gehiago eta neke fisiko handiagoa eskatzen diete beraiei. Zer eta norekin pentsatzeaz gain, aurreikusitako jarduera bakoitza egokituta dagoen egiaztatu behar da, eta askotan ezinezkoa izaten da informazio hori eskuratzea. Batez ere 55 urtetik gorako emakumeen kasuan, informatika alorrean gaitu eta hori eskuratzeko aukera izanez gero, ataza hori asko arinduko litzateke.

Testuinguru horretan, emakumeek badute alde nabarmena gizonekiko: komunetara joateko arazoa. Gizonek errazago gainditzen dute arazo hori. Laguntzeko pertsona bat izateko premia da bigarren desabantaila. Batez ere gogoan badugu emakumeek erosteko ahalmen murriztagoa dutela, emakume gehiago bizi direla bakarrik, eta garraio publikoarekiko mendekotasuna handiagoa dutela.

Ahalmen-urritasuna duten emakumeak egoera txarragoan daude ahalmen-urritasuna duten gizonak baino, eta batez ere gainerako herritarrek baino. Nolanahi ere, kolektibo horretako emakumeek, gainerako emakumeek bezala, parte-hartze handiagoa dute kultura-jardueretan, gizonek baino (akaso, azken horiek parte-hartze handiagoa dute kirol jardueretan).

Irisgarritasun-parametroen arabera pentsatutako bidaien eskaintza urria denez, askotan emakumeek ez dute halakoetan pentsatzen, Feekorrek edo haren elkarteek antolatzen ez badituzte.

Kirola

Puntu horretan, parte-hartzaileek nabarmen bereizi dituzte eurek egindako kirola eta ahalmen-urritasuna duten gizonek egindakoa. Argi eta garbi bereizten dira kirol ez lehiakorra (emakumeek aukeratzen dute gehien) eta kirol lehiakorra (gizonen artean ohikoagoa). Ahalmen-urritasuna duten emakumeek ez dute euren burua lehiakortzat eta, esaten dutenez, kirola egiten dutenean sasoian egotea eta gozatzea bilatzen dute, baina ez garaitzea. Emakume gazteenek, aldiz, esaten dute lehiaketa-kirol femeninoaren inguruko informazio eta sustapen murriztagoa dagoela.

Nolanahi ere, emakume gutxik hartzen dute parte halako jardueretan, alde batetik oso garestiak dielako, bestetik laguntzeko pertsona ez daudelako eskura, eta azkenik motibazio-falta dela-eta (adina, urritasun-mota...). Zentzu horretan, adierazi dutenez, irakasleak ia beti gizonak izaten dira, eta ahalmen-urritasuna duten emakumeak ez dira gustura sentitzen, lan horretan emakumeak nahiago lituzketelako.

Euskal hezkuntza-sistemari dagokionez, haien ustez irakasleak ez daude nahikoa kontzientziatuta, prestatuta eta hornituta, zer kirol jarduera egin behar duten jakiteko. Alabaina, parte-hartzaileek uste dute garrantzitsua dela hezkuntza-sistemaren hasieratik txertatzea kirola. Horretarako, ezinbestekoa da erakunde publikoen parte hartzea.

3.4.3.2. Helburu eta ekintzetarako proposamena, Aisialdi-, Kultura- eta Kirol alorrean

AISIA ETA KULTURA

Kirol edo kultura-jardueretako parte-hartzeari buruz egiten diren azterketa eta ikerketa guztietan, ahalmen-urritasunaren aldagaia bereizi behar da, sexuaren eta urritasun-motaren arabera.

Kultura-jarduerak landu eta programatzen dituzten administraziooko langileek prestakuntza berezia jaso behar dute ahalmen-urritasuna duten emakumeen berriazko premia eta interesen inguruan, premia eta interes horiei egoki erantzungo dieten ekimenak garatzeko. Zentzu horretan, generoaren eta ahalmen-urritasunaren ikuspegia jaso behar dute administraziooko langileen eta kontratatutako enpresen artean banatutako genero-berdintasunerako jokabide egokiei buruzko gidek.

Ahalmen-urritasuna duten emakumeek gaur egun kultura-alorrean duten parte-hartzearen inguruko ikerketak egin behar dira: kultura berdintasunean eskuratzeko dituzten mugak, berriazko premiak eta gustuak, interesak eta aurreikuspenak.

Kultura- eta aisialdiko jardueretan parte-hartzea errazteko, ahalmen-urritasuna duten emakumeen premietara egokitutako komunak ezarri behar dira kalean. Sarrera mugatua izan behar dute, eurogiltza edo antzeko zerbait. Gainera, instalazio horiek haurrak aldatzeko lekua izan behar dute.

Oporretarako produktu eta pakete eskuragarrien eskaintza sustatu.

Administrazioak 65 urtetik gorakoentzat antolatzen dituen bidaietan, mugikortasun urriko pertsonentzako lekua egon behar da, laguntza pertsonala ere kontuan hartuta. Neurri horrek areago eragingo die aniztasun funtzionala duten emakumeei.

Ikerketa feministak sustatzeko bekak ezarri, ahalmen-urritasunaren eta kultura-esparruen ikuspegitik.

Dokumentazio Zentroetan emakumei eta ahalmen-urritasunari buruzko argitalpen- edo ikus-entzunezko funtsak hartu beharko dira. Zentro horiek, gainera, ahalmen-urritasunei egokitutako formatuak eduki beharko dituzte.

Ahalmen-urritasuna duten emakumeen arte-sormena sustatu eta bultzatuko duten erakunde pribatuentzako beka bereziak, pizgarriak eta diru-laguntzak ezarri.

Ahalmen-urritasuna duten emakumeen arte-prestakuntza bultzatu, azpiordezkatuta dauden diziplinetan, hala nola antzerkian, dantzan, kantagintzan...

Garraio-premiak betetzeko, deskontuak eta beste abantaila batzuk ezarri, ahalmen-urritasuna duten emakumeak kultura-ekintzetara joatera bultzatzeko.

Udalerrietan dagoen aisi- eta kultura-eskaintza jasoko duen gida osoa eta eguneratua egin, formatu eskuragarrietan. Barruan egongo dira bertaratzeko garraioa, baliabidearen egokitzapena, eta interesgarria izan daitekeen beste edozein datu.

Kulturarako eta aisiarako esparruetan, ahalmen-urritasuna duten pertsonentzako guneak egokitu behar dira, baina ez dute egon behar aparte edo berezita: esparru osoan zehar egon behar dute eta ikusteko baldintza egokiak izan behar dituzte.

Zabaldtu egin behar da egokituak eta eskuragarriak diren kultura eta aisialdirako ekintzen eskaintza.

Familiei, irakasleei eta erakunde publikoei zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak egin behar dira, ahalmen-urritasuna duten neska-mutilek kirol, kultura- eta aisialdiko jarduerak erabiltzeko garrantziaren inguruan.

KIROLA

Ekintza positiboak egin (bekak, sariak), ahalmen-urritasuna duten neska-mutilek lehiaketa-kiroletan parte-hartze handiagoa izan dezaten.

Geroz eta mugikortasun-arazo gehiago duten 65 urtetik gorako pertsonen sektoreari (batez ere emakumeak izan ohi dira) zuzendutako zaintza-zerbitzuak eta diru-laguntzak ezarri, haien autonomia eta mugikortasuna sustatzeko.

Behar diren egokitzapen guztiak egin, ahalmen-urritasuna duten emakumeek kirol guztietan jardun ahal izan dezaten.

Kirol aukera zabala ezarri behar da, genero-ikuspegia kontuan hartuta eta ahalmen-urritasuna duten neska eta emakumeen parte-hartzea sustatzeari begira. Prestatutako langileak izango dira horretarako.

Zerga-pizgarrien eta diru-laguntzen bidez, ahalmen-urritasuna duten emakumeen kirol-jardueraren babesa bultzatzea, batik bat azpiordezkatuta dauden kirol modalitateetan.

Udal kiroldegietako programa diseinatzean, ahalmen-urritasuna duten neska eta emakumeen parte-hartze aktiboa sustatu, euren premia eta aurreikuspenetara egokitutako eskaintza egon dadin.

Ahalmen-urritasuna duten neska eta emakumeek kirolean aritzeko dituzten oztopo eta premiak ezagutu, eskaintza egokitzeko.


Ahalmen-urritasuna duten nesken kirol jarduera sustatzeko asmoz, hezkuntza fisikoko irakasleek berariazko prestakuntza jaso beharko dute, neska horien premien inguruan eta ikastetxeetan egin beharreko egokitzapen ergonomiko eta funtzionalen inguruan.

Kirol Egokituaren Euskal Federazioan federatuta dauden emakumeei buruzko azterketa egin behar da gaur egun federatutako pertsonen % 31,3 baino ez dira-eta, sektore horrek kirolean duen egoera bistaratzeko asmoz. Era paraleloan,

federatu gabe kirola egiten duten ahalmen urriko emakumeen portzentajea eta azken urteetan kirol jardueran izan duten bilakaera aztertu behar dira, aldeko joerak sustatzeko asmoz. Ahalmen-urritasuna duten neskek eta emakumeek kirola egiteko dituzten oztopo, premia, gustu eta aurreikuspenak ere jaso behar ditu lan horrek, horri esker, administrazio-erakundeek gizarte-talde horren eskaerara egokitzeko euren eskaintza.

Hezkuntza-sistema osoak ahalmen-urritasuna duten nesken kirol jarduera sustatu behar du eta, horretarako, hezkuntza fisikoko irakasleek berariazko prestakuntza jaso beharko dute, neska horien premien inguruan eta ikastetxeetan egin beharreko egokitzapen ergonomiko eta funtzionalen inguruan. Era berean, eskola-komunitate osoari (familiak, irakasleak, ikasleak, aisialdiko begiraleak, entrenatzaileak) zuzendutako kontzientziazio-kanpainak egin behar dira, ahalmen-urritasuna duten nesken ongizate fisiko eta moralari begira, kirola egiteak duen garrantziaren inguruan.

Jabetza publikoko hedabideek eremuak gorde behar dituzte, ahalmen-urritasuna duten emakumeak kirola egiten agerrarazteko.



3.4.4. Gizarte Zerbitzu eta Prestazioen alorreko gomendioak

3.4.4.1. Aniztasun funtzionala duten emakumeen gizarte-egoera, Gizarte Zerbitzu eta Prestazioen alorrean

Lehenago ere aipatu dugun ahalmen-urritasuna duten emakumeen mendekotasun ekonomikoa dela autodeterminazio eskubidea erabiltzea galarazten duen arrazoi nagusietako bat.

Kotizazio gabeko pentsioak jasotzen dituzten pertsonen profilaren azterketa eginez gero, berehala ohartuko gara gehienak emakumeak direla, pertsona guztien % 73,46; bestela esanda, kotizazio gabeko pentsioak jasotzen dituzten emakumeak gizonak halako hiru dira (Kontribuzio gabeko Prestazioen Mapa, IMSERSO 2004). Kotizazio gabeko zahartzaroko pentsioei dagokienez, % 85 dira emakumeak.

Mendekotasun-maila handia duten pertsonen erreparatuz gero, emakumeak % 63 dira, eta gizonak, % 37.

Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileak generoaren eta adinaren arabera aztertuz gero, emakumeak nagusitzen dira zerbitzu guztietan. Etxeko zaintzako zerbitzu publikoaren erabiltzaileen % 67 emakumeak dira, telelaguntza zerbitzuaren erabiltzaileen % 76, eguneko zentroen erabiltzaileen % 71, eta harrera-egoitzen erabiltzaileen % 66. SAADaren datuak, estatu mailan, 2009ko urrian:

- Balorazio-eskaerak guztira: 1.118.163
- Emakumeak: 641.743 Gizonak: 334.118 Zehaztu gabe: 25.977

Hau da, ez da zuzena aniztasun funtzionala duen neska edo emakume baten irudia, halaber, gizarte-bazterketari lotzea, baina, halere, Gizarte Prestazio eta Zerbitzuen alorreko politikek kontuan hartu behar dute zahartzea, bakardadea, pobrezia eta zaintza-premia larriak genero-ezaugarri nabarmena dutela, emakumea dela haien bezero/erabiltzaile nagusia, eta haien eskubideak zaindu behar dituztela.

Aniztasun funtzionala duten emakumeek adierazten dute, lehenengo eta behin, informazio argia, eskuragarria eta ulergarria izateko arazoa izaten dutela. Egoerak askotarikoak direlako, administrazio-maila askok parte hartzen dutelako, eta salbuespen, bateraezintasun gehiegi dagoelako (gaur egungo gizarte- eta osasun-prestazio eta -zerbitzuen katalogoetako "hizki txikia", horiek ere laguntza teknikoetan parte hartzen baitute), babesgabe sentitzen dira eta, inoiz, tratu txar burokratikoak ere salatzen dute. Eta, administrazio-erabaki baten aurka daudelako, errekurtsioa aurkeztu nahi badute, administrazioarekiko auzien prozesura bidaltzen dituzte eta, beraz, abokatua kontratatu behar izateaz gain, denbora luzea behar izaten dute.

Bigarrenik, emakume-kolektibo horrek salatzen du zerbitzuak ez zaizkiola nahikoa egokitzen euren bizimoduari eta, beraz, bizitza independentea eta autonomia pertsonala mantendu eta sustatzera bideratutako zerbitzuak bultzatzea eskatzen dute; horri esker, ohiko etxea mantendu ahal izango dute, bizitza-kalitatearekin. Haien ustez, ahalmen-urritasun maila handia dagoenean, gizonak emakumeak baino egoera hobean egoten dira, kotizaziopeko pentsio handiagoak jasotzen dituztelako eta, gainera, askoz ere ehuneko handiagoan, emakumearekin batera bizi direlako.

3.4.4.2. Helburu eta ekintzetarako proposamena, Gizarte Prestazio eta Zerbitzuen alorrean

INFORMAZIOA

Gizarte-prestazio eta -zerbitzuen alorrean egiten diren azterketa eta ikerketa guztietan ahalmen-urritasunaren aldagaia txertatu behar da, sexuaren eta ahalmen-urritasunaren arabera bereizita.

Prestazioen bateragarritasun eta bateraezintasunei buruzko informazioa eskaini behar da, formatu guztietan.

Administrazioetan, bide bat ezarri behar da ahalmen-urritasuna duten pertsonen eskura, dela bertaratuta, dela online, haien zalantzak argitu eta kexuak azaltzeko (parte-hartzeko foroak, kexuen eta iradokizunen postakutxa...). Eta kexu eta iradokizunak entzun ditzatela eta, ahal den neurrian, konpondu egin ditzatela.

Administrazio eskudunen informazioa zentralizatu.

Arretarako Programa Indibiduala egiten parte hartuko duten Administraziooko teknikariek prestatuta egon behar dute generoaren eta ahalmen-urritasunaren alorrean, ahalmen-urritasuna duten emakumeen premiak eta egoera bereziak egoki txertatzeko.

Bakarrik eta era independentean bizi diren ahalmen urriko emakumeei buruzko azterketak eta ikerketak egin: haien prestakuntza-maila, adina, enpleguarekiko egoera, familia-unitatearen osaera, errenta-maila...

Instituzioetan bizi diren ahalmen urriko emakumeei buruzko ikerketak eta azterketak egin: haien adina, zenbat denboran egoten diren, errenta-maila, indarkeria-egoerak jasateko arriskua...

Autozaintzarako eta ahalmen-urritasuna duten emakumeek zaintzen dituzten pertsonentzako premiak antzemateko azterketa bat egin, zeregin horretara ematen duten denbora murrizten lagunduko duten zerbitzuak bultzatu eta, ondorioz, laneratzeko edo gizartean, politikan eta kulturen parte hartzeko egoera hobean egon daitezen.

Gizarte-politikek ahalmen urritasuna duten emakume eta gizonen artean duten eragina era berezian aztertuko duten azterketak eta ikerketak egin.

Prozedura judizial edo bitartekaritza arina ezarri behar da, gizarte-baliabideen inguruko erreklamazioak ebazteko.

PRESTAZIO EKONOMIKOAK

Soldatak eta gizarte-prestazioak, ekonomikoak nahiz zerbitzuetakoak, bateratzeko neurriak indartu, ahalmen-urritasuna duten emakumeen jarduerata baxua handitzeko.

Familia-kargak dituzten ahalmen urriko pertsonentzako laguntzak handitu egin behar dira.

Zaintzaile informalak diren emakumeei laguntza ekonomikoa eman behar zaie, zaintza-aldia amaitu ostean, langabezia-prestazioa baino harago, lan-merkatura sartzeko aukera emango dieten ikasketak egin ahal izateko.

Ahalmen-urritasuna duten emakumeei Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa jasotzeko aukera eman, baita mendekotasun larriko kasuetan ere, prestakuntzarako eta lan-merkaturako sarbidea errazteko. Ekintza positiboko neurriak ezarri.

Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa zabaldu, emakume horien bizitza aktiboa, eta eskubide zibil, politiko, sozial eta kulturalak gauzatzea errazteko; izan ere, eskubide horiek erabiltzeko diskriminazio larria jasaten dute-eta.

Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa zabaldu, amatasunera eta adingabeen zaintzara.

Hala eskatzen dutenean, ahalmen-urritasuna duten emakumeei laguntza ekonomikoak eskaini, behar dituzten laguntza teknikoak ordaintzeko edo/eta etxebizitzak egokitzeko.

Laguntza ekonomiko horiek eskuratzeko dagoen gehiegizko burokrasia arindu, bai eta laguntzak esleitzeko baldintza zurrinak ere.

Alarguntza-pentsioa jasotzeko eskubidea izan eta gainera ahalmen-urritasun larria duten emakumeen konparaziozko bidegabekeria konpondu.

Azterketak egin, ahalmen-urritasun larria duen emakumearen gaur egungo errentaren batez besteko mailak bizitza independentea (bere etxean) eta aktiboa egiteko aukera eskaini eta autonomia gorena indartzeko balio duen argitzeko.

Zaintzaile informalen lana egiten duten ahalmen urriko emakume batzuek kotizatu gabeko pensioa jasotzeko eskubidea izaten dute; alabaina, emakume horiek ez dute eskubiderik Mendekotasunari Arreta emateko Legeak araututako babesa hartzeko, bata eta bestea bateraezinak direlako. Egoera hori aztertu egin behar da.

BALIABIDEAK

Ahalmen-urritasuna duten emakumeak pixkanaka-pixkanaka desinstituzionalizatzen joateko programa bat diseinatu; horretarako, etxeko zaintza-zerbitzuak eta autonomia sustatzeko zerbitzuak bultzatu beharko dira.

Etxeko zaintza-zerbitzuak hobetu, lanetan, denboran eta ordutegian, ahalmen-urritasuna duten emakumeen premietara egokitzeko, eta haien autonomia sustatzeari begira.

Laguntza pertsonala Zaintza-zerbitzuekin bateratu, etxetik kanpo egiten diren izapideetarako.

Laguntza pertsonala eta Etxeko Laguntza Zerbitzua bateragarriak izatea ahalbidetu, laguntza horiek ahalmen-urritasuna duten emakumeen laneratzeari laguntzen dioten kasuetan.

Asteburuetan Laguntza pertsonala eskuratzeko aukera eskaini.

Laguntza pertsonalizatuko eta lasaialdiko programak bultzatu, pertsona zaintzaileen (gehienak emakumeak dira) autonomia eta atsedenaldia ahalbidetzeko.

Bazterketa-arriskuan dauden edo bakarrik bizi diren ahalmen urriko emakumeei doako aholkularitza eskaini, etxean irisgarritasunerako neurri egokienak zein diren jakinarazteko. Gainera, helburu hori lortzeko diru-sailak bideratu behar dira.

Etxeko Zaintza zerbitzuetako langileak ahalik eta gutxien alda daitezen ahalegindu, erabiltzaileen intimitatea zaintzeko.

Baliabide gutxien dituzten ahalmen urriko emakumeei etxebizitza eskuratzen laguntzeko ekintza positiboko neurriak ezarri, hala nola, baliabideak eskuratzeko lehentasuna izatea eta etxebizitzak egokitzeko laguntzak.

Babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko (alokairuan nahiz erosita) baldintzak egokitu, ahalmen-urritasuna duten pertsonen errealitateari erantzuteko.

Ahalmen-urritasuna duten emakumeei zuzendutako prestakuntza-ikastaroak, haiengan eragina duten laneko araudiaren inguruan, batik bat era guztietako eskubideen, ordainsarien eta hobarien alorrean.


3.4.5. Osasun alorreko gomendioak

3.4.5.1. Aniztasun funtzionala duten emakumeen gizarte-egoera Osasun-alarrean

2008ko Ahalmen Urritasun, Autonomia pertsonal eta Mendekotasun egoerei buruzko Inkestatik (EDAD), 2009ko SAADen Datu estatistikoetatik, eta 2008ko Espainiako Pertsona Nagusiei buruzko Txostenetik ateratako datu batzuk azalduko ditugu.

- Sexuaren arabera, 2,30 milioi emakumek diote ahalmen-urritasunen bat dutela, eta 1,55 milioi gizonek. Emakumeen artean, ahalmen-urritasunaren tasa altuagoa da gizonena baino, 45 urtetik gora.
- Sexuaren arabera, emakumeek tasa handiagoa dute ahalmen-urritasun mota guztietan. Eta emakumeentzat nahiz gizonentzat, mugikortasuna da jarduna mugatzeko arrazoi nagusia.
- Sexuaren arabera, ahalmen-urritasuna duten emakumeen % 80,3k mugaketaren bat dute oinarrizko eguneroko jardueretan; gizonen kasuan, % 64,6 dira.
- Emakumeen artean, hezur eta artikulazioetako arazoak nagusitzen dira, eta beste edozein urritasun-talderen aldean, bikoitza dira. Milioi bat emakumek baino gehiagok hezurrek edo artikulazioek eragindako urritasunen bat dute (emakume guztien % 5,0). Gero datoz entzumeneko urritasunak (% 2,4), ikusmenekoak (% 2,3) eta mentalak (% 1,9).
- Zahartzaroan emakumeak dira nagusi. XX. mendearen hasieran, emakume nagusiak gizon nagusiak baino % 10,3 gehiago ziren. Gaur egun % 36,1 gehiago dira.
- INEren proiektzioen arabera, 2050ean, genero femeninoaren nagusigoak bere horretan jarraituko du 65 urtetik aurrera. Mundu osoan gertatzen da adin nagusikoen artean emakumeak gizonak baino gehiago izatea, eta horrek gizarteari nahiz pertsonari euren eragiten die.
- Sexuen eta bizi-itxaropenaren arteko aldeak asko murrizten dira ahalmen-urritasunik gabe bizi izandako urteak kontuan hartuz gero. Halatan, emakumeak gizonak baino gehiago bizi badira, ahalmen-urritasunean emandako urteen prezioan gertatzen da hori.
- Pertsona nagusien ahalmen-urritasuna femeninoa da, nagusiki.
- Gizonen ahalmen-urritasunarekin bost urtez bizi izateko itxaropena daukate, eta emakumeak, aldiz, 8,1 urtez biziko dira egoera horretan. Emakumeak luzaroago bizi izaten dira, baina urte gehiago ematen dituzte osasun-egoera txarrean.
- Adineko emakume gehiago bizi dira bakarrik eta horrek arrisku gehiago dakarkie etxean istripua izateko, ariketarik ez egiteko, bakartuta egoteko, depresiorako, ahalmen-urritasunerako...
- Gizonen artean, 16 eta 34 urte bitartean izaten dute istripuak izateko arrisku handiena. Emakumeen kasuan, halako bi dira, 65 urtetik aurrera, etxeko istripua izateko arriskuari dagokionez (etxebizitzaren diseinuaren garrantzia).

- Adinean aurrera egin ahala, osasunaren pertzepzio negatiboak hazi egiten dira, eta gizonen eta emakumeen arteko aldeak ere bai.
- Pertsona nagusien artean, gaixotasun osteomuskularra aipatzen da gehien. Erdiek baino gehiagok diote jarduera mugatu zion gaixotasuna edo gaitza “artrosi, erreuma, bizkarreko mina” atalean sartzen zela, eta horiexek dira, hain zuzen, ahalmen-urritasun gehien eragiten dituztenak. Emakumeek gizonek baino askoz gehiagotan aitortzen dute halako gaixotasuna.
- Gizonen artean ospitaleratze-tasa altuagoa bada ere, emakumeek gaixotasun eta ahalmen-urritasun gehiago izaten dituzte.



3.4.5.2. Helburu eta ekintzetarako proposamena, Osasun-alorrean

OSASUN LAGUNTZA

Ahalmen urriko Pertsonen Eskubideei buruzko Hitzarmenak behartu egiten ditu estatu partaideak “ahalmen-urritasuna duten pertsonak osasun-zerbitzuetara sarbidea izateko neurri guztiak hartzera, genero-ikuspegia kontuan hartuta”.

Osasun-zerbitzuen alorrean egiten diren azterketa eta ikerketa guztietan ahalmen-urritasunaren aldagaia txertatu behar da, sexuaren eta ahalmen-urritasun motaren arabera berezita.

Osasun-arazo asko daude emakumeei soilik eragiten dietenak, edo haiengan eragin handiago dutenak.

Osakidetzak estatistikoki aztertu behar ditu datu horiek, eta azterketak egin behar ditu, emakumeengan eta haien adin-taldeetan ondorio “endekatzaile” handiena (lan-esparruaren testuinguruan) duten gaitz eta patologiak nabarmentzeko.

Era orokorrean, batik bat emakumeei aniztasun funtzionalak eragiten dizkieten endekapenezko gaixotasunetatik babesteko prebentzioko osasun-politikak ezarri. Urtero, helburu hori lortzeko diru-sail egokia bideratu.

Errehabilitazio zerbitzuak nahikoa hornitu, tratamenduan laguntza arina eskaintzeko moduan.

Zerbitzu publiko eta kontzertatuetara sarbide unibertsala bermatu.

Bizitza aktiboa garatzeko kalitatezko laguntza tekniko egokiak sartu osasun-prestazioetako ortoprotesien katalogoetan eta gizarte-prestazioen zorroan (adibidez, gurpil-aulki ergonomikoak, arinak, motorrez bultzatzeko sistemekin, eta erabiltzaile bakoitzaren premiei egokituta). Horri esker, hirigunean nahiz landa-inguruan autonomia-maila handiagoa izango dute mugikortasun-arazo larriak dituzten emakumeek.

Ahalmen-urritasuna duten neska eta gazteen artean elikadura-arazoen eragina aztertu, orain arteko azterketek erakutsi baitute talde horrek obesitate-arrisku handiagoa duela.

Miaketarako tresna eta gailu guztiek eskuragarri egon behar dute edozein ahalmen-urritasun duten emakumeentzat.

Osasun-baliabide teknikoek (ohatilak, mamografoak, ekografoak...) egokitu egin behar dira, ahalmen-urritasuna edota mugikortasun mugatua duten emakumeen premien arabera.

Ahalmen-urritasunaren ikuspegia ere hartu behar da kontuan osasun alorrean genero-ikuspegia txertatzeko gaur egun indarrean dauden prozesu guztietan.

Edozein urritasun-mota duten emakumeen premiekiko egokituta eta sentsibilizatuta dagoen osasun-sarea bermatu behar da.

Praktika klinikoko gidaliburuek, eta mediku eta osasun-langileen eguneroko jardunak, barnean hartu behar dute generoaren eta ahalmen-urritasunaren ikuspegia. Horretarako, azterketa bat egin beharko da, metodologiarik egokiena aukeratzeko.

Praktika klinikoko gidaliburuek barnean hartu behar dituzte, era sistematikoan, ahalmen-urritasuna duten emakumeen berriazko premiak, beharrezkotzat jotzen den esparru guztietan.

Praktika klinikoko gidaliburuek barnean hartu behar dituzte ahalmen-urritasuna duten emakumeekiko jokabideari buruzko edukiak, beste edozein pertsonaren pareko trataera jaso dezaten. Askotan izaten dira kexuak, tratua desegokia izan delako, edo ahalmen-urritasun larria duten emakumeekiko errespetu falta egon dela sentitzen dutelako.

Ahalmen-urritasuna duten emakumeek bizi dituzten egoera ugariak kontuan hartuko dituzten Osasun Protokoloak ezarri behar dira, emakume horiek jasotzen duten osasun-arretan denbora gehiago behar izango dela aurreikusteko.

Medikuek eta osasun-langileek prestakuntza espezifikoa jaso behar dute, aniztasun funtzionala duten emakumeen premia bereziei buruz, eta baliabide nahikoa izan behar dute arreta pertsonala eskaintzeko, intimitaterako eskubidea errespetatuta, eta nahitaez etxekoan edo beste pertsona batzuen bitartekaritza behar izan gabe.

Zaintzaile-lanean ari diren arreta zuzenerako langileek prestakuntza berezia jaso eta laguntza teknikoak izan behar dituzte, ahalmen-urritasuna duten emakumeak lekualdatzeko unean intimitaterako eta duintasunerako eskubidea ahalik eta gehien errespetatuta.

Ahalmen-urritasunak dituzten emakumeentzako medikamenduei buruzko prestakuntza berezia jaso behar dute medikuek eta osasun-langileek, medikamenduak ugaltzea saihestu eta, ahal den neurrian, horien ordeztatu behar dituzten tratamendu batzuk ezartzeko, hala nola errehabilitazioa edo medikamendurik gabeko terapiak.

Bularreko minbiziaren eta umetokiaren diagnostikoari eta tratamenduari lotutako Osakidetzako prestakuntza-moduluetan, ahalmen-urritasuna duten emakumeen premia bereziei buruzko gogoetak ezarri.

Mamografiak egiteko tresneriak egokituta egon behar du.

Gauza bera azterketa ginekologikoak eta ekografiak egiteko ohatilei dagokienez.

Osakidetzako prestakuntza-moduluetan, espezialitate guztietan baina bereziki ginekologian, generoaren eta ahalmen-urritasunaren ikuspegia kontuan hartuko duten edukiak sartu.

Medikuntza, Erizaintza, eta Klinika Laguntzailea karrerarako prestakuntza-curriculumetan, generoari eta ahalmen-urritasunari buruzko moduluak sartu behar dira.

.....
Azterketak egin behar dira, ahalmen-urritasuna duten emakumeek osasun-sistemak aurkitzen dituzten oztopoak eta premiak, eta aurreikuspenak eta iradokizunak ere, zehatz ezagutzeko.
.....

Normalean, instalazioek edota tresnek irisgarritasun-arazoak dituztenean, zaintzaile-lanetan ari diren langileek bete behar izaten dute gabezia hori. Horregatik, prestakuntza egokia jaso eta behar diren laguntza teknikoak izan behar dituzte, ahalmen-urritasuna duten emakumeak lekualdatzen dituztenean, haien intimitaterako eta duintasunerako eskubideak ahalik eta gehien zaintzeko eta, gainera, euren laneko osasunaren prebentzioa ziurtatzeko.
.....

Medikuak eta osasun-langileek prestakuntza berezia jaso behar dute, ahalmen-urritasunak dituzten emakumeei eman beharreko medikamenduen inguruan.
.....

Medikamenduak nolana ematea saihestu behar da eta, ahal den guztietan, beste aukera batzuk lehenetsi behar dira, hala nola errehabilitazioa edo medikamendurik gabeko terapiak.
.....

Aniztasun funtzionala duten emakumeek arretako programa pertsonalak izan behar dituzte, endekapenezko fenomenoak zaindu eta prebenitzeko. Izan ere, aniztasun funtzional motaren arabera, urteetan zehar bilakatu eta eragin negatiboak izan ditzake ikusmenean, mugikortasunean, entzumenean, etab.
.....

Lehen mailako osasun-zerbitzuek ahalmen-urritasun larria duten emakumeentzako arreta-protokolo bereziak barneratu behar dituzte, kontsultan bertan egotea eskatzen duten azterketen kasuan izan ezik, errutinazkoak diren errezetak eta abar, telefono bidez edo Internet bidez eman ahal izateko.
.....

Ospitaleek altzari egokiak izan behar dituzte, ahalmen-urritasuna duten pertsonak edozein gelatan hartzeko moduan, eta eskaren arriskua murrizteko moduan.
.....

Itunpeko ospitale eta klinika guztiek behar diren langile eta laguntza tekniko guztiak izango dituzte mugikortasun murriztua duten pertsonen lekualdatzeetan arreta bermatzeko, eta jaikitze, oheratzeko eta komunera joateko premia duten bakoitzean laguntza egokia emateko.
.....

Inkontinentzia duten pertsonentzako osasun-katalogoaren prestazioek honelakoak izan behar dute: azken belaunaldikoak eta pertsonari hobekien egokitzen zaizkionak, beraren ahalmenaren arabera, bizitza aktiboa eramateko moduan. Eta, egunero, erabiltzailearen premiak betetzen dituztela bermatu.
.....

3.4.5.3. Jokabide Egokietarako gomendioak Osasun Arretan

JOKABIDE EGOKIETARAKO GOMENDIOAK OSASUN ARRETAN

Osasun-zerbitzuak ahalmen-urritasuna duten emakumeen premiei egokitzeko premisa batzuk

- Kotsultak etxean egin, astero edo hilero. Proposamen horrek, batez ere, landa-eremuan eta hirietatik aparte dauden herrietarako balio du.
- Aldatu eremuak, altzariak eta diagnostiko-ekipamenduak, ahalmen-urritasuna duten emakumeentzat irisgarriak izan daitezzen.
- Zerbitzuetako langileak trebatu eta behar diren baliabideak aurreikusi, emakume gor edo itsuekin, hitz egiteko arazoa dutenekin, edo ikasteko eta ulertzeko zailtasuna dutenekin, komunikazio eraginkorra izateko. Emakumeek zer gertatzen den ulertu behar dute, eta behar izanez gero, zalantzak eta galderak pausa ditzakete, eta entzun eta azalpen egokiak jasotzeko eskubidea dute. Trebatzeko jarduera horietan, ahalmen-urritasuna duten emakumeek ere egon behar dute.
- Zure langileen artean ahalmen-urritasuna duten emakumeak sartu, osasun-langile bezala, edo beste kargu batzuetan.
- Osasunari, emakumeari eta ahalmen-urritasunari buruzko jarduerak antolatu.
- Aldian aldiro, ahalmen-urritasuna duten emakumeentzako orientazio-saioak eskaini.
- Eman erraztasunak ahalmen-urritasuna duten emakumeei, egun berean ahalik eta hitzordu gehien izan ditzaten behar dituzten espezialista guztiekin.
- Informazio argi eta erraza eskaini, osasun-zerbitzuak nola erabili behar diren.
- Eskaini osasunari buruzko informazioa formatu eskuragarrietan.
- Osasun-langileak trebatu eta aholkuak eman, hizkera erraz eta argia erabil dezaten, eta irudiak ere, behar izanez gero, ikasteko edo ulertzeko arazoak dituzten emakumeei gauzak azaltzen dizkietenean.
- Kotsultategi askotan azterketak egiteko ohatilak altuak dira, eta azterketak egiteko aulkiak esertzeko zailak, mugikortasun murriztua duten pertsonak bertara lekualdatzeko. Gailu hidraulikoak dituzten altzariak jarri behar dira, irisgarritasuna hobetzeko. Ahalmen-urritasuna duten emakumeek lekualdaketaetan sufritzen dituzte tratu ez duineko eta errespetu gutxiko egoera gehienak. Gainera, emakumeek erortzeko arriskua ere izaten dute eta osasun-langileek arretan arintasuna eskaintzea oztopatzen dute.

Osasun-langileentzako gomendioak

- Ahalmen-urritasuna duen emakumeren batek osasun-arazo bat dela-eta, kontsultatu nahi bazaitu, gogoan izan emakume hori, batez ere, beste edozein emakumeren parekoa dela. Galdetu lehenengo zertarako etorri den kontsultara, eta nola lagun diezaiokezun. Ez pentsa, berez, kontsulta beraren ahalmen-urritasunari lotuta dagoenik.
- Errespetatu haren iritziak. Gogoan izan berak beste inork baino hobeto ulertzen dituela bere osasun-arazoak, eta erabaki egokiak har ditzakeela tratamenduari buruz. Lagundu lasaitzen, eta animatu galderak egitera. Garrantzitsua da ahalmen-urritasuna duten emakumeei galdetzea nola nahi duten artatzea.
- Ahalmen-urritasuna duen emakume batek osasun-azterketa bat egiteko zuregana jotzen duenean, azaldu azterketaren pausu guztiak, eta emakumeak ulertzen ez duen guztia. Bera lasaiago egongo da, azterketa hasi aurretik galderak egin ahal badizkizu. Erakutsi erabiliko dituzun tresna guztiak. Azal iezaiozu une bakoitzean zer egiten ari zaren, eta zer egingo duzun, egin aurretik. Galdetu prest ote dagoen eta itxaron berak erantzun arte; horrela, berak gertatzen dena kontrolatu ahal izango du, neurri batean behintzat.
- Aniztasun funtzional batzuetan nahigabeko muskulu-espasmoak izaten dira (muineko lesioetan, adibidez). Kontuan izan eta ez kexatu gaixoaren aurrean.
- Gerta daiteke zu ez ohartzea zer muga funtzional dakarren aniztasun funtzional bakoitzak. Hitz egin gaixoarekin, galdetu nola lagun diezaiokezun; beharrezkoa bada, eskatu beste langile batzuen laguntza. Ager daitezkeen irisgarritasun-arazoak gainditzeko modu egokiena bilatu, baina ez utzi egin gabe beharrezkoak diren diagnostiko-probak. Gogoan izan arazoa ez dela gaixoarena, eta bai zerbitzuarena, ez baitago herritar guztiei arreta eskaintzeko prestatuta.

3.4.6. Sexu Hezkuntzari buruzko gomendioak

3.4.6.1. Aniztasun funtzionala duten emakumeen gizarte-egoera, Hezkuntza Sexualaren alorrean

Elkarguneak zuzendu zituzten espezialistek sexualitateari buruz ateratako ondorio nagusiak honako hauek izan ziren:

- Aniztasun funtzionala duten emakumeek eremu eta denbora espezifikoak behar dituzte euren sexualitateari buruz hitz egiteko. Zentzu horretan, esperientziak erakutsi digu komunikatzeko gune bat prestatzen den unetik, partekatze aukera emanez, emakumeek hitz egin eta zalantzak eta beldurrak adierazten dituztela. Lehenik eta behin errugabetu egiten ditu, eta hori karga handia da aniztasun funtzionala duten emakumeentzat; beste bizitza-istorio batzuetan beren burua islatuta ikusteko aukera dute, eta taldeko kide sentitzen dira, ez daude bakarrik bizitzako esperientzia garrantzitsu horretan.
- Aniztasun funtzionala duten emakumeek sexuari buruzko esperientziak, zalantzak, beldurrak eta lotsak partekatze beharra dute. Logikoki, jarrera- eta jokabide-aldaketak izateko aukera eskaintzen die horrek; hori egin ezean, aldiz, adierazteko ere oso zailak izango lirarteke eta. Trukuak, baliabideak eta gaitasunak partekatzeari esker; pertsonak zail izango luke potentzial hori berak bakarrik eskuratzea.
- Ahalmen-urritasuna duten emakumeek desioak dituzte, eta ezezaguna eta gizartean ukatua eta mugatua duten potentzial erotikoa aztertzeke premia sentitzen dute. Izan ere, argi geratu da desioa ez ezik, emakume gisa aberastasun handia dutela, gizartean jakin ez arren.
- Ahalmen-urritasuna duten emakumeek sentitzen dute euren gorputza ez dela moldatzen sozialki ezarritako edertasun-kanonetara, eta, haien ustez, edertasun-estereotipoek era bikoitzean baztertzen dituzte. Diskriminazio bikoitz hori dela eta, euren burua balioztatzeke, berriz ikasteko eta atsegin izateko eremuak aldarrikatzen dituzte.
- Ahalmen-urritasuna duten emakumeek bizitza sexual osoa izateko eskubidea dute; euren gorputza ezagutzeko eskubidea, euren onura eta gozamenerako erabiltzekoa, amak izatekoa eta bikote-bizitza osoa garatzekoa, ahalmen-urritasunik ez duten gainerako pertsonen pare. Ahalmen-urritasuna duten emakume askok, bizitza-ibilbidean zehar, euren gorputza ez ezagutzearen ondorioz, bestearekin ulertzeko oztopo eta mugatzat sentitu dute. Zentzu horretan, garrantzitsua da bikotekiderik izan ez baina halakoa nahi dutenen hausnarketa, pentsatzen baitute gorputz “hori” ezin dela izan besteentzako desio- edo atsegin-xedea.
- Harremana hastean, arbuatua izateko beldurra dute. Taldean nahikoa orokorra da elkarketa erotikoa zer egin ez jakitearen edo ondo ez egitearen beldurra, eta eszitazioan edo orgasmoan zailtasunak izatearena. Emakumeen artean ohikoa da desio erotikoa baztertzea, edo desio urria izatea, orgasmoaren aldeko jokabide erotikoa izateko nahiaren aldean.
- Halatan, sexu-ikerketak sustatzearen premia ikusten dugu, sexu-identitateari, sexualtasunari eta erotismoari dagokionez. Beti ere, kontuan izan behar dira aniztasun funtzional motak eta mailak ekartzen dituzten berezitasunak.

- Beste aldetik, ahalmen-urritasuna duten emakumeek laguntza sexologiko profesional eta pertsonalizatuaren premia sentitzen dute, euren zalantzak eta arazoak azaldu, eta desioan, gozamenean eta bestearekin elkartzean, gaitasunak hobetzeko.
- Horrekin paraleloan, tailer horretan antolatu dugunaren pareko eztabaida-eta topaketa-taldeak sortzeko komenigarritasuna ikusten dugu, emakumeek esperientziak partekatu eta baliabideak biltzeko gunea eta denbora izan dezaten. Premiaz ezartzeko ekintza garrantzitsua da hori.
- Familiaren eginkizuna eta gurasoek, borondate onez, ezartzen duten gainbabesa aipatu dira, ahalmen-urritasuna duten emakumeek bikotea aurkitu eta harremanak izateko oztopoak baitira.

Ondoren, 20 eta 30 urte bitarteko emakume gazteek egindako adierazpen batzuk jaso ditugu:

“Familiak pentsarazi dit ez dudala emakume bezala balio, ez bainintzen ezkonduko, eta ez bainintzen ama izango”.

“Amaren hitzetan: mutilak “zerbait izan behar du”, nirekin egon eta irten nabi badu. Ez nau pozik ikusi nabi, norbaitek nirekin egon nabi duelako eta hori atsegin duelako?”

“Funtsezkoa da autonomia-maila handiagoa izatea, gurasoen etxean bizi izanik ere, abalik eta independenteena izateko. Norberaren itxura zaintzea, familiaren mende egon gabe etxetik irten eta sartzea...”.

3.4.6.2. Helburu eta Ekintzetarako proposamena, Sexu-hezkuntza alorrean

SEXU INFORMAZIOERAKO ETA HEZKUNTZARAKO BALIABIDEAK

Sexualitatearen alorrean egiten diren azterketa eta ikerketa guztietan ahalmen-urritasunaren aldagaia txertatu behar da, sexuaren eta ahalmen-urritasun motaren arabera bereizita.

Ahalmen-urritasuna duten emakumeek hala eskatzen badute, eure eskura jarri behar da laguntza psikologiko eta sexologikoa, sexuaz gozatzeko ahalmena hobetzeko.

Osasun- eta hezkuntza-sistemek ahalmen-urritasuna duten emakumeen sexualitateari aitortzen dioten garrantzia hobetu behar da:

- Medikuntza, Erizaintza, Psikologia eta Sexualitatea karreretako curriculumean, ahalmen-urritasunari, sexualitateari, amatasunari eta kontrazepzioari buruzko kredituak sartu behar dira.
- Osakidetzako prestakuntza-moduluetan, sexualitateari, kontrazepzioari eta ahalmen-urritasunari buruzko moduluak sartu behar dira.
- Ahalmen-urritasuna duten neska eta emakumeen sexualitateari buruzko langile espezializatuen prestakuntza bultzatu behar da.
- Funtsezkoa da ahalmen-urritasunak (muineko lesioak, urritasun-organikoak, etab.) dituzten emakumeen sexu-gozamena hobetzeko azterketak egitea. Gaur egun, osasun-alorrean, gizonen erektzio- eta eiakulazio-gaitasuna berreskuratzeko aukeretara mugatzen da sexuari buruzko informazioa.

Sexualitateari eta kontrazepzioari buruzko informazio guztia formatu eskuragarrietan eskaini behar da, edozein ahalmen-urritasun duten emakumeek eskuratzeko moduan.

Landa-eremuan bizi diren emakumeentzat, sexu-informazioari eta kontrazepzioari buruz dauden premiak estaltzeko ekimenak garatu behar dira.

Ahalmen-urritasuna duten emakumeen sexu-esperientzien inguruko eztabaidataldeak sortzea bultzatu behar du Osasun Sistema Publikoak, beldurrak eta tabuak baztertzeko asmoz. Sexologian adituak diren profesionalak zuzendu behar dituzte talde horiek.

Ekintza berberak sustatu behar dituzte aniztasun funtzionalen inguruan sortutako elkarteek.


Landa-eremuan bizi diren emakumeentzat, sexu-informazioari eta kontrazepzioari buruz dauden premiak estaltzeko ekimenak garatu behar dira.

Instituzionalizatuta dauden edo laguntza-etxeetan bizi diren ahalmen urriko emakumeen sexu-harremanekiko errespetua eta askatasuna bermatu behar da.

.....
Sexu-hezkuntza edo -informazioko dibulgaziozko materialetan, ahalmen-urritasuna duten emakumeen irudi normalizatua, sexu-bizitza eta bizitza afektibo osoarekin, erakutsiko duten testuak edo irudiak sartu behar dira.
.....

Hezkuntza-, kultura- eta abarreko esparruetan, nerabe eta gazteei zuzenduta egiten diren sexu-hezkuntzako jarduerak ikuspegi inklusibo horixe hartu behar dute, eta aurreikuspen eta estereotipoak hausteko mezuak igorri behar dituzte.
.....

Ahalmen-urritasuna duten emakumeen osasunari buruzko ikerketa-proiektuak sustatu behar dira, eta arreta berezia jarri behar zaie sexu- eta ugalketa-osasunaren alorreko premiei, bai eta haurdunaldiaren borondatezko etendurarako eskubideak errespetatzeari ere.



3.4.6.3. Jokabide Egokietarako gomendioak Sexu Informazio eta Hezkuntza alorrean

JOKABIDE EGOKIAK SEXU INFORMAZIO ETA HEZKUNTZA ALORREAN

Sexologiako eta sexu-osasuneko langileentzako gomendioak

- Gorputzaren eta osasunaren ingurukoak ikasteko, neska eta gazteentzako hezkuntza-jarduerak antolatzen badituzu, gogoan izan beti ahalmen-urritasuna duten neskek sartzea.
- Irakatsi ahalmen-urritasuna duten nesken familiei eta irakasleei, ahalmen-urritasuna duen neskaren eta emakumearen gorputzak, ia beti, ahalmen-urritasunik ez duen neskaren edo emakumearen gorputzak bezala funtzionatzen duela.
- Ahalmen-urritasuna duten emakume askok sexualitateari buruzko galderak dituzte, baina adierazteko beldur edo lotsa dira. Emakume horiei laguntzeko, ikas itzazu beraien sexualitatea adierazteko izan ditzaketen moduak, eta hitz egin haiekin euren zalantza eta itxaropenen inguruan.
- Lan egizu ahalmen-urritasuna duten emakumeekin, ahalmen-urritasuna duten neska edo emakumeei zuzendutako ekitaldiak edo programak antolatzeko.
- Lagundu ahalmen-urritasuna duten neska eta gazteei, euren adinean gorputzean izan ohi diren aldaketei buruzko informazio egokia lortzen. Azaldu zer esan nahi duen emakume izateak, eta erantzun harreman intimoei eta sexualitateari buruz egiten dizkizuten galderei. Ahalmen-urritasuna duten neska eta emakumeak euren gorputzez eta sexualitateaz harro egotea galarazten duten aurreiritzi eta jarrerak aldarazteko borroka dezakezu.
- Errespetatu beti ahalmen-urritasuna duten emakumeen intimitatea. Ez hitz egin inorekin emakumearen arazoei buruz, ez eta etxekoekin ere, berak aurretik baimena ematen ez badizu.
- Azal iezaiozu nola transmititzen den GIB/HIESa eta gainerako STGak, eta nola prebenitzen diren gaitz horiek.
- Azaldu nola erabiltzen diren gizonentzako kondoia eta emakumeentzako kondoia.
- Ikas ezazu zer arazo izan ditzaketen ahalmen-urritasuna duten emakume batzuek, STGak tratatzeko medikamendu batzuk hartzen badituzte.
- Edozein arrazoi medio, ahalmen-urritasuna duen emakumeren bat aztertzen baduzu, arreta egin sexu-jazarpenaren zantzurik al dagoen.
- Kontu egin ahalmen-urritasuna duten emakumeek HIESa antzeman eta horren inguruko aholkuak emateko zerbitzuetarako sarbidea izan dezaten.
- Azaldu ahalmen-urritasuna duten nesken gurasoei, komenigarria dela alabak, txikitatik, GIB/HIESari eta beste STG batzuei buruzko informazioa izatea. Horrela, hazi eta lehen sexu-harremanak izaten dituztenean, nola babestu jakingo dute.

3.4.7. Ugalketa eta Amatasun alorreko gomendioak

3.4.7.1. Aniztasun funtzionala duten emakumeen gizarte-egoera, Sortze- eta Amatasun-alorrean

Ahalmen-urritasuna duten neska eta emakume askok etxeko lanak eta zaintza-lanak egiten dituzte familian, gainerako emakumeek baino gehiago. Errealitate horrekin batera, uste hedatua da -eta nerabeei eragin kaltegarria dakarkie- ahalmen-urritasuna duten emakumeak “ezgai” izaten direla bikotearen ohiko eginkizunak betetzeko, ama izateko eta etxeko ardurak hartu eta lanak egiteko.

Europar Batasunean ahalmen-urritasuna duten emakumeen egoerari buruz 2007an **Europako Legebiltzarrak egindako Txosten** batek beharrezkoa ikusten du bermatzea *“ahalmen-urritasuna duten emakumeen ugalketa-osasunaren zaintza, eta arreta egin behar zaizkio bainbat alderdiri, bala nola familia-plangintzari, osasun-zerbitzuei eta amatasunari buruzko informazioari. Helburua zera da: emakume horiek barreman ekitatibo, arduratsu eta egokiak izateko gai izatea”*. Ildo beretik, garrantzitsutzat jotzen du Estatu kideek *“onartzea ahalmen-urritasuna duten emakumeek eskubide besterenezina dutela euren sexualitatea izan eta familia osatzeko”*.

Ahalmen-urritasuna duten Emakumeentzako I. Ekintza Plan Integralak, bere aldetik, aipatzen du ez dagoela ahalmen-urritasuna duten emakumei buruzko azterketarik, *“genetikoki urritasuna transmitituko al den edo haurdunaldian eta erditzean amaren bizitza arriskuan jarriko al den”* aukera zehazten duenik, eta gogorarazten du gai horiek sozialki txertatuta daudela, eta aurreiritziak eta tabuak dakartzatela.


Hedabideetan zabaltzen diren mezuek ere ez dute askorik laguntzen, heroiak balira bezala tratatzen baititu, baina ezer esan gabe sistemak laguntza nahikoa eskaintzen al dien. Isilarazi egiten dituzte emakume horietako askok, ama izan nahi dutenean, osasun-sisteman, adopzio-sisteman eta intseminazio-sisteman aurkitzen dituzten oztopo asko. Aniztasun funtzionala duten amek, bikotekidearekin hautsi, abandonatuak izan edo seme-alabak galtzeko arriskua dutenean, inposatzen zaizkien bizi-baldintzak onartzen dituzte eta, aldiz, beste gauza bat behar dute benetan: seme-alabak zaintzen lagunduko dien laguntza praktikoa, laguntza pertsonal egokiarekin.

Ahalmen-urritasun larriak izanik lanean ari diren emakume gutxiak baztertu egiten dute ama izateko gogoia, amatasun-bajarako denboraldia laburregia delako eta enplegua galtzeko arriskua dutelako.

Gure topaketetan jasotako hausnarketa eta informazioetan oinarrituta, honako ondorioak atera ditugu:

- Ama izateko gogo handia eta izaera sendoa behar dute emakumeek, erabaki hori gauzatzeko oztopoak, mugak, laguntza-etak eta kontrako kontseiluak gainditzeko. Gerta daiteke haurdun izateko eskubidea etxean nahiz osasun-sisteman ere defendatu behar izatea, ahalmen-urritasuna dutelako aitzakiatan.

- Emakumeek askotan aipatu dute erditzea prestatzeko informazio gehiago eta euren berezitasunetara egokitzea behar dutela. Era berean, berriro ere aipatzen dute gabezia larriak daudela osasun-altzarietan (ohatilak, egokitu gabeko komunak, etab.) eta osasun-alorreko langileek ez dutela ezaguera egokia gai horren inguruan. Erditzean ahalmen-urritasuna duten emakumearen egoerari aurre egiteko unean, langile batzuek enpatiaz gaintzen dute arazoa, eta beste batzuek, aldiz, harriduraz.
- Erditze-ondorengo aldiari dagokionez, ahalmen-urritasunaren ondoriozko zalantzak etortzen dira, muga horiek zer ekarriko ote duten eta kanpoko laguntzak era pribatuan kontratatu behar izaten dituztelako.
- Halere, umeen hezkuntzan etortzen dira zailtasun eta alde handienak. Zentzu horretan, ahalmen-urritasuna duten amek aldaketa eta egokitzapen handiak egin behar izaten dituzte, ama izatearen ohiko lanak egoki bete ahal izateko.
- Zailtasun eta muga guztien gainetik, nabarmendu egin behar dugu ama guztiek oso ondo baloratu dutela amatasuna, eta denek azpimarratzen dutela ama izatea autogaratzeko bide garrantzitsua eta emakume oso izateko aukera izan dela.



3.4.7.2. Helburu eta Ekintzetarako proposamena, Sortze- eta Amatasun-alarrean

SORTZEA, HAURDUNALDIA ETA AMATASUNA

Ugalketa- eta amatasun-alarrean egiten diren azterketa eta ikerketa guztietan ahalmen-urritasunaren aldagaia txertatu behar da, sexuaren eta ahalmen-urritasun motaren arabera berezita.

Familiako, laneko eta pertsona gisako bizitzak uztartzeko neurri osagarriak ezarri, ahalmen-urritasuna duten gurasoentzat.

Ahalmen-urritasun larria duten emakumeek (>% 50) erditze multipleetarako amatasun-bajarako ezarrita dagoen baja-aldi berbera eduki behar dute, amak eurak suspertzeko eta haurra autonomia handiagoz artatzeko egokitzapen-premia izaten dutelako.

Ahalmen-urritasuna duten emakumeei arreta psikologiko egokia eskaini, haurdunaldian eta erditzearen ostean.

Onuragarria izango litzateke antzeko aniztasun funtzionala duten amak biltzeko gune fisiko edo birtuala sortzea, euren esperientziak eta baliabideak partekatzeko.

Erditzea prestatzeko zerbitzu bereziak abian jarri, ahalmen-urritasuna duten emakumeen premia espezifikoek erantzuteko.

Ahalmen-urritasuna duten emakumeek diagnostiko-proba nahikoak izan behar dituzte, haurdunaldiaren bilakaeraren berri izateko. Era berean, egoki denean eta amaren borondatez, ezarpenen aurretiko eta ondorengo diagnostikoak egin behar dituzte.

Ahalmen-urritasuna duten emakumeek laguntza bidezko ugalketa izateko eskubidea bermatzeko neurriak hartu.

Gaur egun esperma-bankuetan eskura dauden aukera guztiei buruz benetako informazioa, inolako aurreiritzirik gabea, eskaini behar zaie.

Adopzio-prozesuetan, ahalmen-urritasuna duten emakumeak diskriminaziorik jasango ez dutela bermatu.

Prestazio eta zerbitzuen katalogoa zabaldu, haurrak bi urte izan aurretik, laguntzako zaintzaile bat edo haurtzaindegiak kontratatzeko laguntzak jaso ditzaten.

Amatasun eta aitatasun kasuetan, Mendekotasunari Arreta egiteko Sistemaren prestazioa jasotzeko aukera izan behar dute. Gaur egun legeak bi aukera baino ez ditu jasotzen: ikasketa- eta lan-kasuetan.

Seme-alabak aukera-berdintasunean hazi ahal izateko, altzariak eta guneak egokitzeko laguntza ekonomikoak ezarri.

Umeak gorpil-aulkian eramateko elementu osagarriak diseinatu eta patentatzeko ikerketa sustatu eta finantzatu.

.....
Halako elementuak erosteko diru-laguntzak eman edo/eta mailegu-sareak ezarri.
.....

Ahalmen-urritasuna duten emakumeen amatasun-eskubidea bermatzeko, osasun-langileek prestakuntza jaso behar dute ahalmen-urritasuna duten emakumeek haurdunaldian, erditzea prestatzean eta erditzeko unean izaten dituzten berariazko premien inguruan. Adibidez, sor daitezkeen arazoak, berariazko arriskuak eta halakoak arintzeko moduak.
.....

Azterketa ginekologikoak eta ekografiak egiteko ohatilek prestatuta egon behar dute; hidraulikoak izatea, adibidez.
.....

Osakidetzako informazio-moduluetan, aniztasun funtzionala duten emakumeen gaitasunen inguruko aurreiritziak baztertzeko gomendioak jarri. Izan ere, gertatzen da bideragarriak izan daitezkeen haurdunaldiak ez egitea aholkatzea.
.....

Entzuteko aniztasuna duten emakumeen osasun-arretan, zeinuen hizkuntzako sistemak izan behar dira, amarekin komunikazio zuzena ahalbidetzeko moduan.
.....

Haur-eskoletan, ahalmen-urritasuna duten pertsonen seme-alabentzako lekua bermatu behar da.
.....

Ahalmen-urritasuna duten pertsonen lehentasuna izan behar dute seme-alabentzako haurtzaindegia eta ikastetxea aukeratzeko unean, hurbiltasuna, garraioa eta eskuragarritasuna kontuan hartuta.
.....

Haurtzaindegiek eta ikastetxeek eskuragarriak izan behar dute, familian ahalmen-urritasuna duen edozein pertsona seme-alabekin bertara joan eta jardueretan parte hartu ahal izateko.
.....

Hezkuntza-esparruan emakumeek izan behar duten parte-hartze horrek hainbat eremu hartu behar ditu, besteak beste, ahalmen-urritasuna duten amek Guraso Elkarteetako kudeaketan eta jardueretan parte hartzea.

3.4.7.3. Jokabide egokirako gomendioak, Sortze- eta Amatasun-alarrean.

JOKABIDE EGOKIAK SORTZE- ETA AMATASUN-ALORREAN

Gomendioak ginekologia eta amatasun alorreko profesionalentzat

- Treba zaitez haurdunaldian ahalmen-urritasuna duten emakumeei arreta egiteko.
- Informa zaitez zer arazo izan ditzaketen haurdunaldian ahalmen-urritasuna duten emakumeek, eta zer arazo ez dituzten izaten.
- Ohar zaitez ahalmen-urritasuna duten emakumeek egin dezaketenaz; ez izan aurreiritzirik euren mugei buruz.
- Ez ziurtzat jo ezin dutenik erditu baginatik. Gogoan izan behar duzu emakume batek ahalmen-urritasuna izateak ez dakarrela haren umetokian gaitzik izatea.
- Antolatu bilerak ahalmen-urritasuna duten emakumeekin, elikadurari, medikamenduei eta erditze-aurreko azterketei buruzko informazioa emateko.
- Ziurta iezaiezu osasun-zerbitzuetarako sarbide erraza haurdunaldian zehar.

Erditze-unean, osasun-zerbitzuak ahalmen-urritasuna duten emakumeen premiei egokitzeko premisa batzuk

- Kontu egin erditze-gelan eskuragarriak direla ahalmen-urritasuna duten emakumeentzat.
- Egiatzatu azterketako oheak eta mahaiak hidraulikoak direla.
- Behar diren neurriak hartu, mugikortasun murriztua duen ama ez dadin jaiki behar haurra hartzeko, eta gelan guztiz prestatutako komuna egon dadin.
- Egiatzatu ama itsu edo gorrak haurra beti ondoan izan dezan. Horrela, haurra entzuterik edo ikusterik izan ez arren, bularra emateko edo urrumatzeko premiarik al duen jakingo du.

3.4.8. Herritarren Segurtasunaren alorreko gomendioak

3.4.8.1. Aniztasun funtzionala duten emakumeen gizarte-egoera, Herritarren Segurtasunaren alorrean

Gure ustez, ez dago informazio edo bitarteko nahikorik herritarren segurtasuneko, babes zibileko edo larrialdietako zerbitzu batzuetan, nola jokatu behar den aniztasun funtzionala duten pertsonen premia arreta eskaini behar zaienean.

Eta, beste aldetik, aniztasun funtzionala duten pertsonen ez dakite bere burua babesteko berehalako zer neurri hartu behar dituzten arriskuan daudenean, edo zerbitzu horiek erabili behar dituztenean.

Askotan gertatzen da eraikuntza publiko bateko txartel batean irakurtzea “ez erabili igogailua larrialdi-egoeretan”. Baina zer aukera dago horren ordez? Ezin da ezarri “gunerik” eraikuntzetako solairuetan, halako egoerarik gertatzen bada bertara jotzeko?

Etxean: nola egin daiteke salaketa bat hirugarren pertsonengana jo behar baduzu lekualdatzeko edo komunikatzeko, eta hirugarren pertsona horiek salaketan nahastuta badaude?

Nola jokatu kalean erasorik jasan baduzu, entzuteko aniztasuna edo ahoz komunikatzeko aniztasuna baduzu? Zer hartu behar duzu kontuan, ikus-aniztasuna baduzu?

Halako zerbitzuetan, herritar guztiei arreta emateko prestakuntza landu behar dugu, herritarrek edozein aniztasun izanik ere, entzuna izan eta informazio zehatza eman ahal izateko bermea edukitzeko, arriskuak, aurrekariak, beldurrak... kontuan hartuta. Komunikazio horietan, ziur egon behar dugu aurreiritziak ez direla tartean sartuko, eta ahalmen-urritasuna duen pertsonari sinesgarritasun osoa, tratu pertsonal duina, eta beraren intimitatea gordetzeko eskubidearekiko errespetua aitortuko zaizkiola.

Lehenago ere aipatu dugu ahalmen-urritasuna duten emakume asko bizi direla bakarrik edota beste pertsona batzuen mende daudela bizi irauteko. Beraz, herritarren sektore horrek berezia izan behar du zerbitzu horientzat. Horrexegatik jarri dugu alor hori ahalmen-urritasuna dutenen aukera-berdintasunaren aldeko txosten honetan: emakume horiek egoera ahulagoan daudelako erasoan, larrialdien eta abarren aurrean.

3.4.8.2. Helburu eta Ekintzetarako proposamena, Herritarren Segurtasunaren alorrean

HERRITARREN SEGURTASUNA

Herritarren segurtasunerako eta larrialdietarako zerbitzuen esku-hartzearen alorrean egiten diren azterketa eta ikerketa guztietan ahalmen-urritasunaren aldagaia txertatu behar da, sexuaren eta ahalmen-urritasun motaren arabera berezita.

Herritarren segurtasunean eta larrialdietan parte hartzen duten langileek prestakuntza eta gaitasuna izan behar dute, nola jokatu behar duten ahalmen-urritasunak dituzten pertsonekin.

Trebakuntza horrek honako eduki hauek jaso behar ditu:

- Mugikortasun murriztua duten pertsonen premien inguruko ezagutza; zein diren urritasun horren arrazoiak eta ondorioak.
- Ikusteko eta entzuteko urritasuna duten pertsonen premiei buruzko ezagutzak.
- Ahalmen-urritasuna duten pertsonak lasaitu eta haiekin elkarrengaitzeko teknikak.
- Kolektibo horiekin larrialdietan jokatzeko ildo orokorrak.
- Nola egin aurre larrialdi-mota bakoitzari kolektibo horiekin.
- Praktikak larrialdi-mota desberdinetan eta ahalmen-urritasun mota desberdinekin (laguntza ortoprotesikoen erabilera).
- Ahalmen-urritasuna duten pertsonen arriskuei eta berezitasunei buruzko prestakuntza teknikoak.
- Autobabeserako, mugitzeko eta erreskatatzeko teknikak larrialdi-mota desberdinetan (sutea, garraio kolektiboan istripua, uholdea, ekaitza, eguraldiaren ondorioak, lurrikara...).

Babes zibilaren alorreko informazioa egin eta zabaldu, ahalmen-urritasun mota bakoitzari egokituta (liburuxkak, txartelak, publizitate-kanpainak...).

Mezu zehatza prestatu beharko litzateke, bakarrik bizi diren edo laguntza gutxi duten ahalmen urriko emakumeei zuzenduta.

Herritarren Segurtasunaz arduratzen diren pertsonak (poliziak, suhiltzaileak, larrialdi-zerbitzuak) honela jokatu behar dute ahalmen-urritasuna duten pertsonekin:

- Adeitsuak izan.
- Lasai jokatzera gonbidatu.
- Laguntza eskaini.
- Euren izena eman, berehala.
- Nola lagun ditzaketen galdetu.
- Haiekin zuzenean hitz egin, ez hirugarrenen bidez.

- Zer esaten duten ulertzen ez badute, berriro esateko eskatu.
- Gurpil-aulkian dabilen pertsona bat lekualdatzeko, modu seguruen da atzeko hodiak zapaltzea eta gurpil txikiak pixka bat altxatzea.

Pertsonak ikus-urritasuna badu:

- Makila erabiltzen utzi, oztopoak uki ditzan.
- Besoa eskaini, ez hartu berarena.
- Pertsona hori baino pausu bat aurrerago egon behar du, eta etengabe mantendu komunikazioa.

Pertsona gorren kasuan:

- Pertsona horren aurrean kokatu eta argi hitz egin, hitz errazak erabiliz, ezpainenetan irakurtzeko moduan.
- Aurreikusitako zeure baliabideen artean zeinu-hizkuntza interpretatzeko norbait behar dezakezula, premiaz..

.....
Ahalmen-urritasuna duten pertsonak beren burua babesteko gaitasunetan eta mugetan oztopo gutxiago izan ditzaten saiatu.

.....
Erakunde publiko eta pribatuak ahalmen-urritasuna duten pertsonekin lankidetzan aritu behar dute, herritarren segurtasunari lotutako ekintzetan.

.....
Ahalmen-urritasuna duten pertsonak herritarren segurtasunari lotutako jardueretan parte hartzera bultzatu.

.....
Instalazioak egokitu, ahalmen-urritasuna duten pertsonak mugitzeko arazorik izan ez dezaten.

.....
Herritarrei zerbitzua ematen dieten pertsonen kontzientziak sustatu, ahalmen-urritasuna duten pertsonen sarbideari, mugimendu askeari, bide-laguntzei, seinaleztapenari, eta herritarren segurtasunari lotutako arauak kontuan har ditzaten.

.....
Erakunde publikoak, pribatuak eta ahalmen-urritasuna duten pertsonekin ari diren erakundeek Herritarren Segurtasunerako eta Babes Zibileko kanpaina bereziak antolatu behar dituzte, ahalmen-urritasuna duten pertsonen zuzenduta.

.....
Biztanleek oro har jakin behar dute nola jokatu behar duten ahalmen-urritasuna duten pertsonekin, babes zibilaren eta herritarren segurtasunaren alorrean.

.....
Ahalmen-urritasuna duten pertsonen jakinarazi zer egin behar duten arrisku-egoera batean, edo hondamendia gertatzen bada.

.....
Hondamendietan, ahalmen-urritasuna duten pertsonentzako segurtasun-baldintzak lortzeko lan egin.

.....
Ezbeharririk izatekotan, naturala nahiz eragindakoa, ahalmen-urritasuna duten pertsonak babesteko asmoa duten jardueretan, beraien parte-hartzea sustatu.

.....
Nahitaezkoa da ingurumen fisikoaren ezaugarriak kontuan hartzea, eremu guztietan irisgarritasuna bermatu behar baita, joan-etorriak, eta batez ere ahalmen-urritasuna duten pertsonenak, errazak izan daitezzen. Ez da egon behar lekualdatzeak oztopatuko dituzten oztoporik, egoera normalean nahiz ebakuazio kasuan.

.....
Larrialdietan, ahalmen-urritasuna duten pertsoneri laguntza bermatzeko berariazko jarduera-protokoloak arautu behar dira.

.....
Ahalmen-urritasuna duten pertsonen hondamendi kasuan nola jokatu jakin behar dute.

.....
Simulakroak egiten direnean (sutea, istripua...), ahalmen-urritasuna duten pertsonen parte-hartzeko aukera aztertu behar da, nahiz eta halako pertsonak ez izan askotan instalazioetan.

.....
Larrialdirik edo ebakuaziorik badago, ahalmen-urritasuna duten pertsonarik (urritasun iragankorra nahiz behin betikoa izan) ote dagoen egiaztatu behar da, eta egoera horri aurre egiteko bitarteko egokiak prestatu behar dira. Larrialdietan egoera ahulenean dauden kolektibo horien premiei arreta egin behar zaie, eta elementu hori oso kontuan hartu behar da larrialdiei eta ebakuazioei aurre egiteko jardueretan.

3.4.9. Indarkeriaren Biktimen Arretaren eta Prebentzioaren alorrerako gomendioak

3.4.9.1. Aniztasun funtzionala duten emakumeen gizarte-egoera, Indarkeriaren Biktimen Arretaren eta Prebentzioaren alorrean

Europar Kontseiluaren arabera, ahalmen-urritasuna duten emakumeen % 40k indarkeria-motaren bat jasan edo jasaten du. *“Halere, hurbileko norbaiten indarkeriaren biktima diren neska edo emakumeen kopurua estatistiketan ageri dena baino altuagoa da”*, Ana Peláezek, Ahalmen-Urritasunaren Europar Foroko Emakumeen Batzordeko presidenteak eta Ahalmen-urritasuna duten Pertsonen Ordezkarien Espainiako Batzordeko Genero (CERMI) Ordezkariak, adierazi duenez.

“Estatu Batuetan egindako ikerketen arabera, ahalmen-urritasuna duten emakumeek gainerako emakumeek baino bi edo bost aldiz gehiago jasaten dute genero-indarkeria, eta lau edo hamar aldiz gehiago, adimen-urritasuna duten emakumeak badira” adierazi zuen berrikitan Mariano Casadok, Adimen Urritasuna duten Pertsonen aldeko Elkartearen Federazioko (FEAPS) Madrilgo presidenteak. Kolektibo hori da ahulenetakoa tratu txarren aurrean, eta zailtasun erantsia ere badute, biktimak ezagutzeko eta biktima horiek informazioa eskatzea are zailagoa da eta. Hori lortzen denean, hurrengo arazo bat ere badago: biktimei ez zaiela sinesgarritasunik aitortzen, jasaten dituzten aurreiritzi sozialen ondorioz (jarrera-oztopoak deritzen horiek).

Europar Batasunean ahalmen-urritasuna duten emakumeen egoerari buruz, Europako Biltzarrak egindako Ebazpen Proposamenak (2006/2007 (INI)) dioenez, *“ahalmen-urritasuna duten emakumeen ia % 80k indarkeria psikologiko eta fisikoa jasaten du, eta sexu-indarkeriaren biktima izateko arriskua gainerako emakumeena baino handiagoa da. Hala, indarkeria askotan errepikatzen bada ahalmen-urritasuna duten emakumeen kasuan, batzuetan indarkeria ahalmen-urritasun borren arrazoia izaten da”*.

Osasun txarra izateak edo ahalmen-urritasuna agertzeak etxeko indarkeria areagotzea dakarkie emakumei (Europako Kontseiluak Irlandan 2000. urtean egindako azterketa). Bakarrik bizi diren emakume nagusien kasuan ere areagotzen da arriskua (egoeraz aprobetxatzen direnak, maula-egileak). Genero-indarkeriaren egoera horiek, zalantzarik gabe, depresio-egoerak eta suizidio-saioak eragiten dituzte.

Emakumeen aurkako indarkeria ez zegoen, eta oraindik ere ez dago, ahalmen-urritasuna duten pertsonen aldeko mugimenduen agendan.

Honela definitu zuten Nazio Batuek 2003an emakumearen aurkako indarkeria: *“sexu femeninoko partaide izatean oinarritzen den indarkeria-ekintza oro, haren ondorioz, kalte fisiko, sexual edo psikologikoa badakarkio emakumeari, bai eta halako ekintzak egiteko mehatxuak, derrigortzea, edo askatasuna bidegabe kentzea, kalean nahiz etxean izan”*. Hori kontuan izanik, etxeko indarkeriaz zer ulertzen dugun berriro ere zehaztu behar dugu, adibidez, indarkeria dagoenean, indarkeria eragin gabe, bertan dagoen pertsonak edota indarkeria laguntzen duen pertsonak egindako indarkeria ere

barruan hartzeko. Ahalmen-urritasuna duten emakumeen gaineko botere eta kontrol egoerak gerta daitezke, eta, ondorioz, emakume horiek jasan dezaketen zaurgarritasuna eta bakardadea are handiagoa izan daiteke.

Kontua ez da soilik tratu txarren edo desberdintasunaren era guztiak izendatu eta zenbatzea; kontua da jakitea nola biltzen diren hainbat faktore, ahalmen-urritasuna duten emakumeak abandonatuta edo arrisku- edo zaurgarritasun-egoeran egoteko baldintzak sortzeko. Zergatik dauden arrisku handiagoan, eta nola babestu behar duten euren burua, eta nola babestu behar ditugun gainerakook.

Genero-indarkeria mendekotasun-indarkeria da, botere-, desberdintasun-indarkeria. Indarkeria horrek ez ditu beti zauriak agerian uzten. Bere burua nagusitzat duenak egiten du indarkeria hori. Emakume askoren errealitatea, uste duguna baino zoritxarrekoagoa eta latzagoa ere izan daiteke. Indarkeria erabiltzen duenak bizitza osoan erabili nahi du tirania eta tortura emakumearen gainean. Ahalmen-urritasuna duen emakumeak oso aukera gutxi du hortik ihes egiteko, edo egoera salatzeko.

Genero-indarkeria ez da soilik ageriko eraso, odoltsua, labankada edo ukabilkada. Gure ustez, ahalmen-urritasuna duten emakumeenganako indarkeria eremu pribatuan ematen da, eta zaila da gainerakoak konturatzea, bizitza horren esparru pribatuan sartu ezean.

Ahalmen-urritasuna duten emakumeekin era positiboan lan egiteko erarik ez egotea, eta beraien ingurumena, aukerak eta harremanak ez ezagutzea, bere horretan, indarkeria mota bat da. Zailena aitortzea eta frogatzea da. Muturreko utzikeria, tantaka doan egunerokoa, *“ikusitako ezinezko jipoi”* gisa definitu ziren.


Zaintzaile asko izaten badituzu, zaintza pertsona asko eta desberdinengandik jasotzen baduzu, zutaz abusatuko duen norbaitekin topo egiteko aukera handiagoa duzu. Horregatik da horren garrantzitsua norberak aukeratu eta kontratatutako zaintzailea izatea.

Beste edozein emakumeri gertatuz gero, bortxaketatzat edo sexu-erasotzat hartuko litzatekeen gertaera, askotan *“sexu-gehiegikeriatzat”* hartzen da ahalmen-urritasuna duen emakumeari gertatzen zaionean. Gauza bera erailtzeari *“etxeko indarkeria”* esaten diogunean. Edo lapurretari eta iruzurrari *“tratu txar ekonomikoa”* esaten diogunean. Gainera, emakume horrek zailtasun handiagoa du informazioa eta zerbitzuak eskuratu eta, horrela, justizia-sistemaren bidez kalte-ordaina eta suspertzeko laguntza jasotzeko.

“Zaurgarritasunaren gizarte-eredua” onartu izanak erakuste du gizarte honek eta beraren gabeziak zaurgarritasun-egoera larriagoan kokatzen gaituela emakume batzuk.

Nazioarteko Hitzarmenek gure duintasun eta funtsezko eskubideekiko errespetua bermatzea exijitzen dute, eta erakundeei ardura eta betebeharra egotzen diete *“ahalmen-urritasuna duten neska eta emakumeak babesteko, gainerako emakumeak eta gainerako herritarrak bezainbeste”*.

Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osoko Neurriei buruzko Abenduaren 28ko 1/2004 Legeak ez du definizio egokirik egin, aurretik aipatu ditugun arrisku guztiak jasoko dituenik. *“Senarrek edo senarrak izan direnek, edota emakumeei antzeko afektibitate-barremanez lotuta –baien borondatearen aurka izanik ere– egon direnek eragindako”* indarkeriara mugatzen da..



3.4.9.2. Helburu eta Ekintzetarako proposamena, Indarkeriaren Biktimen Arreta eta Prebentzioaren alorrean

PREBENTZIOA

Genero-indarkeriaren alorrean egiten diren azterketa eta ikerketa guztietan ahalmen-urritasunaren aldagaia txertatu behar da, sexuaren eta ahalmen-urritasun motaren arabera berezita.

Erregistratu eta segimendua egiteko metodo hobeak garatu eta ezartzeko ekintzak.

Ahalmen-urritasuna duen emakumearen alerta- eta autodefentsa-sistemak sustatzea ezinbestekoa da beraren autoestimua eta ahalduntzea bultzatzeko.

Arrisku handiena izan dezaketen etxe- eta elkarbizitza-eremuak zein diren antzeman behar da.

Osasun-egoitzak eta etxebizitza komunitarioak zuzentzen eta zaintzen duten langileek egoki prestatuta egon behar dute.

Jakin behar dute borondatezko arreta ezari, utzikeriari, tratu bidegabeari edo arreta intimoarekiko errespetu ezari lotutako tratu txarra dagoela, eta abusu-egoerak identifikatu behar dituzte.

Informazioa formatu aproposetan eskaini behar da, emakume guzti-guztiei zuzenduta, haien aniztasun funtzionala edozein izanda ere.

Bertan bizi diren pertsonen informazio nahikoa eta eskuragarria eskaini behar zaie, euren eskubideei buruz eta salaketa jartzen duten bideei buruz, konfidentzialtasun osoan, errepresaliak jasateko beldurrik gabe.

Laguntza pertsonalean eta etxeko zaintzan ari diren profesionalak prestakuntza jaso behar dute lagundutako pertsonaren eskubideetan, tratuaren duintasunean, errespetuan: zer eraso-, tratu txar- eta indarkeria-mota saihestu behar duten.

Etxeko zaintzak arrisku handiago dakarrenez, sistema horren bidez estalitako etxebizitzetara egiaztatze bidea ugari egiteko protokoloak ezarri behar dira. Zantzuak eta arriskuak aztertu eta zaindutako emakumeekin elkarrizketa pribatuak egin behar dira, eskaintzen den zaintzaren kalitatea egiaztatze bide.

Etxeko zaintza-zerbitzuetan muga bat ezarri behar da, laguntza zuzena eskaintzen duten langileen artean hainbeste aldaketa egon ez daitez.

Ahalmen-urritasuna duen emakumeari laguntza ematerakoan, ziurtatu egin behar da emakumeak berak egindako aukera izan dela, eta ez senideek, hurbileko jendeak, etab. hartutako erabakia.

Gainera, zerbitzua aldatzeko sistema arina eskaini behar zaio, berak hala eskatzen badu.

Hedabideetako profesionalak generoaren eta ahalmen-urritasunaren alorreko jokabide egokiei buruzko prestakuntza jaso behar dute, ez dadin gertatu

ahalmen-urritasuna duten emakumeak bigarren mailako edo mendeko pertsona bezala agertzea, eta mezu iraingarri eta baztertzailerak saihesteko.

Hezkuntza-komunitateko langile guztiei prestakuntza egokia eskaini behar zaie, ahalmen-urritasuna duten neskeganako indarkeriak dituen ezaugarri bereziei buruz, eta kontzientziatu egin behar dira arreta berezia jar dezaten.

Genero-indarkeria aztertzen duten osasun-alorreko espezialitateetako curriculumean ahalmen-urritasunaren ikuspegia txertatu behar da.

Genero-indarkeriari buruzko tokiko protokoloetan, ahalmen-urritasuna duten emakumeen aurkako indarkeriaren eta sexu-erasoen eraginari buruzko berariazko gogoetak txertatu behar dira.

Instituzioetan bizi diren ahalmen urriko emakumeen aurkako indarkeriaren eraginari buruzko azterketa eta ikerketak egin behar dira; haien arrazoiak aztertu eta halako egoerak ezabatzeko proposamenak egin.

Emakumeen aurkako indarkeria prebenitu eta ezabatzeko esparruan ari diren pertsona guztien prestakuntza-programetan, ahalmen-urritasunaren ikuspegia txertatu behar da.

Genero-indarkeriaren kontzeptua berriz definitu, ahalmen-urritasunaren ikuspegiari egokitzeko. Zentzu horretan:

- Utzikeria fisikoa, lasakeria, arreta gabezia eta ez egiteko ekintzak ere txertatu behar dira.
- Osasun- eta harrera-egoitzetan izaten diren intimitatearen eta duintasunaren urraketak ere hartu behar dira kontuan.
- Egondaldi luzeko erakunde eta ospitaletako indarkeria ere hartu behar da kontuan.
- Emakumeen premia fisiologikoak egoki betetzeko arreta gabezia bezalako alderdiak ere hartu behar dira kontuan.
- Indarkeria emozionala eta indarkeria ekonomikoa ere txertatu behar dira.

Ahalmen-urritasuna duten emakumeen aurkako indarkeriari buruz gizartean dauden estereotipoen eta aurreiritzien inguruko ikerketa egin behar da.

Ahalmen-urritasuna duten emakumeek jasaten duten indarkeriari buruzko azterketa soziologiko kuantitatibo eta kualitatiboak egin behar dira.

Ahalmen-urritasuna duten emakumeek eremu publikoan jasaten duten indarkeriari buruzko azterketa jaso behar da, indarkeria horrek gainerako emakumeen jasaten dutenaren aldean dituen berezitasunak jasotzeko.

Genero-indarkeriari buruzko azterketa guztietan, ahalmen-urritasuna duten emakumeek bizi dituzten berezitasunak eta egoerak txertatu behar dira, arrisku- eta zaugarritasun-egoera handiagoan kokatzen dituztelako. Laburbilduz, ahalmen-urritasuna txertatu behar da genero-indarkeriaren gizarte-ereduan.

Ahalmen-urritasunaren ikuspegia txertatu behar da genero-indarkeria eragoztera zuzendutako prestakuntza-programa guztietan, eta herritarrak sentsibilizatzeko kanpaina guztietan.

Genero-indarkeriari buruzko edukiak azertzen dituzten diziplinetako curriculumetan (gizarte-hezkuntza, gizarte-lana, soziologia, maisu-eskola...), ahalmen-urritasuna duten emakumeen aurkako indarkeriak dituen berezitasunei buruzko edukiak sartu behar dira.

Berariazko azterketak egin behar dira, ahalmen-urritasuna duten emakumeen aurkako jazarpen sexistaren berezitasunen inguruan.

Gizarte-kontzientziazio kanpainak egin behar dira ahalmen-urritasuna duten emakumeek jasaten duten genero-indarkeriaren tasa altuaren inguruan, eta egoera horiek salatzeak daukan garrantziaren inguruan.

ANTZEMATEA

Lantokietan, EZBetan barne, sexu-jazarpena antzeman eta erauzteko ekintza-protokoloak ezarri.

Harrera-egoitzetan eta etxeko zaintza-zerbitzuetan indarkeria antzemateko protokoloa sortu, ahalmen-urritasunaren ikuspegia barnean hartuta.

Gizarte- eta osasun-arretako zerbitzuen bikaintasuna edo kalitatea egiaztatzeko parametroen barruan, errespetu-gabeziako eta trataeran gizatasuna kentzearen inguruko jokabideak eta jarrerak erauzteko parametroak txertatu.

Erakundeetan, indarkeria-egoerak antzemateko kanpo-zerbitzua sortu, instituzionalizatuta dauden emakumeek askatasunez adieraz dezaten jasaten duten indarkeria.

Informazioa formatu aproposetan eskaini behar da, emakume guzti-guztiei zuzenduta, haien aniztasun funtzionala edozein izanda ere.

BALIABIDEAK

Administrazioek prest egon behar dute premiaz erantzuteko indarkeria jasan duten ahalmen urriko emakumeen babes-premiari, lehenengo deia edo kontsulta egiten duen unetik bertatik. komunikatzeko interprete-premia, mugikortasuna, ordezkoko ostatua, laguntza pertsonala, baliabide ekonomikoak...

Larrialdiko egoerez gain, gizarte-, osasun-, polizia-, justizia- eta emakumeen zerbitzu guztiek arretarako eta baliabideetarako ekintza-protokoloa izan behar dute, emakumearen aniztasun funtzionala edozein izanik ere, intimitaterako, arreta zuzenerako, zerbitzuen eskuragarritasunerako eta komunikaziorako eskubideak errespetatu daitezzen, eta emakumeak ez dezaten jasan bat-batekotasuna edo arretaren atzerapena.

.....
Etxeko Arreta eta Zaintza Zerbitzuak sortu, ahalmen-urritasuna duten emakumeen aurkako genero-indarkerian espezializatuta, eta baliabide eta laguntza psikosoziala eskain dezatela.
.....


Ahalmen-urritasuna duten emakumeak amak badira eta genero-indarkeria jasaten badute, haien babesa bermatzeaz gain, guraso-ahala gauzatzeko eta euren seme-alabekin bizi izateko eskubidea ere defendatu.
.....

Ahalmen-urritasuna duten emakumeek jasaten duten genero-indarkeriak salatzea sustatzeko mekanismoak sortu, dela baliabide berezi eta espezializatuekin, dela gaur egungoak egokituta.
.....

Genero-indarkeria jasaten duten ahalmen urriko emakumeen egoera ekonomikoa hobetzeko mekanismoak abian jarri. Adibidez, laneratzeko programa bereziak sortuz edo kolektibo horrek jasotzen duen laguntza ekonomikoaren zenbatekoa hobetuz, indarkeria-egoera jasaten duten etxe-inguruetik irten ahal izango baitira horrela.
.....

Indarkeria jasaten duten ahalmen urriko emakumeentzat egokitutako etxebizitza-multzo bat bermatu, haien egoera ekonomikoa kontuan hartuta.
.....

Ekintza positiboko neurriak ezarri, tratu txarrak jasan dituzten ahalmen urriko emakumeek osasun mentaleko zerbitzuetara sartzeko aukera-berdintasuna izan dezaten.



3.4.9.3. Jokabide egokien protokoloak, Genero Indarkeriaren Biktimen Arreta Zerbitzuetan

JOKABIDE EGOKIEN PROTOKOLOAK GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEN ARRETA ZERBITZUETAN

Genero-indarkeria prebenitu eta antzemateko zerbitzuez arduratzen diren profesionalentzako jarraibideak

- Aniztasun funtzional guztietarako eskuragarria izan dadila duzun material informatibo eta dibulgatibo guztia.
- Presta itzazu aniztasun funtzionala duten emakumeei zuzendutako ekintzak.
- Ziurtatu informazio- edo Zaintza-zerbitzuak eskuragarri daudela emakume guztientzat.
- Hitz egin sexu-gehiegikeriaz, ikasteko edo ulertzeko arazoa duten emakumeekin.
- Ziurtatu ulertu dutela gehiegikerien aurka defendatzeko eskubidea dutela.
- Ziurtatu ulertu dutela zuregana edo beste konfiantzazko pertsona batengana jo dezaketela norbaitek ukitzen baditu, tratu txarrak eragiten badizkio edo haietaz baliatzen bada; eta zuek sinetsi eta babestu egingo dituzuela.
- Ziurtatu ikasteko arazoa duten emakumeek euren kabuz defendatzen ikasten dutela.


Indarkeria, bortxaketa edo tratu txar sexualak jasan dituzten ahalmen urriko emakumeak artatzen dituzten profesionalentzako gomendioak

- Adeitasunez artatu. Zer gertatu zen kontatzera animatu. Arretaz entzun, eta sinesten diozula jakinarazi. Ez sentiarazi errudun.
- Ez erabili bitartekaririk, zeinuen hizkuntzarako interpretarik behar ez baduzu. Behar izanez gero, aurreikusi baliabide hori.
- Emakumearen osasun mentaleko premiei arreta egin, beharrezkoa bada. Galdetu ba al duen norekin hitz egin. Lagundu bere burua errespetatzen eta bere bizitzaren kontrola berreskuratzen. Elkarlaguntzako taldea sortzeko aukera egon liteke.
- Emaiozu konfiantza beraren erabakiak har ditzan. Polizian salaketa egin nahi badu, lagundu zerbitzu legalak eskuratzen. Lagundu beste zerbitzu batzuk bilatzen, indarkeriaren biktima diren emakumeen komunitatean.
- Lagundu eta animatu bikotekidearekin edo senideekin hitz egitera, baina soilik nahi badu; ez ezazu behartu. Familian ez badakite zer gertatu den, eskaini zeure burua horren berri emateko. Familiari ere lagun diezaiokezu, emakumea berreskuratu arte euren laguntza jaso dezan.
- Mugitzeko eta garraiorako laguntzarik behar badu, aurreikusi laguntza pertsonaleko zerbitzuak, egin behar dituen izapide guztiak egin ditzan.

- Aurreikusi beste ostatu bat eskaintzeko baliabideak, emakumearen premia ekonomikoak eta laguntza pertsonalak erabat hartuko dituztenak. Kontu egin, baliabide hori ez duelako, berriro ere erasotzailearengana edo arrisku-ingurunera itzuli ez dadin.
- Adingabeak baditu beraren kargu, har itzazu berarekin batera joateko behar diren neurri guztiak.

Indarkeria, bortxaketa edo tratu txar sexualak jasan dituzten ahalmen urriko emakumei osasun-azterketa egingo dioten profesionalentzako gomendioak

- Gerta daiteke emakumearentzat zaila izatea zuk begiratzea edo ukitzea. Horregatik, ukitu aurretik, azal iezaiozu nola aztertuko duzun, eta itxaron bera prest egon arte.
- Gogoan izan bortxaketak emakumeari eragiten dizkion sentimenduek luzaro iraun dezaketela. Presta itzazu laguntza psikologikorako zerbitzuak.
- Egin kasu emakumearen osasun-arazoei. Eman medikamenduak STGak eta haurdunaldia saihesteko, eta GIBa kutsatzeko arriskua gutxitzeko. Bortxaketaren ondorioz haurdun badago, lagun iezaiozu erabakia hartzeko prozesuan.



4. KUDEAKETA ETA EBALUAZIOA

Ezarrirako helburuari/ei loturiko emaitzen adierazleak sartuko dira eta garatzen ari den planaren jarraipeneko orokorrekin jarraituko diete, aniztasun funtzionala duten emakumeen ikuspegia barne:

- Aukera-berdintasuna bermatzen dugula eta irisgarritasun unibertsaleko parametroak txertatzen ditugula ebaluatzea.
- Berdintasunerako ekintzak sartzeko berrikusi eta aldatutako esparruetako jarduketa-lerroen %, desgaitasunaren ikuspegia barne hartuta.
- Egin eta hedatutako estatistika eta azterlanen %ren eboluzioa, sexuaren eta desgaitasunaren arabera bereizita.
- Genero- eta desgaitasun-ikuspegiarekin egindako diagnostikoen %ren eboluzioa.
- Desgaitasuna duten emakumeak kontuan hartutako egindako inpaktuko aurretiko ebaluazioen kopurua/Beharrezko gisa detektatutako ebaluazioen kopurua.
- Ekintza zuzentzaileekin aldatutako proiektu eta arau kopurua/Inpaktu negatiboarekin egindako ebaluazio kopurua.
- Desgaitasuna duten emakumeak kontuan hartuta diseinatutako berdintasunerako ekintzen betetze mailaren eta emaitzen eboluzioa.
- Saileko prestakuntzaren eboluzioa, pertsona prestatuen eta pertsonako prestakuntza-orduen %ren arabera neurtuta.

5. BIBLIOGRAFIA-ERREFERENTZIAK ETA DOKUMENTAZIOA

.....
2005eko Biztanleria Aktiboaren Inkesta. 2005eko BAI, EIN.

.....
2009-2010 Topaketa Tailerren emaitzen txostenak, Fekoor Berdintasunaren Aldeko Emakumeen Batzordea.

.....
APA: Sexual Assaults More Severe Against Women With Physical Disabilities Ed Susman Reviewed by Robert Jasmer, MD; Associate Clinical Professor of Medicine, University of California, San Francisco S-2007

.....
Barnes, C.; Mercer, G. (2006) Independent Futures: Creating user led disability services in a disabling society, Policy Press.

.....
“Berdintasunerako eta aniztasunerako aldaketa-ereduak” Gillian Shapiro. 2003

.....
Casado, D., “Desgaitasunerako sistematika baten bila”, Álvarez, A. eta beste batzuk, Minusbaliotasuna duten Pertsonen Prebentziorako eta Arretarako Errege Patronatua, Madril, 1992

.....
Confronting the Sexual Abuse of Women with Disabilities R. Amy Elman, Ph.D. With contributions from Tiffany Lodholz

.....
“Desgaitasuna duten Emakumeak, Tratu Txarren Biktima izandakoak” hitzaldia, Karmele I. Ruiz, 2010.

.....
Desgaitasuna duten pertsonen estatuko datu-basea. MTAS / IMSERSO. Madrilen, 2000an.

.....
Desgaitasunen, Urritasunen eta Osasun Egoeraren gaineko inkesta. 1999. emaitzen aurrerakina. MTAS / IMSERSO, EIN, ONCE Fundazioa. Madrilen, 1999an. ISBN 84-260- 3501-9

.....
Destasunaren, Autonomia Pertsonalaren eta Mendekotasun-egoeren gaineko inkesta (EDAD. 2008ko azaroa),

.....
Disability Activism and the Price of Success: A British Experience .2007. Colin Barnes University of Leeds

.....
EAErako Genero eta Desgaitasuneko Zeharkakotasun Proposamena. Berdintasunaren Aldeko Emakumeen Batzordea. 2008.

.....
Emakumearen gizarte-bazterketaren adierazleak eta desgaitasuna. IMSERSO, Dones no Estandards Elkarte, 2004.

.....
“Emakumeen segurtasuna: mendekotasunetik autonomiara”. CAFSU, Montreal 2001-02

.....
FEKOORren Estrategiak: Desgaitasuna duten Emakume eta Gizonezkoen eskubideak. Fekoor, Bilbo 2007.

.....
Generoa eta Desgaitasuna irakasgaia, Emakume eta Gizonezkoen Berdintasunari buruzko Masterra. Euskal Herriko Unibertsitatea- EHU-UPV- 2009-10. Karmele I. Ruiz

.....
López González. Kordobako Unibertsitatea. 2006. Eredu teorikoak eta ikerketa ezintasunaren esparruan. Esperientzia pertsonala gehitzeko bidean
.....

Osasun eskuliburua desgaitasuna duten emakumeentzat. Jane Maxwell, Julia Watts Belser eta Darlena David. Hesperian Foundation, Berkeley, Kalifornia, AEB. 2009.
.....

Swift, K. What is the impact of disability on gender? Communication Aid User Society Conference. Communication is unlimited, Brisbane Convention and Exhibition Centre, 2-3 April 1998.
.....

The individual and Social models of disability. Mike Oliver BA PhD. Greenwich University 1990
.....

Wolfensberger, W (1980): The definition of normalization: update, problems, disagreements and misunderstandings, en J. R. Flynn (Ed): Normalization, social integration and community services. Baltimore, University Park Press.
.....

Women with Disabilities: Missing Voices. Women's Studies International Forum. 1998, 21 lib., 4. zk., 429-439 or.
.....

Young, I.M. Justizia eta desberdintasunaren politika. Ediciones Catedra 2000.

